



# 2025-2026 IKASTURTEAREN ANTOLAKETA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN

Hezkuntza Politiketako  
sailburuordearen ebazpena



## Aurkibidea

|                                                                                                              |           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA ERALDATZEKO I. PLAN ESTRATEGIKOA (2025-2028)</b>                                | <b>4</b>  |
| <b>2. HEZKUNTZA EMAITZAK HOBETZEKO 2024-2028 ESTRATEGIA INTEGRALA ETA 2025-2026 IKASTURTERAKO LAN-ILDOAK</b> | <b>6</b>  |
| 2.1. IKUSPEGI SISTEMIKOA: HIRU ZUTABE ETA HIRU ESKU-HARTZE MAILA                                             | 6         |
| 2.2. HIRU ZUTABE ESTRATEGIKO                                                                                 | 7         |
| 2.2.1. Ebaluazio-sistema integrala                                                                           | 7         |
| 2.2.2. Matematikarako, irakurtzeko eta zientziako konpetentziak hobetzea                                     | 12        |
| 2.2.3. Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate emozionala                                                       | 18        |
| 2.3. IRAKASLEEN GARAPEN PROFESIONALA TRANSFORMAZIO-PALANKA GISA                                              | 20        |
| <b>3. IKASTETXEA PLANGINTZA, HOBEKUNTZA ETA ERALDAKETARAKO UNITATE GISA</b>                                  | <b>23</b> |
| 3.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA                                                                       | 23        |
| 3.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHizP)                                                               | 24        |
| 3.3. IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA                                                                         | 26        |
| 3.4. IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP)                                                                        | 27        |
| 3.4.1. Irakaskuntza-jardueren programa                                                                       | 28        |
| 3.4.2. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa                                            | 31        |
| Atzerriko jarduera osagarri edo eskolaz kanpokoak                                                            | 33        |
| 3.4.3. Urteko kudeaketa-programa                                                                             | 34        |
| 3.4.4. IUParen garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena                                   | 34        |
| 3.5. IKASTETXEAREN URTEKO MEMORIA                                                                            | 35        |
| 3.6. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA                                                                                  | 35        |
| 3.6.1. Etapa-erdiko ebaluazio diagnostikoa                                                                   | 35        |
| 3.6.2. Etapa amaierako ebaluazio diagnostikoa (ED26)                                                         | 36        |
| 3.7. INDARTUZ NEURRIA LEHEN HEZKUNTZAN (2025-2026 IKASTURTEA)                                                | 37        |
| 3.8. ERLIJIOA                                                                                                | 44        |
| <b>4. IKASLEAK IKASKUNTZAREN, INKLUSIOAREN, BIZIKIDETZAREN ETA ONGIZATEAREN SUBJEKTU AKTIBO GISA</b>         | <b>45</b> |
| 4.1. IKASLEENTZAKO HEZKUNTZA-ERANTZUNAREN PRINTZPIO OROKORRAK ETA ARAU-ESPARRUA                              | 45        |
| 4.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA ESPEZIFIKOAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEAK                                       | 48        |
| 4.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak                                                     | 50        |
| 4.2.2. Arreta-nahasmendua edo ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak                              | 52        |
| 4.2.3. Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak                                                             | 52        |
| 4.2.4. Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea                                                    | 53        |
| 4.2.5. Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historiakoak dituzten ikasleak                                | 53        |
| 4.3. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEEN ERANTZUNA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA            | 54        |
| 4.3.1. Ikasleen informazioa biltzea eta antolatzea                                                           | 54        |
| 4.3.2. Ebaluazio psikopedagogikoa eskatzea HPBko aholkularitzari                                             | 55        |
| 4.3.3. Ezohiko curriculum-neurriak eta laguntza-baliabideak                                                  | 55        |
| 4.3.4. Arreta goiztiarra: Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa                                      | 60        |
| 4.4. ESKOLA INKLUSIBOA, BIZIKIDETZA, HEZKIDETZA ETA ONGIZATE SOZIO-EMOZIONALA                                | 61        |
| 4.4.1. Bizikidetza                                                                                           | 62        |
| 4.4.2. Hezkidetza: berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean                                                | 63        |
| 4.5. ESKOLA-DENBORAREN ETA IKASKUNTZAREN ANTOLAMENDUA                                                        | 65        |
| 4.5.1. Egutegia eta ordutegia (Haur eta Lehen Hezkuntza)                                                     | 65        |



|                                                                                                                      |           |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 4.5.2. Ikasleak eskolara joatea .....                                                                                | 66        |
| 4.6. IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK.....                                                                | 67        |
| <b>5. IRAKASLEAK HEZKUNTZA-ALDAKETAREN ERAGILE .....</b>                                                             | <b>68</b> |
| 5.1. IRAKASLEEN ANTOLAMENDUA .....                                                                                   | 68        |
| 5.1.1. Irakaskuntza-jardueraren antolamendua.....                                                                    | 68        |
| 5.1.2- Urteko lanaldia.....                                                                                          | 68        |
| 5.1.3. Hezkuntza-laguntza .....                                                                                      | 71        |
| 5.1.4. Lanaldi-murrizketa duten irakasleak .....                                                                     | 71        |
| 5.1.5. Dedikazio espezializatuko irakasleak.....                                                                     | 73        |
| 5.2. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTE KARGU BATZUK .....                                                               | 77        |
| 5.2.1. Zuzendaritza-taldea.....                                                                                      | 77        |
| 5.2.2. Zuzendaritzakoak ez diren beste kargu batzuk.....                                                             | 78        |
| 5.2.3. Zuzendaritza-kargudunen ordutegia .....                                                                       | 80        |
| 5.3. IRAKASLEAK BERTARATZEA. LANALDIA BETETZEN DELA KONTROLATZEA.....                                                | 80        |
| 5.3.1. Irakasleak ikasturteko lehen egun baliodunean bertaratu direla kontrolatzea .....                             | 81        |
| 5.4. ZIKLO/ETAPAKO TALDEAK .....                                                                                     | 82        |
| 5.4.1. Ziklo/etapako koordinatzaileak .....                                                                          | 82        |
| 5.4.2. Ziklo/etapako taldearen bilerak eta zereginak.....                                                            | 83        |
| 5.5. MAILAKO TALDEAK ETA TUTORETZAK .....                                                                            | 85        |
| 5.5.1. Tutoreak izendatzea .....                                                                                     | 86        |
| 5.5.2 Tutorearen eginkizunak .....                                                                                   | 86        |
| 5.5.3. Asistentziaren hezkuntza-jarraipena egitea eta eskola-absentismoaren aurrean jardutea .....                   | 87        |
| 5.5.4. Bilerak gurasoei edo legezko tutoreekin.....                                                                  | 88        |
| 5.6. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN TUTORETZA .....                                                           | 88        |
| 5.7. HAUTAKETA-PROZEDURETAN HAUTATUTAKO IRAKASLEEN PRAKTIKALDIA.....                                                 | 88        |
| 5.8. LANGILE ESPEZIFIKOAK.....                                                                                       | 89        |
| 5.8.1. Jantokiko arduraduna.....                                                                                     | 89        |
| 5.8.2. Administrazio-kudeaketaren arduraduna .....                                                                   | 91        |
| 5.8.3. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programako irakasleak.....                                  | 93        |
| 5.8.4. Lan-kontratuko irakasleak eta hezitzaileak.....                                                               | 94        |
| <b>6. ESKOLA-FUNTZIONAMENDU SEGURU ETA ERAGINKORRERAKO BALDINTZAK ETA ARAUAK.....</b>                                | <b>96</b> |
| 6.1. IKASTETXEETAKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO ERABILTZEA ..... | 96        |
| 6.2. DATU PERTSONALEN BABESA.....                                                                                    | 96        |
| 6.3. JABETZA INTELEKTUALA IKASTETXEETAN.....                                                                         | 97        |
| 6.4.- IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA .....                                               | 97        |
| 6.4.1. Osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetan .....                                                                | 97        |
| 6.4.2. Osasun-arreta eskola-orduetan.....                                                                            | 97        |
| 6.4.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzea.....                                                                          | 98        |
| 6.4.4. Obrak .....                                                                                                   | 98        |
| 6.4.5. Tabakoa eta edari alkoholodunak .....                                                                         | 98        |
| 6.4.6. Eskola-laborategiak erabiltzea .....                                                                          | 99        |
| 6.5. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA .....                                                                 | 99        |
| 6.5.1.- Segurtasuneko laguntzailea .....                                                                             | 100       |
| 6.5.2.- Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan.....                                                           | 100       |
| 6.5.3.- Larrialdi-simulakroak.....                                                                                   | 100       |
| 6.5.4.- Botikin eramangarria .....                                                                                   | 100       |
| 6.5.5.- Lan-istripuak.....                                                                                           | 100       |



|                                                                  |     |
|------------------------------------------------------------------|-----|
| 6.5.6.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa ..... | 101 |
|------------------------------------------------------------------|-----|



## 1. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA ERALDATZEKO I. PLAN ESTRATEGIKOA (2025-2028)

Ebazpen honen xedea ikastetxe publikoen 2025-2026 ikasturterako antolaketa pedagogiko eta funtzionala orientatzea da. Ikasturtearen garapen ordenatua bermatzeko kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien inguruan egituratzen da edukia, [Hezkuntzaren Euskal Legean](#) eta indarrean dagoen arau-esparruan jasotako ekitate-, inklusio- eta hezkuntza-kalitatearen printzipioen arabera.

2025-2026 ikasturtean, [Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa \(2025-2028\)](#) ezartzen hasiko da, eta 2025eko ekainean aurkeztu zitzaion hezkuntza-komunitateari. Plan hori ibilbide-orri partekatatu bat da, sistema publikoa indartzeko etengabeko hobekuntzaren, erantzukidetasunaren eta ikuspegi sistemikoaren ikuspegi komun batetik. Planaren helburua politika publikoak, plangintza instituzionaleko prozesuak eta ikasgelako praktika pedagogikoak lerrokatzea eta kohesionatzea da.

Plana **hamar ardatz estrategikoren** inguruan egituratzen da, elkarri lotutako **lau dimentsiotan** multzokatuta:

- eragileen arteko erantzukidetasuna
- hezkuntza-bikaintasuna eta ikasleen arrakasta
- ekitatea eta gizarte-kohesioa
- etengabeko hobekuntza eta jasangarritasuna

Dimentsio horiek euskal hezkuntza-sistemaren erronka handiak islatzen dituzte, eta ekintza publikoa bideratzen dute kalitatezko hezkuntza publikoa, inklusiboa, berritzailea eta komunitatean errotoa bermatzeko.

Irudi honek egitura hori grafikoki laburbiltzen du:





Hamar ardatz estrategikoetako bakoitza **trakzio-ekintza** eta **neurri-multzo** baten bidez zehazten da:

- Eragin handiko konpromiso eraldatzaileak dira **trakzio-ekintzak**, zeinak aldaketa-prozesu esanguratsuak aktibatzen diseinatuak dauden.
- **Neurriek**, bestalde, dagoeneko hasita dauden jarduketaren jarraipena sendotzea edo hedatzea ziurtatzen dute.

Oro har, jarduketak horiek dira Plan Estrategikoaren gune operatiboa: Hezkuntza Sailaren politikak, ikastetxeen plangintza eta ikasgeletako lana lerrokatzeko erreferentzia gisa balio dute. Gainera, Planak funtsezko tresna izan behar du ikastetxe publikoek:

- Ikastetxeko **Hezkuntza Proiektua** zehaztu edo eguneratu dezaten,
- beren **Zuzendaritza Proiektua** epe ertainerako estrategia gisa egituratzeko,
- **Ikastetxearen Urteko Planaren** bidez urteko garapena zehazteko.

Ikuspegi horretatik, Plan Estrategikoak koherentzia eman nahi dio euskal eskola publiko osoari, testuinguruaren eta beharren aniztasuna ahaztu gabe. Ikastetxeen autonomiatik ezarri behar dira helburu partekatutakoak, hezkuntza-komunitate bakoitzaren errealitatera egokitzeko.

Esparru horretan, [Hezkuntza Eraitza Hobetzeko 2024-2028 Estrategia Integrala](#) da trakzio-ekintza horien kopuru esanguratsu bat aktibatzen eta koordinatzeko bide nagusia. Planaren ekintza espezifiko gisa agertzen ez den arren, estrategia horrek funtzio egituratzailea betetzen du: hezkuntza-sistemaren esku-hartzeak antolatzen ditu makro mailan (hezkuntza-politikak), meso mailan (ikastetxeak) eta mikro mailan (gelak). Ikuspegi sistemiko horretatik, helburu estrategikoak ikaskuntza, ongizatea eta bizikidetzak eta hezkuntza-ekitatea hobetzera bideratutako jarduerak zehatz bihurtzea ahalbidetzen du.

[↑ Aurkibidea](#)



## 2. HEZKUNTZA EMAITZAK HOBETZEKO 2024-2028 ESTRATEGIA INTEGRALA ETA 2025-2026 IKASTURTERAKO LAN-ILDOAK

2025-2026 ikasturterako lan-ildoen plangintza **Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko 2024-2028 Estrategia Integralaren** barruan dago. Estrategia hori Hezkuntza Sailak onartu zuen, euskal hezkuntza-sistema ikuspegi sistemikotik, inklusibotik eta etengabeko hobekuntzara bideratuta indartzeko ibilbide-orri pedagogiko gisa.

Haren garapenak zuzenean laguntzen du [Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa \(2025-2028\)](#) hainbat ardatz ezartzen, hala nola ebaluazio-kultura sustatzea (10. ardatza), eraldaketa pedagogikoa (4. ardatza), hezkuntza-ekitatea (6. ardatza), bizikidetza hobetzea (7. ardatza) eta irakasleen konpetentzia profesionalak indartzea (5. ardatza).

Estrategia **hiru esku-hartze mailatan** egituratzen da — makro, meso eta mikro —, hobekuntza-prozesuaren ikuspegi sistemikoa bermatzen dutenak. Ikuspegi horrek aukera ematen du erabaki eta ekintza bakoitzak —hezkuntza-politiken definiziotik ikasgelako eguneroko praktiketaraino— ikasleen ikaskuntzan, ongizatean eta garapenean zuzenean laguntzeko.

- **Makro** mailan, [17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia erkidegoko hezkuntzarena](#) (aurrerantzean Hezkuntza Legea) oinarritutako Hezkuntza Sailak bultzatutako arau-esparruak, erakunde-estrategiak eta egitura-programak zehazten dira. Maila honek lotura estua du **10. ardatzarekin** (*Ebaluazioaren kultura eta berrikuntzaren*), bai eta **6. ardatzean** jasotako ekitatearekin eta inklusioarekin ere.
- **Meso** maila. Oro har, ikastetxeek testuinguruaren arabera zabaltzen dituzte orientabide horiek, zuzendaritza-taldeek gidatuta eta berrikuntza-figurek (BeA) eta ongizatearen eta babesaren koordinatzaileek (OBK) lagunduta. Eremu honetan, **4. ardatzaren** (*Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua*), **5. ardatzaren** (*Irakasleak eraldaketa-prozesuaren ardatz gisa*) eta **7. ardatzaren** (*Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala*) ildoak finkatu dira, plangintza estrategikoaren, antolamenduaren hobekuntzaren eta tutoretza-ekintzaren bidez.
- **Mikro** mailan, ikasgelan, irakasle bakoitzak esparru horiek aplikatzen ditu metodologia aktiboen, prestakuntza-ebaluazioaren, ikaskuntzaren pertsonalizazioaren eta dimentsio emozionalari eman beharreko arreta kontzientearen bidez. Maila honek modu nabarian adierazten du planaren azken zentzua: ikasleak hezkuntza-ereduaren erdigunean kokatzea, funtsezko konpetentzien garapena eta ongizate integrala bermatuz.

[↑ Aurkibidea](#)

### 2.1. Ikuspegi sistemikoa: hiru zutabe eta hiru esku-hartze maila

**Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko 2024-2028 Estrategia Integrala** euskal hezkuntza-sistemaren jardueraildo nagusiak bideratzen dituzten **hiru zutabe estrategikotan** oinarritzen da, eta elkarri lotutako **hiru esku-hartze mailatan** egituratzen da —makro, meso eta mikro—, hobekuntza-ekintzek sistemaren eremu guztietan inpaktu eraginkorra, iraunkorra eta koherentea izango dutela bermatzeko.

#### Zutabe estrategikoak:

- **Ebaluazio-sistema integrala**, hobekuntza pedagogikorako, ekितaterako eta erabaki informatuak hartzeko tresna gisa ulertua.



- **Matematikarako, irakurtzeko eta zientziako konpetentziak hobetzea**, zentzuzko konpetentzia-ikaskuntzaren ardatz gisa.
- **Bizikidetza positiboa eta hezkidetzalea eraikitzea**, ikasle guztientzako ingurune seguruak, berdintasunezkoak, inklusiboak eta emozionalki osasungarriak sustatuko dituenak.

Zutabe horiek erabat lerrokatuta daude [Euskal Eskola Publikoaren I Plan Estrategikoaren](#) hainbat **ardatzekin**, bereziki honako ardatz hauekin: 4. ardatza (*Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua*), 6. ardatza (*Hezkuntza-ekitatea eta hezkuntza-inklusioa*), 7. ardatza (*Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala*) eta 10. ardatza (*Ebaluazioaren kultura eta berrikuntza*).

[↑ Aurkibidea](#)

## 2.2. Hiru zutabe estrategiko

### 2.2.1. Ebaluazio-sistema integrala

Hobekuntza-estrategiaren lehen oinarria **ebaluazio-sistema integrala** bultzatzea da, hezkuntza-sistemaren kalitatea, ekitatea eta eraginkortasuna hobetzeko funtsezko tresna gisa ulertuta. Jarduera-ildo hori Euskal Eskola Publikoaren **2025-2028 Plan Estrategikoaren<sup>1</sup> 10. ardatzarekin lotzen da**. Ardatz horrek ikaskuntzak hobetzera bideratutako ebaluazio-kultura bat garatzea proposatzen du, ebaluazioa prestakuntza eta laguntza-sistemaren maila guztietara lotuz.

#### a) Makro maila

Makro mailan, Hezkuntza Saila euskal hezkuntza-sistemaren ebaluazioarekin duen konpromisoa indartzen ari da. Horretarako, eskura dituen tresnak eguneratzen ari da, egitura espezializatuak indartzen eta emaitzen erabilera pedagogiko eta formatiboa sustatzen.

Ildo horretan, EEPE/PETEn aipatutako 10. ardatzean jasotzen den bezala, maila horretan, ebaluazioak aukera emango du hezkuntza-jarduerak ikastetxe guztietan duen benetako eragina ezagutzeko, eta Euskal Eskola Publiko osoan helburuak lortzeari buruzko informazioa emango du. Sare publikoko hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko eta balioa ematen jarraitu behar dena eta hobetu behar dena identifikatzeko balioko luke.

Esparru horretan, [ISEI-IVEIk](#) funtsezko zeregina betetzen jarraituko du ikasleen errendimendu akademikoari, ekitateari, bizikidetzari eta ongizateari buruzko datuak biltzeko eta aztertzeko, eta ebidentzia baliagarriak sortuko ditu erabakiak hartzeko eta hezkuntza-politikak diseinatzeko.

Era berean, **Ebaluazio Foroa** finkatuko da, 2023-2024 ikasturtean sortua, adituekiko elkarrietzeta profesionalerako gune gisa ebaluazio-prozesuak hobetzera eta eraldaketarako tresna gisa duen balioa indartzera bideratuta. Haren lan-ildoan artean, hauek nabarmentzen dira: testuinguru-aldagaiak eguneratzea, ikaskuntzan eragiten duten faktoreak zehatzago interpretatzeko; hezkuntza-programak ebaluatzeko eredu bat garatzea; eta ikastetxeei kanpoko eta barneko ebaluazioen emaitzak aztertzen eta erabiltzen laguntzeko estrategiak diseinatzea.

---

<sup>1</sup> Aurrerantzean EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA ERALDATZEKO I. PLAN ESTRATEGIKOA (2025-2028), EEPE/PETE bezala izendatuko da.





### Kanpoko ebaluazio diagnostikoak: hezkuntza hobetzeko tresna

Ebaluazio integraleko sistemaren barruan, **kanpoko ebaluazio diagnostikoek funtsezko zeregina dute hezkuntzaren kalitatea hobetzeko**. Helburu nagusia da ikasleen funtsezko konpetentzien eskuratzeko-maila aztertzea eta testuinguruari buruzko informazioa ematea, ikastetxeei eta Hezkuntza Sailari laguntzeko ebaluatutako konpetentzien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan indarguneak eta hobekuntza-arloak identifikatzen.

Ebaluazio horiek prestakuntza-izaera dute, eta hausnarketa pedagogikorako eta erabaki arrazoituak hartzeko tresna gisa eraten dira. Emaiztekin aukera ematen diete ikastetxeei eta hezkuntza-sistemari plangintza bideratzeko eta estrategiak datu objektiboetan oinarrituta doitzeko.

Ikaskuntzaren eta emaitzen hobekuntzan benetako eragina bermatzeko, hainbat **ekintza** ezartzen ari dira:

- **Ikastetxeei txosten zehatzak ematea**, emaitzak interpretatzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko erabaki arrazoituak hartzeko.
- Hezkuntza Sailaren **formazio-eskaintza ebaluazio diagnostikoetan antzemandako premiekin lerrokatzea**, irakasleen prestakuntzak ikastetxeetan eta hezkuntza-sistema osoan identifikatutako erronka zehatzei erantzun diezaien.
- **Familiak ebaluazio-prozesuan inplikatzeko**, ziurtatuz ebaluazio diagnostikoaren helburuak ulertzen dituztela eta seme-alaben ikaskuntzan nola lagundu dezaketen.
- **Euskal Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio Foroan lanean jarraitzea**. Foro horrek ezagutza aditua eta laguntza estrategikoa eskaintzen ditu ebaluazio-prozesuak hobetzeko.
- Egungo erronketako bat da **eredu konpetentzialago eta testuinguruan kokatuago baterantz aurrera egitea**, itemek testuinguru errealeko ikaskuntzak ebaluatuko dituzten eredu baterantz. Horretarako, beharrezkoa izango da **irakasleek konpetentzia-ereduaren diseinuan duten parte-hartzea handitzea**, ebaluazio diagnostikoaren eredu erabiliz eta probek ikasgelako errealitatea islatzen dutela bermatuz. Ikasleen konpetentzia-mailari buruzko informazioa emateaz gain, item hauek irakasleentzako erreferentzia didaktiko gisa balio nahi dute, irakaskuntzara transferi daitezkeen adibideak eta ereduak gaineratzen baitituzte.

Makro mailan, euskal hezkuntza-sistema nazioarteko erreferentziazko ebaluazio-esparruetan oinarritzen da, hala nola [PISAn](#), politika publikoen diseinua eta konpetentziak ebaluatzeko tresnen garapena bideratzeko. Esparru horiek irizpide tekniko sendoak ematen dituzte, eta gure estrategiak nazioarteko kalitate-estandarrekin lerrokatzea ahalbidetzen dute, testuinguruan kokatutako eredu propio bati uko egin gabe. PISaren hurrengo edizioa, 2028rako aurreikusia, mugarri garrantzitsua izango da euskal hezkuntza-sistemak 2024-2028 ziklo estrategikoan lortutako aurrerapenak kanpotik egiaztatzeko.



## Barne-ebaluazioa: eguneroko irakaskuntzan integratzea

Gainera, [Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa ebaluatzeko Aginduak](#), 2024ko urtarrilean argitaratuak, **ebaluazioaren konpetentzia-ikuspegia** indartzen du eta **pedagogia hobetzeko tresna** gisa finkatzen du. Araudiak ezartzen du ebaluazioa eguneroko irakaskuntzan integratu behar dela, irakaskuntza ikasle bakoitzaren beharren arabera erregulatzeko, egokitzeko eta pertsonalizatzeko aukera emanez.

Ebaluazioaren ikuskera berri hori ikastetxeetan kalitatez ezartzeko, Hezkuntza Saila hainbat **ekintza** garatzen ari da **makro mailan**:

- **Emaitzen azterketa sistematizatzea**, ikastetxeek barne-ebaluazioetatik ondorioak atera ditzaten, hezkuntza-sistemako beste adierazle batzuekin lerrotatuz eta ebaluazioa prozesu erabilgarria eta etengabeko hobekuntzarekin koherentea dela bermatuz.
- **Irakasleen kultura gogoetatsua sustatzea**: ebaluazioa aukera gisa ere ulertu behar da, irakasleek beren praktika eta ikasleen ikaskuntzan duten eragina azter dezaten. Irakasle-taldeei ebaluazioaren emaitzez hausnartzen, metodologiak eragina baloratzen eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzen lagunduko dieten ekimenak garatuko dira.
- **Ikasleen autoebaluazioa eta koebaluazioa bultzatzea**: estrategiak eta teknikak erabiltzea sustatuko da, ikasleek beren indarguneak eta hobekuntza-arloak identifikatu ahal izan ditzaten eta ikaskuntzan autonomia gara dezaten. Gainera, berdinaren arteko ebaluazioa sustatuko da, ebaluazio-irizpideen ulermena indartzeko, pentsamendu kritikoa sustatzeko, trebetasun sozioemozionalak garatzeko eta ikaskuntza-prozesuaren kontzientzia handiagoa sustatzeko estrategia gisa. Praktika horiek ikasleei beren prestakuntza-prozesuan parte-hartze aktiboagoa izaten ere laguntzen diete. Horretarako, ikasgelan benetan integratzen lagunduko duten ereduak eta tresnak emango dira.
- **Ebaluazioaren eta berrikuntza pedagogikoaren arteko lotura**: ikastetxeek ebaluazioa diagnostikorako tresna gisa ez ezik, etengabeko hobekuntzarako tresna gisa ere erabil dezaten sustatuko da, garapen metodologikoko arloak identifikatuta eta ikasleen beharrekin bat datozen berrikuntza pedagogikoko prozesuak bultzatuta.

Makro aurrerapen horien helburua da euskal hezkuntza-sistemak informazio zorrotza eta erabilgarria izatea bere hezkuntza-politikak bideratzeko eta ebaluazioa neurketa-mekanismo bat ez ezik, Euskadiko hezkuntza eraldatzeko eta hobetzeko tresna bat ere badela ziurtatzeko.

### b) Meso maila

Meso mailak **ikastetxeek ebaluazio-sistema integralaren** ezarpenean betetzen duten funtsezko zereginari lotzen zaio. Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoaren (EEPE/PETE) 10. ardatzean jasotzen den bezala, **ebaluazioa eskola-antolamendua eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetzera bideratu behar da**, planteamendu pedagogikoa, irakasleen prestakuntza, jarduera profesionala eta zuzendaritza-taldeen lana barne.

Maila horretan, **ebaluazio-prozesuek indarguneak eta ahuleziak identifikatzea** ahalbidetzen dute, bai eta **datu objektiboetan oinarritutako hobekuntza-proposamenak egitea** ere, sistemaren



funtzionamenduan eragin zuzena izanik eta hezkuntza-komunitate osoaren onurarako, batez ere ikasleentzat. **Datuak biltzea eta aztertzea** ez da berez helburu bat, **etengabeko hobekuntzarako tresna praktikoa** bat baizik, ikastetxearen eguneroko bizitzan integratu behar dena **erabaki pedagogikoak eta antolamendukoak hartzeko oinarri** gisa.

Era berean, garrantzitsua da **metodologia-aldaketak prestakuntza- eta partaidetza-ebaluazio modu berriekin lerrokatzea, familiekiko lotura indartuz** eta hezkuntza-prozesuan inplikazio aktiboa sustatuz.

Horretarako, **ikastetxeek funtsezko hiru mekanismo garatu eta finkatu** behar dituzte:

- **Emaitzak aztertzea eta interpretatzea:** ikastetxeek ikasleen ikaskuntzei buruzko informazio zehatza dute, barne- eta kanpo-ebaluazioen bidez jasotako datuen bidez. Hala ere, ebaluazioaren balioa datu horiek erabiltzeko moduaren arabera da. Horregatik, zuzendaritza-taldeei aholkuak emango zaizkie informazioa eraginkortasunez interpretatzeko, ondorio erabilgarriak ateratzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hobekuntza-helburuak identifikatzeko.
- **Ebaluazioa hezkuntza-hobekuntzan txertatzea:** datuak aztertzeaz gain, funtsezkoa da ikastetxeek ebaluazioa erabiltzea aldaketa pedagogiko errealek bultzatzeko. Ebaluazioak aukera ematen du detektatzeko zein estrategiak funtzionatzen duten eta zein egokitu behar diren. Prozesu horretan laguntzeko, emaitzak hobetzen laguntzen duten hainbat programa eskaintzen dira.
- **Ebaluaziorako laguntza eta prestakuntza:** Euskal Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio Foroaren ekimenaren barruan, ikastetxeei laguntzeko programa bat jarriko da abian, emaitzen interpretazioa eta erabilera pedagogikoa hobetzeko. Programa horrek zuzendaritza- eta irakasle-taldeentzako berariazko prestakuntza emango du, eta ebaluazioa irakaskuntzaren eta eskola-giroaren hobekuntzan txertatzen lagunduko du. Gainera, ikastetxeen artean lankidetzaren sareak sortzea sustatuko da, ebaluazioaren inguruko estrategiak, esperientziak eta ikaskuntzak partekatu ahal izateko.

**Zuzendaritza-taldeek** funtsezko zeregina dute prozesu horretan, prestakuntzaren eta konpetentzien ebaluazioa sustatzen baitute eta hezkuntza-hobekuntzarako baliagarriak direla ziurtatzen baitute. Horretarako, tresnak, prestakuntza eta laguntza izango dituzte, ebaluazioa praktikoa, eskuragarria eta ikastetxe bakoitzaren errealitatearekin bat datorrena izango dela ziurtatzeko.

Testuinguru horretan, **BeAren figurek** (Berrikuntzako arduradunak) eta ongizateko eta babeseko koordinatzaileek (**OBK**) ere funtsezko zeregina izango dute hobekuntza-ekintzak bultzatzean eta koordinatzean, bai eta ekintza horiek gauzatzeko beharrezkoa den prestakuntza identifikatzean ere.

### c) Mikro maila

Mikro mailak irakaskuntza-jardura eta ikasleek ikasgelan duten esperientzia zuzena ditu ardatz, eta ebaluazioa funtsezko tresna da ikaskuntza pertsonalizatzeko eta etengabeko hobekuntzarako.

**Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoaren (EEPE/PETE) 10. ardatzak** jasotzen duen bezala, hezkuntza-komunitate osoak (irakasleak, ikasleak eta familiak) parte hartu behar du maila



horretako ebaluazioan, eta **eskola-errendimenduaren jarraipenera** eta **ikasleen kompetentzien garapenera** bideratu behar da, bai eta **ikastetxearen funtzionamendu orokorraren eta irakaskuntzako lanbide-jardunaren baloraziora** ere. Ildo horretan, garrantzitsua da **emaitza garrantzitsuak** Eskola Kontseiluan **partekatzea eta aztertzea**, hobetzeko ikuspegi partekatua ahalbidetuz.

[2024ko Ebaluazio Aginduak](#) ebaluazio hezigarrian eta hezitzailean <sup>2</sup>batean oinarritutako ikuspegia ezartzen du. Ebaluazio horrek bermatu behar du ikasle bakoitzak atzerarikadura esanguratsua, ulergarria eta erabilgarria jasoko duela, modu autonomoan eta zentzuz aurrera egiteko.

Ildo horretan aurrera egiteko, funtsezko ekintza hauek lehenesten dira:

- **Ebaluazio hezitzailea eta ikaskuntzaren pertsonalizazioa.**

Ebaluazioa, irakatsi eta ikasteko prozesuaren funtsezko elementu gisa, askotariko tresnak eta prozedurak erabili behar ditu, hala nola errubrikak, autoebaluazioak eta koebaluazioak, ikasleek beren indarguneak eta hobetzeko arloak uler ditzaten. Ikasleen autonomia eta ikaskuntzaren autorregulazioa sustatu nahi dira, ebaluazioa kalifikazio-mekanismoa ez ezik, aurrerapen pertsonalerako eta akademikorako gida ere izan dadin ziurtatuz.

- **Laguntza eta tutoretza.**

Irakasle tutoreek funtsezko zeregina dute ebaluazio-emaitzak aztertzean eta ikaskuntza pertsonalizatzean. Lortutako datuetatik abiatuta, ikasleekiko banakako tutoretzak, familiekiko bilerak eta ikaskuntza-prozesuan errefortzua edo egokitzapena behar duten ikasleentzako ekintza espezifikoaren plangintza indartuko dira.

- **Kompetentziak ebaluatzeak EKHA<sup>3</sup> aplikazioa ezartzea:**

EAEko hezkuntza-sistemaren eraldaketa pedagogiko eta digitalaren barruan, Hezkuntza Saila **kompetentzien araberako ebaluaziorako aplikazio digital** berri bat hedatzen ari da pixkanaka, EKHA izenekoa. Tresna horri esker, **irakasleek ikasleen ikaskuntza erregistratu, aztertu eta etengabeko jarraipena egin dezakete, ebaluazio globala, prestakuntzako eta kompetentzietan oinarritutakoa** ziurtatuz.

Hauek dira tresna horren ezaugarri nagusiak:

- ✓ Ikaskuntza-prozesua erregulatzea: irakasleei eta ikasleei aukera ematen die aurrerapena monitorizatzeko, zailtasunak hautemateko eta hobekuntza-neurri egokituak hartzeko.
- ✓ **Ebaluazio integrala eta pertsonalizatua:** hainbat tresna ditu (errubrikak, ebidentziak, erregistroak), askotariko eta testuinguruaren arabera baloratzeko.

<sup>2</sup> **Ebaluazio hezigarria** (formatiboa) da irakatsi eta ikasteko prozesuan sartzen dena, hezkuntzako esku-hartzea doitzeko eta ikasleen ikaskuntza hobetzeko informazioa biltzeko. **Ebaluazio hezitzailea** (eraldatzailea, formadorea), bestalde, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuak ulertzeko duten zeregin aktiboa nabarmentzen du, autoerregulazioa eta etengabeko hobekuntza sustatuz.

<sup>3</sup> Hezkuntza Sailak prozedura bat irekiko du ikastetxeek aplikazio hori erabiltzen hasteko interesa adieraz dezaten. Interes-adierazpen horretatik abiatuta, laguntza bikoitza antolatuko da: batetik, tresna inplementatzeko laguntza tekniko; bestetik, irakasleentzako prestakuntza, ebaluazio hezigarri eta hezitzaileari buruzkoa. Prestakuntza hori Berritzegune Nagusiak kudeatuko du, eta 2025-2026 ikasturteko prestakuntza-plangintzaren arabera zehaztuko da.



- ✓ **Curriculumeko ebaluazio-irizpideekiko eta konpetentziekiko lotura:** konpetentzia espezifikoen eta funtsezko konpetentzien eskuratzeko-maila aztertzea errazten du derrigorrezko eskolaldian zehar.
- ✓ **Irakaskuntza-lana erraztea:** talde-lana koordinatzeko, oharrak erregistratzeko eta esku hartzeko estrategia pertsonalizatuak diseinatzeko espazio bat eskaintzen du.
- ✓ **Gardentasuna eta komunikazioa:** familiekiko eta ikasleekiko komunikazioa hobetzen du, ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa partekatzeko aukera ematen du, eta ebaluazioa prozesu argia eta ulergarria dela ziurtatzen du.

**BeA figurek**, ikastetxeetako berrikuntza pedagogikoaren arduradun diren aldetik, funtsezko zeregina izango dute **tresna horren erabilera ezagutzean, ezartzean eta sendotzean, irakasleei hura erabiltzen lagunduz** eta ebaluazioak ikaskuntzaren hobekuntzan benetako eragina izan dezan estrategiak sustatuz.

Azken batean, neurri horiek guztiek bermatzen dute ebaluazioa funtsezko tresna izatea irakaskuntza hobetzeko, estrategiak ikasleen beharretara egokitzeko eta hezkuntza-desberdintasunak murrizteko.

Era berean, BAT taldeak, ikastetxeetako bizikidetzaren arduradun diren aldetik, estrategiak sustatzeaz arduratuko dira, ebaluazioak eragina izan dezan bizikidetzaren positiboaren eta hezkidetzarearen eraikuntzan.

[↑ Aurkibidea](#)

### 2.2.2. Matematikarako, irakurtzeko eta zientziako konpetentziak hobetzea

Hobekuntza Estrategiaren bigarren zutabe estrategikoa ikasleen konpetentzien ikaskuntza indartzera bideratuta dago, irakurketan, matematikan eta zientzietan arreta berezia jarritz. Lan-ildo horrek lotura zuzena du [Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren](#) (*Irakaskuntza eta Ikaskuntza Prozesua*) **4. ardatzarekin**. Ardatz horrek lehentasunztat hartzen du eredu didaktiko konpetentea eta esanguratsua finkatzea. Gainera, **6. ardatzarekin** (*Ekitatea eta hezkuntza-inklusioa*) eta **5. ardatzarekin** (*Irakasleak eraldaketaren ardatz*) lotzen da, irakasleak aldaketa metodologikoaren erdigunean jartzen baititu.

Esparru horretan, [konpetentziak indartzeko programen](#) eta eraldaketa metodologikoaren bidez garatutako ekintzek planaren konpromiso estrategikoetako batzuk gauzatzen laguntzen dute, hala nola:

- Funtsezko konpetentzien hobekuntza, ekitatearen eta kalitatearen adierazle gisa.
- Eremuen araberako lana sustatzea, ikuspegi integratzaile eta pertsonalizatu gisa.
- Metodologia aktiboak eta testuinguruan kokatutakoak sustatzea arlo guztietan.
- Irakasleen lankidetzaren sendotzea koherentziaren eta eraginkortasunaren bermatzaile gisa irakaskuntzan.



Matematika, irakurketa eta zientzietako funtsezko konpetentzien emaitzak hobetzea da euskal hezkuntza-sistemaren lehentasunetako bat. Helburu hori lortzeko, Hezkuntza Sailak bi ildo estrategiko nagusi garatzen ditu:

- **Funtsezko konpetentziak berariaz indartzea**, egitura komun batekin diseinatutako hiru indartze-programa hauen bidez:
  - [Matematikarako konpetentzia indartzeko programa](#)
  - [Irakurtzeko konpetentzia indartzeko programa](#)
  - Zientziarako konpetentzia indartzeko programa<sup>4</sup>
- **Eraldaketa metodologikoa**, DBHn eremuen arabera lanaren ezarpena eta Batxilergoan egokitzapen metodologikoa barne hartzen dituen, unibertsitatera sartzeko proben (aurrerantzean, UsaP) ikuspegi konpetentzial berriaren aurrean.

Estrategia horiek hiru esku-hartze mailaren bidez ezartzen dira:

#### a) Makro maila

Hezkuntza Sailak metodologia komun batekin egituratu ditu [hiru indartze-programak](#), esku-hartzearen koherentzia bermatzeko. Programa bakoitzak zazpi jardura ditu, eta lehenengo laurak makro mailan hedatzen dira:

- **Programa gainbegiratzeaz** eta ebaluatzeaz arduratuko den **batzorde tekniko bat sortzea** konpetentzia bakoitzeko espezialistez osatua.
- **Aholkulari espezializatuen taldeak eratzea**, ikastetxeen beharretara egokitutako prestakuntza, material eta estrategiak diseinatzeko.
- **Baliabide eta material didaktikoak lantzea**, irakasleentzako gida metodologikoak eta ikasleentzako materialak barne.
- **Irakasleentzako berariazko prestakuntza**, ikuspegi praktiko batekin, ikasgelan estrategiak integratzea errazteko.

Gainera, **eraldaketa metodologikoaren esparruan**, funtsezko bi estrategia bultzatzen jarraituko da:

- **DBHko eremuen arabera lana**: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan pixkanaka ezartzea, diziplinarteko ikaskuntza sustatzeko, ikasleek konpetentziak eskuratu ditzaten laguntzeko eta irakasleen arteko koordinazioa indartzeko.

---

<sup>4</sup> Programa laster argitaratuko da hurrengo helbidean: <https://www.euskadi.eus/indartze-programak/web01-a2hberri/eu/>



Jarduera-ildo horrekin bat etorri, eta ebazpen honen osagarri gisa, [Eremuen arabera lana ezartzeko markoa - Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetako derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren mailatan](#)- argitaratzen da.

Dokumentu horrek ereduaren antolaketa-, curriculum- eta pedagogia-oinarriak ezartzen ditu, eta funtsezko alderdiak arautzen ditu, hala nola eremuaren arabera lanaren definizioa, justifikazioa eta helburuak; ikastetxeentzako eta irakasleentzako antolamendu-neurriak; printzipio metodologikoak eta eremuaren curriculum-konfigurazioa; tutoretzaren, hizkuntzen eta ikasleen ebaluazioaren tratamendua; eta kalifikazio-irizpideak eta mailaz igotzekoak.

Gainera, laguntza instituzionalerako mekanismoak jasotzen ditu —[Eremuak Lantzen programaren](#) bidez, [Eremuak Lantzen Praktika Komunitate Profesionala](#) (aurrerantzean, ELPKP) eta [materialen diseinu kolaboratiboa eta materialen hobekuntza](#) barne hartzen dituen—, eta hurrengo ikasturteetan eredu jarraitzeko, ebaluatzeko eta instituzionalizatzeko sistemak ezartzen ditu.

- **Batxilergoko metodologia-egokitzapena:** USaParen konpetentzia-ikuspegi berriaren aurrean, Batxilergoko modalitate guztietarako komunak diren jakintzagaien metodologiak pixkanaka aldatzea sustatuko da.

#### b) Meso maila:

Meso mailan, ikastetxe bakoitzak bere emaitzak aztertu behar ditu barne- eta kanpo-ebaluazioetan, irakurketa, matematika eta zientziak hobetzeko estrategia espezifikoak diseinatzeko. Horretarako, funtsezko hiru ekintza bultzatzen dira:

1. **Datuetan oinarritutako analisia eta erabakiak hartzea:** ikastetxeek barneko eta kanpoko ebaluazioaren emaitzen azterketa zehatza egin behar dute, hobekuntza-arloak identifikatzeko eta konpetentzia bakoitzerako estrategia espezifikoak diseinatzeko.
2. **Curriculumaren arlo guztietan irakurtzeko praktika sistematizatzea:** ikastetxe guztiek bermatu behar dute ikasleek egunero irakurtzen dutela eta, gainera, arlo, jakintzagai edo eremu guztietan irakurtzen dutela, eta irakurtzeko konpetentzia hobetzeko strategiak aplikatu behar dituzte.
3. **Errefortzu-programak ikastetxeen hobekuntza-ekintzetan integratzea**

Testuinguru horretan, ikastetxe askotan garatzen ari ziren errefortzu-programak eta -proiektuak berrikusten eta eguneratzen ari dira 2024-2028 Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integralaren esparruan, haien lehentasun nagusiekin lerrokatzeko: oinarritzako konpetentziak indartzea, praktika pedagogikoak eta antolamendukoak hobetzea, eta hezkuntza-desberdintasunak murriztea.

Birorientazio horrek ez du esan nahi hutsetik abiatu behar denik, baizik eta **dagoen ekimen bakoitzaren balio eraldatzailea indartu behar dela**, ikasleen ikaskuntzetan duen eragina indartuz eta ikastetxeko beste hobekuntza-prozesu batzuekin artikulatuz. Estrategia komun horren bidez, jarduera **integratuagoa, eraginkorragoa eta koherenteagoa** sustatzen da, ebidentzietan oinarritua eta ikastetxeen eta administrazioaren arteko konpromiso partekatuak eutsia.





Jarraian, **hezkuntza indartzeko programa eta proiektu nagusiak** deskribatzen dira, bai eta Estrategia Integralarekin lerrokatzeko **egindako aldaketak** ere, haien espezifikotasuna errespetatuz eta ikastetxeen askotariko errealitateetara egokituz. **Horiek guztiak behar bezala integratu beharko dira ikastetxeek planifikatutako hobekuntza-ekintzetan, eta Urteko Planean (IUP) jaso beharko dira.**

⇒ [\*\*Eraldatzen\*\*](#) programa-kontratua (konplexutasun handiko ikastetxeetan).

Programa-kontratu hau hezkuntza-konplexutasun handiko ikastetxeei zuzenduta dago, eta **ikasle guztien hezkuntza-arrakasta** sustatzea du helburu, bereziki zaurgarritasun egoeran daudenena, ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin erantzunkidetasunean **egindako hiru urterako hobekuntza-plan** bat diseinatuz eta inplementatuz.

Programa Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko Estrategiaren aurretik hasi bazen ere, gaur egun bere lehentasunetara egokitzen eta lerrokatzen ari da, bereziki **irakurtzeko, matematikarako eta zientziarako konpetentziak** garatzeari, ikasgelako praktikak hobetzeari eta lidergo pedagogikoa indartzeari dagokienez.

Hobekuntza-plana **hiru jarduera-eremuren** inguruan egituratzen da: zaurgarritasun-egoeran dauden ikasleak, ikastetxearen kultura profesionala eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak. Jarduerak ikastetxeek berek diseinatutako **palanka-estrategietan** zehazten dira, haien diagnostikoan oinarrituta, eta kultura profesionalean eta ikasgelako dinamiketan eraldaketa iraunkorrak sortzera bideratuta.

Eraldaketa hori indartzeko, programa **Eraldatzen Sarearen** bidez egituratzen da, eta sare horrek ikastetxeen arteko lankidetzak sustatzen du. Ikasturte honetan, sarea gaikako **azpisareetan** antolatzen hasi da. Azpisare horietan antzeko errealitateak dituzten eta **hobekuntza-palanka komun** bati heltzen dioten ikastetxeek parte hartzen dute. Gaur egun aktibo dauden azpisareak hauek dira:

- ✓ Irakurketa-estrategiak Haur eta Lehen Hezkuntzan
- ✓ Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia gelaratzen
- ✓ Irakurzaletasuna Lehen Hezkuntzan
- ✓ Ulermen estrategiak DBHn
- ✓ Matematika manipulatioak
- ✓ Bizikidetzak positiboa eraikitzen

Azpisare horiek hausnarketa, truke eta baterako sorkuntza profesionalerako espazioak dira, baliabide partekatuak garatzea eta hobekuntza-prozesu errealean laguntzea ahalbidetzen dutenak. Hala, Eraldatzen programa-kontratua **tresna estrategikoa da ekitatearen, inklusioaren eta hezkuntza-hobekuntzaren zerbitzura**, konplexutasun handiko testuinguruetan.

⇒ [\*\*Hezkuntza Berriaz Indartzeko Proiektua\*\*](#) – PREE-HBSP

Proiektu honetan parte hartzen duten ikastetxeetan, **hezkuntza indartzeko metodologiak egokituko dira, eskura dauden baliabideak hobekuntza-estrategian ezarritako lehentasunekin lerrokatzeko**. Berriazko Hezkuntza Indartzeko Proiektua (HBSP) estrategia hori hedatu baino lehenagokoa bada ere, ematen dituen giza baliabideak eta antolaketa-





baliabideak [irakurtzeko, matematikarako eta zientziarako konpetentziak](#) indartzera bideratu behar dira nagusiki, bai eta [eremuen arabera lana](#) bultzatzera ere, batez ere **koirakaskuntza** modalitatean.

Premia handienak dituzten ikasleei arreta puntuala ematera mugatu orde, **baliabide horiek ikastetxearen funtzionamendu orokorrean txertatu** behar dira, irakaskuntza-praktikak hobetzen eta ikasgela barruko laguntzak dibertsifikatzen lagunduz. HBSPk aukera errealak eskaintzen ditu irakaskuntza-eredu inklusiboagoetarantz eta elkarlanerantz aurrera egiteko, irakasleen talde-lana indartuz eta talde-gela osoan esku-hartze eraginkorragoa bultzatuz.

⇒ [BIDELAGUNA programa](#)

Bidelaguna programaren helburua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleen eskola-arrakastaren indizeak hobetzea, eskola-orduetatik kanpo antolatutako laguntzen bidez. Gizarte-desabantailako testuinguruetan eskola-zailtasunak edo -atzerapena duten ikasleei zuzentzen zaie lehentasunez, baina errendimendu akademiko ona edo beste maila batekoa duten ikasleek parte hartzea aurreikusten da, elkarrekin heterogeneoaren bidez ikaskuntza aberasteko.

2025-2026 ikasturterako, programa esplizituki lerrokatzen da 2024-2028 Hezkuntza Emaizak Hobetzeko Estrategia Integralarekin, bereziki [irakurtzeko](#) eta [matematikarako](#) konpetentziak indartzeko programekin. Horretarako, Bidelaguna proiektuek **astean gutxienez ordubeteko lan espezifikoak izan behar dute bi konpetentzia horietako bakoitzean.**

Hona hemen **helburu** nagusiak:

- Ikasleei ingurune eta laguntza egokiak ematea, eskola-atzeratasunari aurre egiteko edo horri aurrea hartzeko.
- Oinarrizko konpetentziak indartzea, batez ere irakurmena eta matematikarako gaitasuna, bai eta ikasteko eta lana antolatzeko ohiturak hartzea ere.
- Ikasleen ikasteko gaitasunaren pertzepzio positiboa bultzatzea.

Programa garatzeko, **koordinazio estua behar da irakasleen, begiraleen, zuzendaritza-taldearen eta familien artean.** Koordinatzailea programaren jarraipenaren arduraduna izango da, ikastetxeko konpetentziak indartzeko beste programa batzuekiko koherentzia bermatuz eta inplikaturako **eragile guztien arteko lankidetzak** sustatuz.

Hezkuntza Sailak **orientabide metodologikoak eskainiko dizkie ikastetxeei**, batez ere honako arlo hauetan:

- ✓ **Irakurtzeko konpetentzia**, testuak ulertzea, estrategia kognitiboak garatzea (inferentzia, iragarpena, sintesia, etab.) eta argudiatutako eztabaida erabiltzea interpretazio kritikoa sustatzeko.
- ✓ **Matematikarako konpetentzia**, problemak arrazoitzearen, argudiatzearen eta baliozkotzearen ikuspegitik ebaztean oinarritua, ikaskuntza kooperatiboa eta hausnarketa kolektiboa sustatuz.



Programa hau euskal hezkuntza-sistemaren laguntza-neurri unibertsalen esparru orokorraren barruan kokatzen da, kalitatezko hezkuntza ekitatiboa eta inklusiboa bermatzeko estrategiaren zati gisa.

⇒ [Indartuz neurria](#): eskolaz kanpoko errefortzua irakurketan eta matematiketan.

**Indartuz neurria** 2024-2025 ikasturtean ezarri zen lehen aldiz, eta eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuko jardura bat da, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendua, baldin eta **irakurtzeko edo matematikarako konpetentzietan** laguntza behar badute. Hezkuntza Sailak bultzatutako [Irakurtzeko konpetentzia](#) eta [Matematikarako Konpetentzia](#) Indartzeko Programen, eta funtsezko ikaskuntzak sendotzea, errendimendu-arrakalak murriztea eta hezkuntza-laguntza pertsonalizatzea du helburu.

Parte hartu duten ikastetxeen hautaketa, besteak beste, **etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzetan** oinarritu da, eta arreta berezia jarri zaio irakurriaren ulermenean (euskaraz eta/edo gaztelaniaz) eta matematikarako konpetentzietan errendimendu txikia duten ikasleen ehunekoari.

2025-2026 ikasturtean, neurriak jarraipena izango du. Gaur egun **indarrean dauden jarraibideak**, 2024-2025 ikasturteari dagozkionak (ikusi [dokumentua](#)), eguneratzeko oinarri gisa erabiliko dira, lehen edizioaren ebaluazio-prozesua amaitu ondoren. Etorkizuneko erregulazioak ebaluazio horren ondoriozko ikaskuntzak barneratuko ditu, **neurriaren eraginkortasuna eta ikastetxeen hobekuntza-ekintzetan duten integrazioa indartzeko**.

⇒ [Hedatze proiektua](#): pixkanaka egokitzea eta He-Indartuz neurria txertatzea

**Hedatze proiektuak**, [2024ko maiatzaren 14ko Ebazpenaren](#) bidez arautuak, aurrera jarraitzen du 2025-2026 ikasturtean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoen **barne-antolamendua berritzeko proiektu gisa**. Hezkuntza-kalitatea hobetzea du helburu, eskola-denborak berrantolatuz, prestakuntza-eskaintza zabalduz eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboaren bidez.

Fase berri honetan, eta Hezkuntza Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integralaren esparruan, parte hartu duten ikastetxeek **hiru garapen-modalitate** aukeratu ahal izan dituzte. **Bigarren edo hirugarren aukera aukeratu dutenetan**, He-Indartuz neurria ezarriko da, eskola-orduetatik kanpoko hezkuntza-errefortzuan oinarritua, ikasleen irakurtzeko eta matematikarako konpetentziak hobetzeko.

**He-Indartuz** [Indartuz](#) eredua **Bigarren Hezkuntzako testuingurura egokitzea** da, eta Hedatze proiektua hobetzeko helburu estrategikoekin bat egiteko prozesuaren parte da. Hori inplementatzeko, **plangintza didaktiko espezifikoa, inplikaturako irakasleen arteko koordinazioa, ikasleen jarraipen sistematikoa eta formazioa-ekintzetan parte hartzea** behar dira.

Hobekuntza-ekintza horiek behar bezala ezartzeko, ikastetxeek plangintza estrategikoa egin behar dute, irakasleek konpromisoa hartu behar dute, eta ebaluazioa, metodologiak eta baliabideak modu eraginkorrean antolatu behar dira. Prozesu horretan, **BeA figurek funtsezko zeregina betetzen dute**, bere eginkizunen artean **ikastetxearen barne-prestakuntza dinamizatzea** baitago, lehenetasun estrategikoei lotuta. Gainera, irakasle-taldeei laguntzen diete **beharrak identifikatzen**,



**metodologia egokitzen** eta **baliabide didaktiko berritzaileak erabiltzen**. Horrela, hobekuntza-ekintzek ikasleen ikaskuntzan benetako eragina izan dezaten eta ikastetxeko eguneroko praktikan integra daitezen laguntzen dute.

### c) Mikro maila

Mikro mailan, irakasleek aldaketa metodologiko zehatzak sartu behar dituzte eguneroko jardunean, funtsezko konpetentzien irakaskuntza eraginkorra bermatzeko. **Ekintza** hauek lehenetsiko dira:

- **Irakurketaren sistematizazioa arlo, jakintzagai edo eremu guztietan:** irakasle guztiek ziurtatu behar dute ikasleek egunero irakurtzen dutela, eta ikasgai bakoitzean irakurmena hobetzeko estrategiak garatu behar dituzte.
- **Matematika eta zientzietako metodologia aktiboak:** problemak ebaztean, esperimendazioan eta metodo zientifikoa oinarritutako ikaskuntza sustatuko da, eta ikasleek testuinguru errealean kontzeptuak aplikatzen ikasiko dutela ziurtatu.
- **Prestakuntza-ebaluazioa eta ikaskuntzaren pertsonalizazioa:** errubrikak, autoebaluazioak eta koebaluazioak erabiliko dira, ikasleak hiru konpetentzietan euren ikaskuntza-prozesuaz jabetu daitezen.
- **Konpetentzien ebaluazioaren aplikazioa erabiltzea:** ikastetxeetan pixkanaka ezarriko da, ikaskuntzaren jarraitutasuna errazteko eta irakaskuntza pertsonalizatzeko.

[↑ Aurkibidea](#)

### 2.2.3. Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate emozionala

Hobekuntza-estrategiaren hirugarren zutabea Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren **7. ardatzari** dagokio zuzenean. Ardatz horren lehentasunezko helburua da **bizikidetza positiboa, hezkidetza eta ikasleen ongizate sozioemozionala sustatzea**, ikuspegi komunitario, leheneratzaile eta inklusibo batetik. Eremu horretan hedatzen diren neurriek — BAT taldeak indartzea, tutoretzako programa orokortzea eta ikasgelako hezkuntza emozionala sistematikoki lantzea — Planaren trakzio-ekintzak eta neurriak betetzen laguntzen dute. Ekintza eta neurri horiek bizikidetzaren erakunde-egitura indartzean oinarritzen dira, eta elkar zaintzeko ikasleen parte-hartze aktiborako eta kaltea konpontzeko kultura sustatzean.

Euskal hezkuntza-sistemak **bizikidetza-eredu bat finkatzeko** erronkari egin behar dio aurre, jokabide desegokien aurreko erantzuna arautzeaz gain, prebentzioa, hezkuntza sozioemozionala eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa lehenetsiko dituen, batez ere ikasleena euren.

### a) Makro maila

Makro mailan, Hezkuntza Saila eskolako bizikidetzaren eraldaketaren buru da, *lau lan-ildori* jarraituta:

- **BAT taldeak** elkarbizitzarako erreferentziazko egitura gisa **indartzea**, prestakuntza eta baliabide egokiak emanda.
- **Berrezarpen-ikuspegi hezitzailea hartzea**, kontziliazioa eta kaltearen erreparazioa bultzatuko dituen, zehapen-neurrien alternatiba gisa, ikasleen parte-hartze aktiboa sustatuz.



- **Bizikidetza inklusiboa sustatzea**, kultura-, hizkuntza- eta gizarte-aniztasuna errespetuaren eta elkarren aberastasunaren ikuspegitik jorratuta.
- Bizikidetza positiboa, hezkidetza eta curriculum sozioemozionalaren garapena sustatuko duten **proiektu integralak bultzatzea** sistemaren maila guztietan.

### b) Meso maila

Ikastetxeetan, elkarbizitza **estrategia transbertsal eta integral** gisa ulertu behar da, eskola-bizitza espazio guztietan (ikasgela, jolastokia, jantokia edo jarduera osagarriak) bustiko duena. Horretarako, honako hau proposatzen da:

- **BAT taldeak indartzea**, gatazka-kudeatzaile hutsak izan beharrean ikastetxean bizikidetzaren kultura positiboa eta hezkidetzalea sustatzen dutela ziurtatuta.
- **Bizikidetza positiboko, hezkidetzako eta curriculum sozioemozionalaren garapeneko programak** ezartzea.
- **Tutoretzako programa** hezkuntza-maila guztietan ezartzea bizikidetza lantzeko, espazio seguruak garatzea ikasleek beren kezak adierazteko eta autoestimua indartzeko eta hezkidetza eta hezkuntza sozioemozionalaren garapena ikuspegi praktikoarekin lantzea ikasleek gatazkak kudeatzeko eta ongizate pertsonalerako benetako trebetasunak eskuratzen dituztela ziurtatuta.
- Ikastetxean **edozein motatako indarkeria baztertzeko beharrezko neurriak ezartzea**, indarkeria hori garaiz detektatzeko tresnak sistematizatuta eta esku-hartze egoki eta eraginkorrak planifikatuta.

BAT taldeek funtsezko zeregina izango dute estrategia horiek inplementatzeko, eta hezkuntza-komunitateko kide guztiei lagunduko diete inplementazio horretan.

### c) Mikro maila

Ikasgelan, elkarbizitza eguneroko elkarrekintzetan eta konpetentzia sozioemozionalak garatzen dituzten praktika pedagogikoetan eraikitzen da. Honako estrategia hauek lehenesten dira:

- **Datuen analisia eta erabakiak hartzea**: ikastetxeek ["bizilagun" autodiagnostikorako tresnan](#) lortutako datuen azterketa zehatza egin behar dute, hobetzeko arloak identifikatzeko eta bizikidetza positiboa eta hezkidetzalea eraikitzeko estrategia espezifikoak diseinatzeko.
- Bizikidetza eta hezkidetza lehentasunezko ardatzak dira ikasleen ikaskuntza ahalbidetuko duen **eskola-giroa** sortzeko.
- **Ikasleek ikasgelako bizikidetzaren kudeaketan parte-hartze aktiboa** izan dezaten sustatzea, prebentzioaren ikuspegitik zein gatazkaren kudeaketan.
- **Ikasle bakoitzari dagokionez, ikasgelako giroa etengabe ebaluatzea**, Bizikasi ekimenaren esparruan eskaintzen diren prebentzio-tresnak erabilia.
- **Lan sistematikoa asteroko tutoretzetan**, gelako taldearekin.
- **Banakako tutoretzak** sistematizatzea.
- **Komunikazio-kanal** askotarikoak eta seguruak ezartzea ikasleentzat.



- Bizikidetza-egoeren **kudeaketa malgua eta arina**, ikasleen inplikazioa eta parte-hartzea sustatuz.
- Parekoen arteko laguntza-sistemak ezartzea (PALS)<sup>5</sup>.
- **Estrategia leheneratzaileak erabiltzea**, ikasleek beren ekintzen eragina uler dezaten eta eragindako kaltea konpontzeko konpromisoa har dezaten.
- **Gela bakoitzean adostutako bizikidetza-kodeak ezartzea**, eta arauak taldean ulertzeko eta partekatze modukoak direla ziurtatzea.
- Ingurune digitala erabiltzea bizikidetza positiboa sustatzeko.
- **Herritartasun digitaleko proiektuak** garatzea, ikasleek sare sozialen eta teknologiaren erabilera arduratsuaren garrantzia uler dezaten.
- Ingurune digitaletan **ziberjazarpena eta gatazkak antzemateko teknikak aplikatzea**, halakoetan esku-hartze goiztiarra errazteko.

[↑ Aurkibidea](#)

### 2.3. Irakasleen garapen profesionala transformazio-palanka gisa

Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren 5. ardatzak irakasleak hezkuntza-eraldaketaren ardatz gisa kokatzen ditu. Egungo errealitateak ikasgelan rol aktiboa duten irakasleak eskatzen ditu, ikasleei ikaskuntzan eta garapen integralean gidatzeko eta laguntzeko gai direnak, metodologia berritzaileak, ongizate emozionala eta bizikidetza positiboa bultzatuz. Horretarako, etengabeko prestakuntza funtsezkoa da: ez bakarrik eredu pedagogiko inklusibo eta eraginkorra ezartzeko, baizik eta motibazio profesionalari eusteko, konpromisoa indartzeko eta irakaskuntza-funtzioen jardun kualifikatua bermatzeko ere.

Hezkuntza-eraldaketak hobetzeko, benetako aldaketak egin behar dira ikastetxeetako praktikan. Eta eraldaketa hori **formazio profesional zorrotza, testuinguruan kokatua eta hobekuntza-helburuei estu lotua bultzatzen denean** bakarrik gerta daiteke. 2024-2028 Estrategia Integralarekin bat etorritik, Hezkuntza Sailak **tresna estrategikotzat** jotzen du irakasleen prestakuntza; **diagnostikoaren, plangintzaren eta etengabeko hobekuntzaren zerbitzura** egon behar dena.

Prestakuntza ez da ulertu behar irizpiderik gabe izena emateko formazio-ekintzen katalogo gisa, baizik eta **nahita eta lehenasunez ikasteko prozesu gisa: ikastetxe bakoitzak erabaki behar du zer ikasi behar duen hobetzeko**, eta ez da sakabanatu behar bere helburu estrategikoekin loturarik ez duten ekintzetan. Horrela, inplementatu nahi den hobekuntza bakoitzarekin — dela metodologikoa, dela antolamendukoa, dela ebaluaziozkoa — batera **prestakuntza-prozesu bat egin behar da, hasiera, garapena eta itxiera izango dituen**, eta klaustro osora praktika orokortuko duena. Prestakuntza horren ondorioz, eskuratutako praktikak klaustro osora transferitu eta orokortu behar dira, eta pixkanaka ikastetxeko dinamika pedagogikoan integratu.

<sup>5</sup>Gehiago jakiteko: <https://view.genially.com/6675420ec399c30013a0e459/interactive-image-4-irizpidea-bizikidetza-positiboa>



## BeA figuraren rola garapen profesionalean

Testuinguru horretan, BeA figurak (ikastetxeko hezkuntza berriztatzeko arduraduna) funtsezko zeregina du. [Ikastetxe publikoetako hezkuntza berrikuntzeko jarduera-esparruak: BeA figurak \(2025-2028\)](#) jasotzen duen bezala, berari dagokio **formazio plana egiten eta dinamizatzen gidatzea, ikastetxeko hobekuntza-ekintzekin lerrokatzea eta ikasgelan duen eragina bermatzea. Prestakuntza, berrikuntza eta ebaluazioaren arteko lotura** da, eta, horretarako, Berritzegune Nagusiaren eta esleitutako aholkularitza-sarearen laguntza teknikoa izango du.

## Hezkuntza Sailaren prestakuntza-eskaintza instituzionala

2025-2026 ikasturtean, Hezkuntza Sailak, *Berritzegune Nagusiaren* bitartez, prestakuntza-proposamen egituratu eta sistematizatu bat eskainiko du, Hobekuntza Estrategiaren hiru zutabe estrategikoen inguruan egituratua:

- **Ebaluazio integrala**, hobekuntza pedagogikorako, ekitaterako eta erabaki informatuak hartzeko tresna gisa.
- **Matematikarako, irakurtzeko eta zientziarako konpetentziak hobetzea**, berariazko programen eta metodologia aktiboen bidez.
- **Bizikidetza positiboa eta hezkidetza**, emozionalki seguruak, parte-hartzaileak eta inklusiboak diren inguruneak bultzatuz.

Eskaintza horrek **ikastetxeko funtsezko figurei** (zuzendaritza-taldea, BeA, OBK) zuzendutako prestakuntza, **klaustroentzako prestakuntza**, ikastetxeen arteko **praktika-komunitateak** eta askotariko testuinguruetara egokitutako **programa espezifikokoak** barne hartuko ditu. Berritzegune Nagusiak diseinatu eta koordinatuko du, batzorde teknikoen laguntzarekin.

Eskaintza horren barruan, irailean *Hezkuntza iparrorratza: estrategiatik ikasgelako arrakastara* izeneko prestakuntza egingo da, BeA figura guztiei eta ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldeko pertsona bati batera zuzenduta.<sup>6</sup>

Prestakuntza partekatu horri esker, BeA figurek eta zuzendaritza-taldeek aukera izango dute figura horri esleitutako esparru estrategikoan eta erakunde-rolean sakontzeko, ikastetxearen diagnostikoa egiteko tresnak eskuratzeko, haren barneko eta kanpoko emaitzetatik abiatuta, eta hobekuntza-ekintzak eta irakaskuntza-prestakuntza modu koherentean planifikatzeko. Halaber, saio horietan, 2025-2026 ikasturteko prestakuntza-eskaintza instituzionala aurkeztuko da, eta ikastetxeei orientatuko zaie beren beharrei hobekien erantzun dieten prestakuntza-ekintzak hautatzera, helburuak, edukiak eta parte hartzeko baldintzak azalduz. Eskaintza horren funtsezko elementu batzuk 2024-2025 ikasturtea amaitu aurretik aurreratuko dira, lehen plangintza bat errazteko.

---

<sup>6</sup>Hasierako prestakuntza horretara joatea nahitaezkoa izango da ikastetxe bakoitzeko BeA figurarentzat eta zuzendaritza-taldeko pertsona batentzat (ahal dela, zuzendariarentzat). Bi BeA figura baimendu dituzten ikastetxeen kasuan, biek joan beharko dute. Prestakuntzak 10 orduko iraupena izango du, goizeko bi jardunalditan banatuta. Aurreikusitako datak: Araba (irailak 16 eta 17), Bizkaia (irailak 18 eta 19) eta Gipuzkoa (irailak 23 eta 24). Prestakuntza-lekuak eta prestakuntzaren edukien eta helburuen deskribapen zehatzagoa egingo da ikastetxeei jakinarazteko 2024-2025 ikasturtea amaitu aurretik.



### **Ikastetxeei zuzendutako deialdi berria, prestakuntza propioa garatzeko**

Neurri osagarri gisa, Hezkuntza Sailak **deialdi espezifiko bat jarriko du abian ikasturteko lehen hiruhilekoan, ikastetxeei zuzenduta, hobekuntza-helburuei lotutako prestakuntza-ekintza propioak garatzen laguntzeko**. Ekimen horri esker, ikastetxeek eskura izango dituzte beren testuingurura egokitutako prestakuntza espezifikoa antolatzeko baliabideak, egindako diagnostikoekin eta Estrategia Integralean jasotako lehentasunekin bat etorritz.

**Kontua** ez da eskaintza instituzionala ordezkatzeari, baizik eta **indartzea**, ikastetxeek irakasleen garapen profesionalaren benetako beharrei erantzuteko duten gaitasuna handituz, autonomia pedagogikoaren eta konpromiso estrategikoaren logikarekin.

### **Lanbide-kultura eta ikaskuntza-komunitatea**

Irakaskuntzarako praktika hobetzea ezin da ahalegin indibiduala edo isolatua izan. Halaber, irakasleek **lankidetzarako, kontrasterako eta jardunbide egokiak sistematizatzeko espazio egonkorak** behar dituzte. Horregatik, praktika komunitate profesionalen garapena, berdinen arteko laguntza eta ebidentzian oinarritutako hobekuntza-kultura indartzea bultzatzen jarraituko da.

Azken batean, ikastetxe orok izan behar du ikasten duen erakunde bat, bere eguneroko praktikei buruzko hausnarketa bateratutik abiatuta. Horrela bakarrik sendotu ahal izango da hezkuntza hobetzeko kultura erreala, bidezkoa eta iraunkorra.

[↑ Aurkibidea](#)





### 3. IKASTETXEA PLANGINTZA, HOBEKUNTZA ETA ERALDAKETARAKO UNITATE GISA

Ebazpenaren hirugarren puntu honetan, ikastetxearen antolaketari eta plangintzari buruzko alderdiak jorratuko dira, eta 2025-2026 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan kontuan hartu beharreko alderdiak ezarriko dira.

#### 3.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA

2025–2028rako Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoko 1. ardatzak, “Lidergo pedagogiko partekatua” izenekoak, jasotzen duenez, zuzendaritza-taldeei ez dagoki bakarrik baliabideak eta prozesuak kudeatzea, baizik eta **ikaskuntzaren arrakastan eta hezkuntza-komunitate osoaren garapen integralean** oinarritutako proiektu kolektibo zirrargarri bat sustatzea ere bai. Zuzendaritzari dagokio ikastetxearen plangintza estrategikoa bere testuinguruari eta erronkei egokitzea eta hori **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan (IHP)** islatzea, **komunitate osoarentzako iparrorratza** izan dadin.

Lidergo pedagogiko partekatua garatzea, berriz, ikastetxeko hezkuntza-komunitateko eragileek **IHPren diseinuan, garapenean eta eguneratzean parte hartzea** sustatzea da. Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektua **tokian tokiko errealitatera egokituta** garatu behar du, inguruko gizarte- eta kultura-ezaugarriei eta bere nortasuna osatzen duten antolakuntza-balioei erreparatuta. Dokumentu hau, aldi berean, **tresna malgua izan behar da**, testuinguruan denborarekin gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko gai izango dena.

Euskal Hezkuntza Legearen 97. artikulua arabera, IHP da ikastetxearen dokumentu-esparru nagusia, eta bertan zehaztuko dira **bere nortasuna, misioa, ikuspegia, balioak eta helburu estrategikoak**, hezkuntza-komunitatearen ezaugarriekin, inguruarekin eta indarrean dagoen araudi-esparruarekin koherentziaz.

IHPk gutxienez ondoko hauek jaso behar ditu:

- Ikastetxearen **printzipio pedagogikoak eta antolakuntzakoak**.
- **Hezkuntza-helburu nagusiak**.
- **Curriculumaren garapena eta metodologia-irizpideak**.
- **Ikasleen oinarritzko konpetentzien garapena**, ikaslearen irteera-profilarekin bat etorritz.
- **Hizkuntza-, curriculum- eta antolakuntza-esparruetako lehentasunezko jardun-ildoak**.
- Ikastetxearen **ekarpena herritar aktibo, iraunkor eta berdinzale baten garapenean**, giza eskubideekin eta bizikidetzarekin konprometituta.

Eskola Kontseiluari dagokio IHP onartzea, eta ikastetxeak **bere hezkuntza-komunitate osoari hedatzeko eta eskuragarri jartzeko bermea** eman beharko du.

Identitatea jasotzeaz gain, IHP ikastetxearen **autonomia pedagogikoa indartzeko tresna estrategikoa** ere bada, bere proiektu propioa eta **hobekuntzarako estrategia bereizia** jasotzen baititu. Funtzio horrekin bat, Hezkuntza Sailak **eguneratutako gida operatibo bat eta laguntza-materialak** (teorikoak, metodologikoak eta plantilla teknikoak) jarriko ditu datozen asteetan ikastetxeen eskura, IHPren berrikuspenean eta hobekuntza errazteko. Material horiek **erreferentzia praktiko moduan baliatu ahal**



**izango dira**, dokumentuaren koherentzia indartzeko, araudi-esparruarekin bat etortzeko eta plangintza-tresna estrategiko gisa duen erabilgarritasuna sendotzeko.

Hala ere, **eskola publikoen kasuan**, IHP berrikusteko eta hobetzeko prozesuak [Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa \(2025-2028\)](#) izan behar du **erreferentzia nagusia eta lehentasunezkoa**. Plan horrek ez du soilik sistema osoaren hobekuntzarako ibilbide-orria zehazten, baizik eta ikastetxe bakoitzari eskaintzen dio **identitatearen, lidergoaren, plangintza estrategikoaren eta barne-koherentziaren esparru bateratua**.

EEPEk euskal eskola publikoaren ikuspegi integrala jasotzen du —euskalduna, inklusiboa, eraldatzailea, erantzunkidea eta ekitatearekin konprometitua— eta hori islatu behar da IHPren misioan, ikuspegian, balioetan eta helburu estrategikoetan. Gainera, bere **hamar ardatz estrategikoek** egitura argia eskaintzen dute ikastetxearen lehentasun pedagogikoak eta antolakuntza-jardunak berriro pentsatzeko, jardun-ildo horiek hezkuntza-sistemaren erronka partekatuekin lerrokatu daitezten.

Horrez gain, EEPEk **lidergo pedagogiko partekatuen ikuspegi argia** eskaintzen du, **epe ertainera planifikatzearen garrantzia**, **ikastetxearen plangintza-dokumentuen arteko koherentzia** (IHP, IUP prestakuntza-planak barne, programak) eta **ebidentzietan eta erantzunkidetasunean oinarritutako kultura profesionala** finkatzeko bidea zabaltzen du. Era berean, eskola publikoak **beren funtzio soziala berriro pentsatzera gonbidatzen ditu**, inguruarekin harremanak sendotuz, ekitatea bultzatuz eta komunitate hezitzaile irekia, kohesionatua eta ongizatearen aldeko konpromisoa sustatuz.

Horrenbestez, Plan Estrategikoak **egitura-erreferente eta erreferente etiko** gisa jokatu behar du IHP eguneratzeko hausnarketa kolektiboen prozesuetan, dokumentu hau izapide administratibo hutsa izan ez dadin, baizik eta **hezkuntza-eraldaketarako tresna bizia** izan dadin.

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHizP)

2023ko Hezkuntza Legeak bere 68. artikuluan zehazten duenez, funtsezkoa da ikastetxeek Hizkuntza Proiektu propioa izatea eta garatzea, haien egoera soziolinguistikokoan oinarritua, ikastetxean hizkuntzak nola tratatu behar diren zehazteko.

Gizartearen etengabeko aldaketak hizkuntza-erronka berriak ekarri dizkio gure hezkuntza sistemari. Ikasgeletan dugun hizkuntza- eta kultura- aniztasun gero eta handiagoak, komunikazio euskarri berriek, irakurtzeko modu eta ohitura desberdinek... ezinbestean eskatzen digute hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko, eta hizkuntza eta kultura guztiak balioesteko estrategia eraginkorrei buruzko gogoeta egitea, erabaki kolektiboak hartzea, eta erabaki horiek ikasgeletan inplementatzea.

Horregatik, hurrengo ikasturteetan inoiz baino garrantzitsuagoa izango da ikastetxeek gogoeta soziolinguistiko zein didaktikoak gauzatu eta handik ateratako ondorio zein erabakiak Hizkuntza Proiektuan islatu eta garatzea.

*Euskal eskola publikoa eraldatzeko I. plan estrategikoa (2025-2028)* ere bada ikastetxeen hizkuntza proiektuei begirako oinarritzko heldulekua, eta beraz, hirugarren ardatzean (euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna) zehazten diren helburuei erantzungo die ikastetxeko hizkuntza proiektuak:



| Helburu orokorrak                                                                                                                                           | Helburu espezifikoak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>3.1 Euskararen hizkuntza-konpetentzia egokia bermatzea, haren erabileran sakontzea eta euskal kulturaren transmisioa sustatzea.</b>                      | <p>3.1.1. Euskal Eskola Publikoko ikastetxe guztietan, irakaskuntzarako komunikazio-hizkuntza euskara dela ziurtatzea, eta euskararen erabilera sendotzea jardun pedagogikoan, eskola-bizitzan eta euskal kultura ikasleei zein irakasleei transmititzeko tresna gisa.</p> <p>3.1.2 Ikastetxeetan dauden figura profesional guztiek euskara ikasi eta erabil dezaten sustatzea, baita euskararekiko atxikimendua ere.</p> <p>3.1.3 Ikasleen hizkuntza-murgilketa indartzea, eta, horretarako, arreta berezia jartzea lehen haurtzaroari eta garai ezberdinetan sisteman txertatzen diren ikasleei, metodologia berritzaileen eta baliabide espezifikoaren bidez.</p> |
| <b>3.2 Ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, ikuspegi integral eta eleaniztunetik.</b>                                           | <p>3.2.1. Ikastetxe bakoitzaren errealitate soziolinguistikora egokitutako hizkuntza-proiektuak diseinatzea eta inplementatzea, eta ikasle guztiek hizkuntzetan beharrezko konpetentziak garatuko dituztela bermatzea, Euskal Hezkuntzaren Legean ezarritako mailen arabera.</p> <p>3.2.1 Ikuspegi eleaniztuna sustatzea, hizkuntzen arteko ikaskuntzen transferentzia erraztuko duten eta zenbait hizkuntzatan komunikatzeko konpetentziaren garapena indartuko duten estrategia metodologikoen bidez.</p>                                                                                                                                                          |
| <b>3.3 Eskola-ingurunea aberastea, eta kultura-aniztasuna hezkuntza-komunitatearentzako aberastasun sozial eta pertsonalerako faktore gisa integratzea.</b> | <p>3.3.1 Ikasleen hezkuntza, hizkuntza eta kulturaren arloko premia bereziei erantzuteko neurri espezifikoak sortzea, eta eskola-bizitzan erabat integratzen direla ziurtatzea.</p> <p>3.3.2 Kulturarteko ikuspegia txertatzen duten hezkuntza-proiektuak garatzea, eta pertsonen eta haien kulturen aitortzea sustatzea.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |

Helburu horiek lortzeko, ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak ezinbestean bere egin beharko ditu hezkuntza Legeak, *Euskal eskola publikoa eraldatzeko I. plan estrategikoak* eta Curriculum Dekretuek ezartzen dituzten honako printzipio metodologiko hauek:

- 1- Euskararen ardaztutako eta ikuspegi eleaniztuna duen jardun pedagogikoa.
- 2- Hezkuntza komunitatean, ikastetxean eta ikasgelan euskararen normalizazioa eta euskal kulturaren transmisioa sustatuko duen helburuen zehaztapena eta esku hartzea.
- 3- Curriculum-hizkuntza guztien -euskara, gaztelania eta ingelesa nagusiki- trataera bateratu eta koherentea.
- 4- Hizkuntzen trataera integrala, non eremu, arlo eta jakintzagai guztietan hizkuntza alderdiak modu planifikatu eta sistematikoan landu eta ebaluatuko diren.
- 5- Elkarrekintza sustatzen duten hautu metodologikoak.
- 6- Sistemara garai ezberdinetan sartzen diren ikasleei arreta berezia, hizkuntza jabekuntza eta inklusioa bermatzeko.
- 7- Ikastetxearen eta ikastetxez kanpoko ikasleen jardunaren arteko lotura eta lankidetzak euskararen ezagutza eta erabileraren garapenari jarraipena egite aldera.



Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuek duten garrantziaz jabetuta, Hezkuntza Sailak hainbat ekimen garatu ditu azken ikasturteetan, hurrengoetan hedatu eta areagotuko direnak:

Alde batetik, azken bi ikasturteetan 30 ikastetxek haien Hizkuntza Proiektuak berritzeko eta garatzeko prozesu pilotuan hartu dute parte, Berritzegunearen laguntzaz.

Bestetik, Hizkuntza Proiektuan erabakitakoa garatu ahal izateko, hainbat programa eta prestakuntza dituzte eskura ikastetxeek, proiektuetan detektatutako ahulezia eta beharrei erantzun egokia eman ahal izateko. [EUSLE programa](#), [Irakurtzeko konpetentzia indartzeko programa](#) edo ahozotasuna lantzeko [Berba-lapiko programa](#), besteak beste.

Gainera, **Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua** lantzen ari da alde batetik, hizkuntzen marko berria, haren adostasunarekin ikastetxeetako Hizkuntza Proiektuak arautuko dituen Dekretu bihurtuko dena. Dekretu berri horrek zehaztuko du ikastetxeek hizkuntza proiektuak gauzatzeko ardatzak zein izango diren, baita hizkuntza proiektuak garatu eta ebaluatzeko prozedura zein izango den ere.

Bukatzeko, Sailak eta gehiengo sindikalak lortu duen lan-hitzarmenaren arabera, hurrengo ikasturteetan figura berria esleituko zaie ikastetxeei, haien hizkuntza proiektuaren diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan laguntzeko. Izan ere, 2025-26 ikasturtean prozesu horri hasiera emango zaio, 20 ikastetxerekin egingo den pilotajearen bidez.

Prozesua abiatu arteko ikasturteetan ikastetxeen egitekoa izango da euren hizkuntza proiektuari jarraipena egin eta ebaluatzea, beti ere, aipatu diren helburuak kontuan hartu eta zehazten direla ziurtatuz.

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.3. IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Hezkuntza Sailak berresten du **digitalizazio hezitzailea estrategikoki bultzatzea** lehentasunezko konpromisoa dela, hezkuntza inklusiboago, etikoago, pertsonalizatuago eta kalitatezkoago baten zerbitzura ulertuta.

Ildo horretan, [Ikastetxearen Proiektu Digitalaren](#) ohiko ikuspegia aberasten ari da ikuspegi egituratuago eta sistemikoago batekin, “**Adimen Digitala**” plana izeneko estrategia berrian bilduko dena. Plan hori datozen hilabeteetan argitaratuko da, eta **lerro estrategiko nagusiak eta ekintza-eremuak** zehaztuko ditu: konpetentzia digitalak garatzea, teknologia berriak modu pedagogikoan txertatzea eta **kultura digital partekatu eta segurua eraikitzea** izango ditu helburu.

Bestetik, Hezkuntza Sailak bultzatutako **IRADI<sup>7</sup> proiektua** pilota-fase berrian sartuko da ikastetxe profil anitzekin. **Software librean oinarritutako eta ikuspegi etikoa duen soluzio digital propioa** da, eta **eskola publikoaren balioekin bat datorren ekosistema digital burujabe eta pedagogikoa** eskaintzea du xede. 2025–2026 ikasturtean zehar, proiektuaren balio-proposamena sendotzea eta interesa duten ikastetxeei pixkanaka eskaintzea aurreikusten da.

---

<sup>7</sup> Gehiago jakiteko: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/aurrera\\_aldizkaria/eu\\_cn\\_in\\_pu/adjuntos/aurrera\\_91\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/aurrera_aldizkaria/eu_cn_in_pu/adjuntos/aurrera_91_e.pdf)



[Amarauna](#) baliabide digitalen gordailuak, bere aldetik, **diseinu berritua eta nabigazioan hobekuntza nabarmenak** eskainiko ditu ikasturtearen hasieran. Helburua da irakasleek **kalitatezko baliabide irekiak, sailkatuak, irisgarriak eta euskal curriculumarekin lerrokatuta** dituzten materialak erraz eskuratzea.

Azkenik, **adimen artifizialak hezkuntzan izango duen eragin gero eta handiagoaren aurrean**, Hezkuntza Sailak **“Adimen Artifiziala Hezkuntzan” gida** argitaratu du, eta ikastetxe guztietara banatuko da. Gida honek **orientazio pedagogikoak, etikoak eta antolakuntzakoak** eskaintzen ditu, teknologia hori **ikuspegi kritiko, seguruan eta eraikitzailean** ikastetxeetan lantzeko.

[↑Aurkibidea](#)

### 3.4. IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP)

Zuzendaritza-taldeak Ikastetxearen Urteko Planaren (IUP) prestaketa koordinatuko du. Plan hori Eskola Kontseiluak onartuko du eta Hezigunearen bidez bidaliko da Hezkuntza Sailera 2025eko urriaren 27a baino lehen. Hezkuntza Sailak [eguneratutako txantilloi](#) bat jarri du ikastetxeen eskura, hura errazago egin ahal izateko, eta, laster, **berariazko plantilla bat gehituko du, hezkuntza-emitzei lotutako hobekuntza-ekintzak jasotzeko.**

IUPa ikasturtea planifikatzeko eta antolatzeko tresna labur, praktikoa eta erabilgarria gisa ulertzen da. Besteak beste, irakaskuntza-jardueren programa, urteko kudeaketa-programa eta IUParen beraren jarraipena jasoko ditu.

Plan horrek esplizituki jaso beharko ditu ikastetxeko hezkuntza-emitzei buruzko hausnarketarik eratorritako hobekuntza-ekintzak, barnekoak zein kanpokoak, bereziki 2025eko Ebaluazio Diagnostikoan lortutakoak. [Ebaluazio horren ebazpena](#) 2026ko urtarrilaren 31 ezartzen badu ere IUParen eranskin gisa ondorioen eta hobekuntza-helburuen txostena aurkezteko azken egun gisa, ikastetxeei gomendatzen zaie prozesu hori aurreratzea eta azterketa hori 2025eko irailean eta urrian egitea lehenestea.

Zeregin hori errazteko, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren laguntza izango dute ikasleen emaitzak (barnekoak eta kanpokoak) elkarrekin aztertzeko eta baloratzeko, eta Berritzegune Nagusiaren aholkularitza izango dute. Definituko diren hobekuntza-ekintzek bat etorri beharko dute euskal hezkuntza-sistema hobetzeko estrategia integralarekin.

Urteko Planak, gutxienez, honako atal hauek izan behar ditu:

- [Irakaskuntza-jardueren programa](#)
- [Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa](#)
- [Urteko kudeaketa-programa](#)
- [IUParen garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena](#)



### 3.4.1. Irakaskuntza-jardueren programa

Klaustroari dagokio programa hau egitea, edo batzorde bati.

Honako azpiatal hauek izango ditu:

#### 1. Helburuak, ekintzak eta lorpen-adierazleak

IUPak, ikastetxearen emaitzen azterketatik abiatuta, lehentasunezko helburuak formulatuko ditu, barnekoak zein kanpokoak (2025eko Ebaluazio Diagnostikoa barne), kopuru mugatuan. Helburu horiek Hezkuntza Sailaren emaitzak hobetzeko estrategia integralarekin lerrokatuta egon behar dute, eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta bermatzera bideratuta egon behar dute, talde kalteberei arreta berezia eskainita.

Helburu bakoitzarekin batera zehaztuko dira:

- aurreikusitako hobekuntza-ekintzak, beharrezko baliabideak adierazita
- garapenaren denboralizazioa
- inplementazioaz eta jarraipenaz nor arduratuko den
- haien lorpen-maila balioestea ahalbidetzen duten adierazleak

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, aniztasunari erantzutean, bizikidetzan eta ikasleen ongizatean, bai eta irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen inplikazioan ere hobekuntza zehatza eta ebaluagarria aktibatzen duten helburuak lehenetsiko dira. Helburu horiek bat etorri beharko dute ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta ikasturterako zehaztutako ildo estrategikoekin.

#### 2. Hezkuntzaren konplexutasun-indizea (aurrerantzean, HKI)

Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) aplikatzearen ondorioz baliabide gehigarri bat lortu duten ikastetxeek Ikastetxearen Urteko Planean baliabide horren aurreikusitako erabilerari buruzko azalpen-atal bat sartu beharko dute, ikasleen eskola-emaitzak hobetzeko lehentasunezko helburuari lotuta.

Baliabide hori **zuzeneko irakaskuntzako jardueretarako erabili** beharko da, hala nola **talde txikiak sortzeko, berariazko errefortzuak emateko, koirakaskuntzarako** edo hala eskatzen duten ikasleekin esku-hartze pertsonalizatuak egiteko.

Baliabide horrekin erlazionatutako jarduerak irakurketaren, matematikaren eta zientziaren alorreko konpetentzia-emaitzak hobetzeko ildo estrategikoaren barruan kokatu behar dira bereziki, Hezkuntza Sailak bultzatutako programa espezifikoetan jasotzen den bezala. Programa horiek hezkuntza-konplexutasun handiena duten ikastetxeetan hiru funtsezko konpetentzia horiek indartzeko beharra nabarmentzen dute, eta honako neurri hauek txertatzekoa:



- irakastorduetan antolatutako indargarriak
- metodologia inklusiboak eta kooperatiboak erabiltzea, hala nola koirakaskuntza, besteak beste
- HBSL eta Eraldatzen programekin lerrokatutako errefortzu-jarduerak

Eraldatzen programan parte hartzen duten ikastetxeek ziurtatu beharko dute ordu-baliabide horren heren bat gutxienez programaren arduradunari esleitzen zaiola eta errefortzu-ekintzak ikastetxeko Hobekuntza Plan Estrategikoan txertatuta daudela ekitatearen, inklusioaren eta ikasleen parte-hartze aktiboaren ikuspegitik.

### 3. Irakaskuntza-jarduera arrunten programa (IJAP)

Atal hauek izango ditu:

- a) [Ikastetxearen funtzionamendua eta antolamendua](#)
- b) [Berrikuntza eta eraldaketa](#)
- c) [Prestakuntza eta garapen profesionala](#)

#### a) Ikastetxearen funtzionamendua eta antolamendua

Atal honetan, ikasturtean zehar ikastetxearen eta eskola-jardueraren antolamenduari eta funtzionamenduari buruz hartzen diren **erabakiak** eta **irizpideak** jasoko dira, ikasleen beharrak eta dauden baliabideak kontuan hartuta, **baldin eta lehen aldiz egiten badira edo oso unean uneko erabakiak badira**. Hala ez bada, ikastetxearen jarduera planifikatzeko eta antolatzeke beste dokumentu batzuetan jasoko dira (normalean, AJAn).

Hona hemen erabaki eta irizpide horien adibideak:

- egutegia eta ebaluazio-datak (nahitaez adierazi beharko da)
- komunikazioa familekin edo legezko tutoreekin (nahitaez zehaztu behar dira taldearen bileren datak)
- irakasleen zereginak esleitzeko irizpideak
- tutoretzak banatzeko irizpideak
- jarduera eskusiboko saioak [haur eta lehen hezkuntzan] eta aparteko arretako saioak [gainerako etapetan] antolatzea ikastetxean
- ikasleak taldekatzeke irizpideak
- hezkuntza-errefortzua eta laguntza antolatzeke irizpideak
- espazio komunak antolatzeke eta banatzeko irizpideak
- ikastetxeko zerbitzuak (jantokia, garraioa, liburutegia...)





## b) Berrikuntza eta eraldaketa

Hezkuntza-berrikuntzak bideratuta egon behar du ikasleen ikaskuntza hobetzera eta ikastetxe bakoitzak dituen erronkei modu koherentean erantzutera. 2025-2026 ikasturtetik aurrera, berrikuntza-prozesuen plangintza eta koordinazioa Hezkuntza Sailak zehaztutako esparru berrira egokituko da, eta BeA figurak zeregin estrategikoa izango du hezkuntza-hobekuntza sustatzeko.

Ikastetxe bakoitzak bere berrikuntza- eta eraldaketa-ildoak zehaztuko du, bere errealitatetik eta lehentasun estrategikoetatik abiatuta. Ildo hori Hezkuntza Proiektuan txertatuko du, eta Sailak ezarritako lehentasunezko jarduera-ildoekin lotuko du. Ekitatea, emaitzen hobekuntza eta ikasleen ongizatea sustatzen dituzten proposamenak lehenetsiko dira, bereziki hezkuntza-konplexutasun handiko ikastetxeetan.

IUParen atal honetan sartuko dira:

- Abian dauden edo aurreikusita dauden **berrikuntza-proiektuak**, haien helburuak, ekintzak, kronograma eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak zehaztuta.
- **Ikastetxeari esleitutako berrikuntzako ordu-kredituaren plangintza**, honako hauek zehaztuta:
  - BeA figurari esleitutako funtzioak eta denborak
  - Gainerako irakasleek berrikuntza-orduetan parte hartzea
  - Egindako lana koordinatzeko, baliozkotzeko eta zabaltzeko bideak

Jarduketa **guztiak ikuspegi sistemiko eta artikulatu** baten barruan kokatu behar dira, logika zatikatuak gaindituz eta berrikuntza ikastetxearen plangintza estrategikoko prozesuekin lotuz, 2025-2026ko esparruan jasotzen den bezala.

## c) Prestakuntza eta garapen profesionala

Irakasleen prestakuntza prozesu kolektibo gisa ulertu behar da, ikasleen ikaskuntzak hobetzearen zerbitzura dagoen prozesu gisa. 2025-2026 ikasturtetik aurrera, ikastetxeetako prestakuntza-berrikuntzako eta lidergo pedagogikoko esparru berriaren arabera antolatuko da, eta prestakuntza-plangintza ikastetxearen estrategia orokorrean txertatuko da.

BeA figurak, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, ikastetxeko prestakuntza-plana diseinatzeko, dinamizatzeko eta haren jarraipena egiteko ardura izango du. Plan horrek Hezkuntza Proiektuan ezarritako lehentasunei erantzun behar die, berrikuntza-proiektuekin lotuta egon behar du eta indartzeari zuzendu behar zaio bereziki. Bestalde, BAT taldeak, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, bizikidetza positiboa eta hezkidetzakoa eraikitzearekin eta testuinguruko hezkuntza-erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren konpetentzia profesionalak edukitzearekin zuzeneko lotura duten gaien ardura izango du.



Prestakuntzaren plangintzak barne hartuko ditu:

- formazio-ekintzen prestakuntza-helburuak, ikastetxearen berrikuntza-ildoei lotuta
- barneko zein kanpoko prestakuntza-ekintzen programazioa eta haien formatuak: lan-saioak, ikastetxeko prestakuntza, mintegiak, laguntza, etab.
- irakasleen parte-hartzea, eskaintako denbora eta antolaketa-irizpideak
- jarraipenerako, ebaluaziorako eta irakaskuntzara transferitzeko mekanismoak

**Berritzegune Nagusiak prestakuntza-eskaintza** dinamiko bat jarriko du ikastetxeen eskura, hobekuntza-proiektuak hedatzeko klaustroaren eta zuzendaritza-taldearen garapen profesionalean laguntzeko diseinatuak. Eskaintza hori **berariazko orientabideekin, materialekin eta baliabideekin eta aholkularitzarekin osatuko da**, ikastetxe bakoitzak bere plana osa dezan bere helburu estrategikoekin bat etorritik.

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.4.2. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak ikastetxearen hezkuntza-eskaintzaren parte dira, eta bat etorri behar dute ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta Hezkuntza Sailaren hobekuntza-estrategia integramean zehaztutako helburuekin. Ildo horretan, jarduera horiek modu eraginkorrean lagundu beharko dute ikasleen funtsezko konpetentziak garatzen, ongizate emozionala sustatzen eta ekitatea eta hezkuntza-inklusioa sustatzen.

#### Jarduera osagarriak

Ikastetxeek eskola-egutegiaren barruan antolatutako hezkuntza-jarduerak dira, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin (IHP) eta Urteko Planarekin lotura zuzena dutenak. Ohiko eskola-ordutegitik bereizten dira formatuagatik, espazioagatik edo baliabideengatik, baina nahitaezkoak dira ikasleentzat zein irakasleentzat, eta familiek hutsegiteak justifikatu beharko dituzte. Jarduera horiek ikuspegi pedagogiko, inklusibo eta ekitatibo batetik planifikatu behar dira, eta 2025-2026 ikasturtetik aurrera bereziki lagundu beharko dute honako hauek garatzen:

- irakurtzeko konpetentzia, matematikarako eta zientziarako konpetentziak, bisita didaktikoen, tailerren, azoken, topaketen edo jardunaldi tematikoen bidez
- ikasleen ongizate emozionala, bizikidetzako, emozio-kudeaketako, kooperazio-kulturako edo partaidetzako jardueren bidez
- ikastetxearen gizarte- eta kultura-ingurunearekiko lotura, sustraitzea, motibazioa eta parte-hartze aktiboa indartuz

Jarduera bakoitzerako, helburuak, ikastetxearen ildo estrategikoekiko harremana, inplikaturako ikasleak eta irakasleak erregistratu beharko dira, baita data, lekua eta arduradunak ere. Erregistro hori Eskola Kontseiluarentzat eta Hezkuntza Ikuskaritzarentzat egongo da eskuragarri. Halaber, zuzendaritza-taldea arduratuko da irteeren erregistro hori eguneratzeaz.

Ikastetxe batek, jarduera osagarriak planifikatzen dituenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan. Guztiak dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea. Beraz, hori aldeztu aurretik aurreikusi beharko da, eta ikastetxearen baliabide propioak kontuan hartuta (irakaskuntzako eta hezkuntzako



profesional guztiak), jarduera horietatik inor kanpo gera ez dadin egokienak aukeratu beharko dira. Ildo horretan, beharrezkoa da jardueretan irisgarritasun unibertsalerako beharrezkoak diren baldintzak aurreikustea, ikasle guztiek antzeko baldintzetan parte har dezaten.

Jarduera osagarriak Urteko Planetan sartuta egon beharko dute, eta, ez badaude, Eskola Kontseiluak aldeztatik onartu beharko ditu eta IUPan sartu.

Kontuan hartu beharko da ikastetxetik kanpo egiten diren jardueretan familien edo legezko tutoreen baimena beharko dela. Gainera, joan-etorriak jasagarritasun-irizpideekin programatu behar dira.

Justifikatutako arrazoiengatik ikasle batek irteeran parte hartzen ez badu, ikastetxean behar bezalako arreta eman beharko zaio eskola-egun osoan.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleek, kasu guztietan, gutxienez bi profesional izan beharko dituzte ondoan, eta horietako bat gutxienez taldeko irakasle bat izango da. Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako espezialista ere joango da. Bestalde, gutxienez irakasle laguntzaile bat izango da 20 ikasleko edo 10 ikasletik gorako frakzioko, betiere aurretik adierazitako gutxienezko kopurua errespetatuta. Honela jokatuko da:

| Ikasle-kopurua | Irakasle-kopurua |
|----------------|------------------|
| 1-30           | 2                |
| 31-50          | 3                |
| 51-70          | 4                |
| 71-90          | 5                |
| 91-110         | 6                |

Ikasleekin jarduera osagarriak egiten dituzten irakasleek, gaua igarotzea dakartenek, ordaindutako baimena hartzeko eskubidea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen 2025eko ekainaren 7ko Aurreakordioaren 52. artikuluan jasotakoaren arabera.

### Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jarduerak **eskola-ordutegitik kanpo** gauzatzen dira eta **borondatezkoak** dira, baina ez horregatik bigarren mailakoak. Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren parte garrantzitsua dira, eta **bere helburu estrategikoekin koherentziaz planifikatu beharko dira**, bereziki **2024–2028ko Hezkuntza Eraitzen Hobekuntzarako Estrategia Integralean** jasotako ildoekin bat etorritik.

Jarduera hauek espazio pribilegiatua eskaintzen dute ikaskuntzak indartzeko eta aberasteko, ikasleen autonomia sustatzeko eta haien garapen integrala bultzatzeko, ingurune malguago, sortzaileago eta esanguratsuagoetan. Horregatik, **ikastetxearen lehentasunezko eremuekin** lerrotatuta egon beharko dute, batez ere honako hauetan:



- **Euskara harremanetarako, parte-hartzerako eta gozamenerako hizkuntza** gisa sustatzea, hizkuntza hori modu erreal eta bizian presente egon dadin jarduera ludiko, sortzaile edo lankidetzakoetan, eta **euskal kulturarekiko hurbilketa esperientziala** erraztea.
- **Hezkuntza ingurune ugaritako proposamenen** bidez (ingurumen-hezkuntza, arte-adierazpena, zientzia, hizkuntzak edo jarduera fisikoa), ikuspegi motibatzaile eta konpetentzialesi eutsiz, ikasleek esperimendu, deskubritu eta adierazteko aukera izan dezaten.
- **Konpetentzia transbertsalak** (komunikazioa, sormena, lankidetzak, ekimena edo pentsamendu kritikoa) garatzen laguntzen duten jardueren bidez, ikasgelan landutako ikaskuntzak osatzea eta sendotzea.
- **Alderdi emozional eta harremanezkoa** zaintzea, eskolaz kanpoko jarduerak aukera gisa baliatuz **ikasleen ongizatea, bizikidetzak positiboak eta ikastetxearekiko atxikimendua** indartzeko, eta, horrela, ikastetxe kohesionatuago, seguruago eta parte-hartzaileagoa eraikitzeko.

Ikastetxe batek eskolaz kanpoko jardueren eskaintza planifikatzean, **ikasle guztiak kontuan hartu beharko ditu**, irisgarritasun unibertsalaren, parte-hartze inklusiboaren eta berdintasunaren ikuspegitik. Horretarako, beharrezko baliabide eta laguntzak aurreikusi beharko dira, ikastetxeak dituen bitartekoak erabiliz (hezkuntza-komunitateko profesional guztiak barne), **inolako ikaslerik ez dadin kanpoan geratu** arrazoi ekonomikoengatik, sozialengatik, kulturalengatik edo funtzionalengatik.

Era berean, garrantzitsua da **iraunkortasun- eta erantzukizun-irizpideak** txertatzea ikastetxetik kanpoko irteeretan, eta **familien edo legezko tutoreen baimen espresua** jasotzea jarduerak horiek burutu aurretik.

Eskolaz kanpoko jarduerak guztiak **Ikastetxearen Urteko Planean (IUP)** jaso beharko dira. Ikasturtean zehar beste jarduerak batzuk planteatzen badira, Eskola Kontseiluaren aurretiko onarpena beharko dute, eta ondoren IUPan integratu.

### Atzerriko jarduerak osagarri edo eskolaz kanpokoak

Ikasleek **nazioarteko jarduerak hezitzaileetan** parte hartzea —truke-programak, Erasmus+ proiektuak, bidaia kulturalak edo hizkuntza-egonaldiak— **aukera paregabea da haien garapen pertsonal, akademiko eta sozialerako**. Esperientzia hauek ikasleek ikuspegia zabaltzen dute, autonomia eta hizkuntza-konpetentziak garatzen dituzte, eta ikaskuntza interkulturala sustatzen dute; aldi berean, ikaskuntza-prozesuarekiko motibazioa eta inplikazioa indartzen dituzte.

Hori dela eta, Hezkuntza Sailak **ikasleak atzerriara ateratzeko jarduerak antolatzea animatzen ditu ikastetxeak**, batez ere [Erasmus+ bezalako programa europarren](#) bidez, edo beste ekimen batzuen bidez, **eskola ireki, internazionalizatu eta inklusibo bat** bultzatzeko xedez.

Hala ere, jarduerak horietan **adineko laguntzarik gabeko adingabeak atzerriara joatea** aurreikusten bada, ezinbestekoa da **haurren babesari buruzko indarrean dagoen legezko araudia** betetzea. Ikastetxeek eta familiek kontuan hartu beharko dituzte ondorengo jarraibideak, bidaia segurtasun juridiko osoz garatzeko:



- Ikasleak **NAN edo pasaporte**a eduki behar du (Schengen eremuan NANarekin nahikoa da).
- **Bi gurasoen edo tutore legalen baimen esplizitua** behar da adingabeak gurasoen laguntzarik gabe atzerrira bidaiatzeko. Baimen hori **aurrez aurre eskatu behar da** Polizia Nazionalaren edo Ertzaintzaren komisaria batean. Polizia-kidegoaren arabera, prozedura desberdina izan daiteke:
  - **Polizia Nazionalean**, gurasoetako batek joan daiteke, eta **beste gurasoaren baimena bere gain hartuta** sinatu. Justifikazioa eskatuko zaio.
  - **Ertzaintzan**, **bi gurasoen sinadura** eskatzen da. Gurasoetako bat ez bada agertzen, telefonoz jarriko dira harremanetan berarekin, eta ez bada lortzen edo ez badu baimentzen, ez da baimenik emango.
- Egoera konplexuetan (zaintza gatazkatsuak, urruntze-aginduak, guraso batekin harreman ezina...), **baimen judiziala** beharko da. Horretarako, **borondatezko jurisdikzio prozedura bat** abiatu behar da dagokion epaitegian, eta horrek **bi hilabete arte iraun dezake**.

Horregatik, **ikastetxeei gomendatzen zaie** familiaei **ikasturte hasieran bertan** informazioa ematea jarduera horien antolakuntzaz, **izapide administratiboak** garaiz egin ahal izan ditzaten.

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.4.3. Urteko kudeaketa-programa

Urteko planaren zati horretaz zuzendaritza-taldea edo batzorde iraunkorra arduratuko da, Eskola Kontseiluak onar dezan.

Finantza-baliabideen banaketa ikastetxean helburuak eta lehentasunak ezartzeko modu garrantzitsua da. Atal honetan kontuan hartu behar da kudeaketa ekonomikoaren (urte naturala) eta ikastetxearen urteko planaren (ikasturtea) aldi baterako esparruak desberdinak direla.

Horregatik, atal honetan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Onartutako aurrekontuaren betetze-maila: horretarako, nahikoa da orri batean aurrekontu-partida jakin batzuk jasotzea eta ordura arte zenbat diru erabili den (gastuak). Dokumentu hori kudeaketa ekonomikoko aplikazio informatikoak berak ematen du.
- Hurrengo aurrekontuetarako gastu-irizpideak eta -aurreikuspenak, batez ere funtzionamenduarekin zerikusirik ez duten gastuei dagokienez: hornidurak, prestakuntza, obra txikiak, etab.

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.4.4. IUParen garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena

IUParen garapenaren jarraipena ahalik eta modu parte-hartzaileenean egin behar da, eta, horretarako, ikasturte hasieran zehaztuko da jarraitu beharreko prozesua. Zuzendaritza-taldeak edo hezkuntza-komunitateko estamentu ezberdinetako pertsonak horretarako sortutako batzorde batek egin dezake jarraipena. Haren berri Eskola Kontseiluari eman beharko zaio, gutxienez behin, ikasturtearen erdialdean.



Planaren jarraipenetik eta ebaluaziotik eratorritako informazioa oinarritzko erreferentia izango da ikastetxearen urteko memoria egiteko.

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.5. IKASTETXEAREN URTEKO MEMORIA

Zuzendaritza-taldearen ardura da memoriaren prestaketa koordinatzea. IUParen betetze-mailaren azterketatik eta lortutako eskola-emaizetatik abiatuta eta diagnostiko-ebaluazioaren edo kanpoko beste ebaluazio batzuen emaitzen analisitik abiatuta, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du, ondorioak aterako ditu eta hurrengo ikasturterako jarduera hobetzeko proposamenak aurkeztuko ditu, lehenetsiak ezarri, zeinak, aldi berean, hurrengo IUPean lortu beharreko helburu gisa hartuko baitira. Memoriak ikastetxearen ikuspegi orokor eta bateratua jaso beharko du.

Memoria Eskola Kontseiluak onartuko du, eta ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute [Hezigunearen](#) bidez, **2026ko irailaren 16a baino lehen**.

Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa eta Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidako gomendioei jarraituz egina.

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.6. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Kanpo-ebaluazioa funtsezko tresna da euskal hezkuntza-sistema aztertzeko eta hobetzeko. [77/2023 Dekretuaren 41. artikulua](#) ezartzen duen bezala, ebaluazio diagnostikoak Hezkuntza Sailaren eta ikastetxeen ardura dira. Hezkuntza-jardunari buruz hausnartzeko eta ikasleen arrakasta eta ekitatea bultzatuko duten erabakiak hartzeko aukera gisa ulertu behar dira.

[↑ Aurkibidea](#)

#### 3.6.1. Etapa-erdiko ebaluazio diagnostikoa

2024-2025 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako etaparen erdiko Ebaluazio Diagnostikoa (ED25) garatu zen, izaera zentsala duena. Irailean, ikastetxeek banakako eta taldeko txostenak jasoko dituzte, matematikarako konpetentzia, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan eta testuinguruaren aldagaietan lortutako emaitzak islatzen dituztenak.

Irailean eta urrian, ikastetxeek emaitza horiek aztertu beharko dituzte, Berritzegunearen laguntzarekin aholkularitzaren esparruan eta Hezkuntza Ikuskaritzaren laguntzarekin ikuskatzearen esparruan. Azterketa horren helburua izango da:

- emaitzak klustroari eta eskola-kontseiluari aurkeztea
- indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatzea
- datuetan oinarritutako hobekuntza-helburuak formulatzea (ekintzak, arduradunak eta denboralizazioa barne) eta Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) txertatzea



Lan hori ikastetxearen ebaluazio diagnostikorako batzordeari dagokio, zeina dagoeneko eratuta baitago **ED25 Ebazpenean**<sup>8</sup> ezarritakoaren arabera. Eta eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

- emaitzen txostenak klaustroari eta eskola-kontseiluari aurkeztea
- ebaluaziotik eratorritako hobekuntza-helburuak formulatzea eta IUPan jasotzea

Araudiak zehazten ez badu ere, ezinbestekotzat jotzen da BeA figurak batzorde horretan parte hartzea. Haien presentziak bermatzen du emaitzetatik eratorritako hobekuntza-ekintzak ez direla mugatzen gainazaleko egokitzapen metodologikoetara edo antolamendukoetara eta hezkuntza-berrikuntzako prozesuekin eta irakasleen prestakuntzako eta garapen profesionaleko programekin lotzen direla *Hezkuntza Sailaren 2024-2028 hezkuntza-emaitzak hobetzeko estrategia integralarekin* bat etorritz.

Era berean, **ebaluazioaren komunikazio-dimentsioa indartuko da**. Familiek eskola-kontseiluan ordezkaritza badute ere, beharrezkoa da informaziorako eta partaidetzarako bide zuzenagoak eta eraginkorrak ezartzea. ED25 Ebazpena beteta, ikastetxeek hau egin beharko dute:

- Familia bakoitzari bere semearen edo alabaren banakako txostena helarazi, orientazio ulergarri eta testuingurudunekin batera, familia horren interpretazioa errazteko eta familia-ingurunetik konpetentzien garapena babesteko jarraibideak eskaintzeko. Orientabide horiek elkarriketa pertsonalizatuen, talde-bileren edo irakasle tutoreen azalpen-oharren bidez eman ahal izango dira.
- Eskola-kontseiluan aurreikusitako emaitzei eta ekintzei buruz partekatutako informazioa hezkuntza-komunitate osoari modu ulergarrian iritsiko zaiola bermatuko duten mekanismoak ezarri.

[↑Aurkibidea](#)

### 3.6.2. Etapa amaierako ebaluazio diagnostikoa (ED26)

2025-2026 ikasturtean, **etapa amaierako ebaluazio diagnostikoa** egingo da Lehen Hezkuntzako 6.mailan, **lagin** izaerakoa eta ondorio akademikorik gabea ikasleentzat. Ebaluazio horri esker, ikasleek etapa amaitzean duten konpetentzia-maila baloratu ahal izango da, eta hezkuntza-sistema aztertzeke eta hobekuntzara bideratutako politika publikoak zehazteko informazio garrantzitsua eman ahal izango da. Era berean, hautatutako ikastetxeek ED25aren ondorioz **planifikatutako hobekuntza-ekintzak berrikusteko, egokitzeko edo indartzeko** balioko du, ebidentzietan oinarritutako etengabeko hobekuntza-kultura sendotuz.

Ikastetxe bat ED26an parte hartzeko hautatua bada, ED25 ebaluazio zentsala sustatutako ikuspegi profesional eta pedagogiko berarekin heltzea gomendatzen da. Ikastetxearen **ebaluazio diagnostikorako batzordeak** bere gain hartuko ditu beharrezko antolaketa-eginkizunak, ISEI-IVEIrekin koordinatuta.

<sup>8</sup> [HEZKUNTZA POLITIKEN SAILBURUORDEAREN 2025eko otsailaren 14ko EBAZPENA, 2025EKO ETAPA ERDIKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK ARAUTZEARI BURUZKOA](#)





Hautatutako ikastetxe horiek prestakuntza-aukeratzat hartu beharko dute ebaluazio hori, ED25 ebaluazioarekin egin den bezala. Beraz, prozesua hiru une nagusitan egituratzea gomendatzen da:

⇒ **Probaren aurretik:**

- ✓ Hezkuntza-komunitate osoa (klastroa, familiak, ikasleak) informatzea eta sentsibilizatzea, ebaluazioaren helburuei, prestakuntza-balioari eta erabilgarritasunari buruz.
- ✓ Ikasleak prestatzea, haien konfiantza, probaren formatua familiarizatzea eta haien garrantzia ulertzea indartzen duten jardueren bidez.
- ✓ Inplikaturako irakasleen parte-hartzea eta koordinazioa bermatzea, lankidetzajarrera sustatuz.
- ✓ Ikastetxearen ebaluazio diagnostikorako batzordea eratzea edo aktibatzea, eta horrek bere gain hartuko ditu beharrezko antolaketa-eginkizunak.

⇒ **Proban bertan:**

- ✓ Ebaluazioaren garapena modu zorrotzean antolatzea, erreferentziako irakasleen presentzia eta ikasleentzako giro egokia ziurtatuz.
- ✓ Prozesuaren jarraipena egitea, jarrerak behatzea, gorabeheren kudeaketa eta inplikaturako kanpoko eragileekiko koordinazioa barne.

⇒ **Probaren ondoren:**

- ✓ Emaitzak sakon aztertzea, ISEI-IVEIren txostenak ikastetxearen hausnarketa pedagogikoan integratuz.
- ✓ Analisi horretan oinarrituta, ED25aren ondorioz planifikaturako hobekuntza-ekintzak berrikusi, egokitu edo indartzea, ebidentzietan oinarritutako etengabeko hobekuntza-kultura sendotuz.
- ✓ Informazioa klastroarekin eta eskola-kontseiluarekin partekatzea.

Berariazko ebazpen batek arautuko du ebaluazio horren garapen teknikoa eta antolaketa-garapena, eta behar den aurrerapenarekin argitaratuko da.

### Errekurtsioak eta dokumentazioa

Ebaluazio diagnostikoekin lotutako informazio guztia, txostenak, material teknikoak eta analisi pedagogikoko gidak ISEI-IVEIren webgune ofizialean daude eskuragarri:

<https://www.isei-ivei.eus>

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.7. INDARTUZ NEURRIA LEHEN HEZKUNTZAN (2025-2026 ikasturtea)

Indartuz **neurria** 2024-2025 ikasturtean jarri zen martxan lehen aldiz, lehen hezkuntzako **3. eta 4. mailako ikasleei zuzendutako eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuko jarduera** pilotu gisa. Horretarako, [jarraibide espezifikoa](#) batzuk landu ziren, eta, horri esker, irizpide komunak ezarri ahal izan dira Indartuz neurria antolatzeko, ezartzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko. Jarraibide horiek ikastetxe kopuru esanguratsu batean aplikatu dira, eta gaur egun neurriaren ebaluazio globala egiten ari



dira, bai maila kuantitatiboan, bai kualitatiboan. Ebaluazio horretatik abiatuta, 2025-2026 ikasturteari begira neurria eguneratzeko eta hobetzeko beharrezkoak diren doikuntzak sartuko dira. Bien bitartean, 2024-2025 ikasturtean indarrean dauden jarraibideak edizio berriaren hasierako plangintzarako oinarri operatibo eta tekniko izango dira.

2025-2026 ikasturtean indartuz neurria ezartzen jarraituko da, **lehen hezkuntzako 3 eta 4 mailako** ikasleei zuzendutako **eskolaz kanpoko irakurtzeko** eta matematikarako konpetentziak **indartzeko jarduera** gisa. Neurri hori [Hezkuntza Sailak bultzatutako irakurtzeko eta matematikarako konpetentziak indartzeko programen](#) parte da, eta berariaz sartzen da bi programen **zazpigarren jarduera-ildoan**, eskola-ordutegitik kanpo hezkuntza-errefortzura bideratuta. Bere helburua funtsezko ikaskuntzak indartzea, desberdintasunak murriztea eta ikasleen errendimendua hobetzea da, eskola-lehen etapetan, konpetentzia horietan laguntza-premia handienak dituztenei laguntza intentsiboa eta pertsonalizatua eskainiz.

### Helburua eta zentzu pedagogikoa

Indartuz **neurriaren helburua da hezkuntza-laguntza pertsonalizatua bermatzea** irakurtzeko konpetentzian (euskaraz eta/edo gaztelaniaz) edo matematikarako konpetentzian zailtasun nabarmenak dituzten ikasleei. **Eskolaz kanpoko laguntza intentsiboko** gune gisa ulertzen da, baina baita **berrikuntza pedagogikoko estrategia** gisa ere, ikasgela arruntaren praktikak indartzeko eta eskola-ibilbidearen lehen faseetatik ikaskuntza-desberdintasunak murrizteko.

**Irakurtzeko konpetentziaren kasuan, esku-hartzea Lehen Hezkuntzako 3.mailako** ikasleei zuzenduta bereziki, **funtsezko ikasmaila baita** funtsezko trebetasunak garatzeko, hala nola deskodetzea, irakurtzeko jariakortasuna eta testuak ulertzea. Gainera, aukera horrek aukera ematen du **ITT (Irakurketa-Trebetasunak neurtzeko Tresna)** proban lortutako emaitzei jarraipena eta erantzun pedagogikoa emateko, ikasle guztiei lehen hezkuntzako 2. maila amaitzean aplikatzen zaiena.

**Matematikarako konpetentziari** dagokionez, neurria Lehen Hezkuntzako **4.mailako** ikasleengan fokalizatzen da, arrazoiketa logiko-matematikoa sendotzeko, oinarrizko eragiketak menderatzeko eta problemak ebazteko etapa erabakigarria delako. Erabaki hori **eraginkortasun eta osagarritasun** printzipio bati ere erantzuten dio, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloak errefortzu-neurri espezifiko bat baitu **Bidelaguna** programaren bidez.

Horregatik guztiagatik, **Indartuz neurriak modu prebentiboan eta estrategikoan** jarduten du etaparen **tarteko mailetan**, funtsezko ikaskuntzak sendotzeko eta hasierako zailtasunak ondorengo ikasmailetan kronifikatu edo areagotu ez daitezen. Aldi berean, **koordinazio- eta transferentzia metodologikorako mekanismoak ezartzen ditu**, errefortzuaren eragina ikasle parte-hartzaileei baino handiagoa izan dezaten eta ikastalde osoan eragin positiboa izan dezaten.

### Ikastetxeak aurre-hautatzeko irizpideak

Parte hartzen duten ikastetxeen aurre-hautaketa honako **irizpide** hauen arabera egingo da:

- **Irakurmenean (euskaraz eta/edo gaztelaniaz) eta/edo matematikarako konpetentzian errendimendu baxua duten ikasleen ehuneko handia** duten ikastetxeei lehentasuna emango zaie, ED25 etapako Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzen arabera.
- 2025-2026 ikasturtean hezkuntza-konplexutasun-maila dela-eta **baliabide gehigarriak** dituzten **ikastetxeak baztertuko dira**, ordu-kreditua esleitzean bikoiztasunak saihesteko.



- Era berean, tamaina txikiko ikastetxeak ere ez dira sartuko, errefortzu-talde egonkorak osatzeko behar diren gutxienekoak lortzen ez direlako.

2025eko uztailean, aurre-hautatutako ikastetxeei **honako hauen berri izango da:**

- **aurrez esleitutako konpetentzia edo konpetententzaik** (irakurtzeko konpetentzia euskaraz eta/edo gaztelaniaz, eta/edo matematikarako konpetentzia), eta
- **aurrez ezarritako ordu-kreditua**, ikastetxearen tamainaren eta aurreikusitako esku-hartzearen arabera (lanaldiko 1/3 eta 4/3 artean, 1/3ko moduluetan banatuta).

Garrantzitsua da azpimarratzea komunikazio horrek ez duela esan nahi oraindik neurria automatikoki ezartzea, **aurre-hautapen baldintzatua** baizik. Ikastetxearen parte-hartzea formala izan dadin, beharrezkoa izango da ikastetxe horrek **bere onarpena baieztatzea** eta **oinarrizko baldintza jakin batzuk betetzen direla egiaztatzea**, besteak beste:

- **dagozkion mailetan ikasle-kopuru nahikoa egotea** (Lehen Hezkuntzako 3.a edo 4.a), **errefortzu-talde bideragarriak eratzea ahalbidetuko duena** (talde bakoitzeko 5 eta 10 ikasle artekoak), eta
- aurrez esleitutako irakasleen esleipen efektiboa justifikatzen **duen errefortzu-taldearen kopurua antolatzeak aukera**.

Illo horretan, 1/3 lanaldiko moduluen behin betiko kopurua (eta, beraz, errefortzuko irakasleen kopurua) talde antolatuen azken egituraren **araberakoa izango da**. Adibidez, ikastetxe bati lanaldiko 4/3 (zortzi talderen baliokidea) aurrez esleitu bazaio ere, talde horiek guztiak osatzeko ikasle nahikorik ez badu, ordutegi-kreditua proportzionalki egokituko da (adibidez, 2/3).

Baldintza horiek betetzen badira, eta irailean baliozkotu ondoren, ikastetxeak neurria aktibatu ahal izango du, Hezkuntza Sailak ezarritako moduan.

### Errefortzuko irakasleak eta saioak antolatzeak

Errefortzua irakasle espezifikoek emango dute, jardunaldi partzialarekin (1/3 lanaldi irakasle bakoitzeko), eta ordezkapen-zerrendetatik edo ikastetxeko langileek osatu ahal izango dute. Irakasle horiek ez dira ikastetxeko zeregin orokorrak egiteko sartzen, baizik eta ordutegi propioa dute errefortzu-saioak egiteko, tutoreekin koordinatzeko eta esku-hartzea prestatzeko.

Irakasle horien asteko ordutegiak honako hauek barne hartzen ditu:

1. **Astean 60 minutuko** 5 errefortzu-saio, bi talderekin (bata astean bi egunetako maiztasunarekin eta bestea hirukoarekin).
2. **2 kodozentzia-saio astean** gela arruntan, jatorrizko taldeetako tutorearekin batera.
3. **Barne-koordinaziorako asteko saio bat**.
4. **Hamabostean behin, Berritzegune Nagusiko aholkulariekin koordinatzeko saio bat**.
5. **Esku-hartzea prestatzeko** eta egindakoa erregistratzeko banakako **lan-saio 1**.

Gainera, errefortzuan inplikaturako talde edota taldeen irakasle tutoreek **gutxienez hilean behin** parte hartuko dute **errefortzu-saio batean**, behatzaile aktibo gisa, **errefortzuaren eremuaren eta ikasgela arruntaren artean praktika eraginkorren transferentzia** sustatzeko.



## Hasierako prestakuntza eta koordinazio pedagogikoa

Ikasleekin indartze-saioak hasi aurretik (azaroa), Hezkuntza Sailak **derrigorrezko hasierako prestakuntza** antolatuko du, bai errefortzuko irakasleei, bai **inplikaturako mailetako tutore bati** (Lehen Hezkuntzako 3. eta/edo 4.a, esleitutako konpetentzia edo konpetentzien arabera).

Prestakuntza hori praktikoa izango da nagusiki, eta honako hauek izango ditu ardatz:

- irakurketa eta/ edo matematika irakasteko estrategia espezifikoak,
- metodologia aktiboak, inklusiboak eta motibatzaileak,
- baliabide digitalen eta manipulatioen erabilera,
- eta ikasleen prestakuntza-jarraipena egiteko tresnak.

Irakasle tutoreen parte-hartzeak ez du izaera informatibo edo osagarri soil. Tutore hori, ikastaldeko irakasle-taldeko kide dena, **prestakuntzaren eta ikasgelan eguneroko praktikaren arteko zubi gisa jardutea** bilatzen da, hasierako prestakuntzan landutako estrategiak **maila edo zikloko gainerako tutoreengana iristen** lagunduz. Horrela, ikasitakoa ez da errefortzuaren eremuan geratzen, baizik **eta irakasle-talde osoan partekatzen, egokitzen eta aplikatzen** da, koherentzia metodologiko handiagoa eta ikasleengan eragin handiagoa ahalbidetuz.

Horrela, errefortzua ez da esku-hartze isolatutzat ulertzen, baizik eta **ikasgela arruntean hobekuntza metodologikoaren katalizatzaile** gisa. Integrazio hori errazteko, **asteroko irakaskuntza-koordinazioa** ere aurreikusten du neurriak, errefortzuko irakasleen eta inplikaturako taldeetako tutoreen artean. Koordinazio horrek helburu bikoitza du:

1. **Ikasle parte-hartzaileen aurrerapenarekin batera**, hautematen diren aurrerapen, zailtasun eta beharrei buruzko informazioa partekatzea.
2. **Errefortzuaren eta ikasgela arruntaren arteko praktika pedagogikoak bateratzea eta lerrokatzea**, errefortzuan landutako ikuspegiak eta estrategiak pixkanaka talde-klase osora hedatu ahal izateko.

## Neurria onartzea: deliberazio partekatua eta hezkuntza komunitatearekiko komunikazioa

Indartuz neurria inplementatzeko erabakia ezin da ikastetxeko zuzendaritza-taldeari bakarrik egokitu. Bere dimentsio pedagogikoa, antolaketakoa eta komunitarioa dela eta, eztabaida eta onarpen prozesu partekatua behar du, ezagutza, konpromisoa eta ikastetxearen koherentzia bermatuko duena.

Zentzu horretan, honako **prozedura** hau ezartzen da:

### 1. Eztabaida irakasleen klaustroan:

Erabaki formala hartu aurretik, zuzendaritza-taldeak neurriaren ezaugarriak, esleitutako konpetentziak, aurrez emandako ordu-kreditua eta ikastetxearen dinamikan izan dezakeen kokagunea aurkeztu beharko dizkio klaustroari. Helburua **neurriaren zentzu pedagogikoa partekatzea** eta bideragarritasuna elkarrekin baloratzea da.



## 2. Eskola Kontseiluan eztabaidatzea eta onartzea:

Proposamena, klaustroarekin kontrastatua, **Eskola Kontseiluan aurkeztu, eztabaidatu eta onartu** beharko da, eta aktan jaso beharko da, bere **justifikazio pedagogikoarekin** batera. Erabaki hori Hezkuntza Sailari jakinarazi beharko zaio formalki, eta erabakia aldekoa bada, ikastetxean neurria koordinatzeko izendatutako pertsonaren datuekin batera.

## 3. Familiei komunikazio argia eta zuzena:

Hezkuntza-komunitateari jakinarazi beharko diote ikastetxea aurre-hautatua izan dela Indartuz neurrian parte hartzeko, zertan datzan, nori zuzendua dagoen eta zein helburu lortu nahi dituen azalduz. Jakinarazpen hori **modu irisgarrian eta hurbilean** egin beharko da, kanal presentzialak edo sinkronikoak erabiliz, ahal denean (ziklo-bilerak, informazio-saioak, tutoreekin topaketak...), eta ez da posta elektroniko bat bidaltzea solik mugatuko.

Garrantzitsua da **familia guztiek neurria ezagutzea**, nahiz eta seme-alabek ez duten zuzenean parte hartzen, estigmatizazioak saihesteko eta ikuspegi inklusiboa indartzeko: errefortzua ez da etiketa bat, aukera bat baizik.

## 4. Ikasle parte-hartzaileen familiekiko informazio eta konpromiso espezifikoak:

Ikasleak hautatu ondoren, beharrezkoa izango da **familiekin banan-banan bilerak egitea**, errefortzuaren antolaketa azalduz eta **parte hartzeko konpromiso aktiboa** eskatuz. Jarraibideek jasotzen duten bezala, ez da nahikoa baimen formala lortzea: funtsezkoa da **konfiantza sortzea, zalantzak argitzea eta benetako inplikazioa sortzea**.

## 5. Ikasleekin lan egitea estigmak desaktibatzeak:

Ikastetxeak, halaber, ikasle guztiei aurkeztu beharko die errefortzua modu konstruktiboan, eta agerian utzi beharko **du guztiok erritmo desberdinekin ikasten dugula** eta laguntza jasotzea ez dela porrotaren seinale, hezkuntza-prozesuaren zati normala baizik. Neurria ekintza positibo gisa bizi behar da, eta ez gainerakoek "laguntza behar dutenak" bereiziko dituen hesi sinboliko gisa.

## Elkarrekiko konpromisoak

Indartuz neurrian parte hartzeak hainbat konpromiso operatibo eta pedagogiko eskatzen ditu, bai ikastetxearen aldetik, bai Hezkuntza Sailaren aldetik. Neurriaren koherentzia, ekitatea eta eragina bermatzeko ezinbesteko baldintza da konpromisoak betetzea.

### Ikastetxearen konpromisoak

Neurria onartuz gero, ikastetxeak konpromisoa hartzen du:

- **Neurriaren arduradun bat izendatzea**, Hezkuntza Sailarekin solaskide nagusi gisa jardungo duena. Pertsona hori, ahal dela, zuzendaritza-taldeko kide bat izango da edo BeA figura.



- Inplikaturako mailako ikasle guztiei hasierako ebaluazio diagnostikoa egitea, errefortzuaren hartzailerak zehatz-mehatz identifikatzeko:
    - Irakurtzeko **konpetentziari dagokionez**, Lehen Hezkuntzako 3.mailako **ikasle guztiek** Indartuz 3 **proba** egin beharko dute Sailak adierazitako hizkuntzan edo hizkuntzetan (euskara eta/edo gaztelania).
      - *Salbuespena*: Ikastetxeak aurreko ikasturtean ITT proba aplikatu badu, **ez da** beharrezkoa izango hasierako proba diagnostikoa irakurketan errepikatzea.
    - **Matematikarako konpetentziaren kasuan**, Lehen Hezkuntzako **4.mailako ikasle guztiek** Indartuz 4 **proba** egin beharko dute, zenbakizko ulermena, kalkulua, arazoiketa logikoa eta problemak ebazteko diseinatua.
- Bi proba horiek banaka aplikatu dira, **eta emaitzak erregistratzeko** euskarri digitala **izango dute**. Aplikazio informatikotik bertatik, automatikoki sortuko da **errefortzuan parte har dezaketen ikasleen lehen zerrenda** bat, eta irakasle-taldeak hautaketa kualitatiboa egiteko oinarri gisa balioko du.
- **Ikasle parte-hartzaileak hautatzea**, proba diagnostikoen emaitzak irakasleen oharrekin, ekitate-irizpideekin, familia-informazioarekin eta beste faktore pedagogiko garrantzitsu batzuekin konbinatuz.
  - **Neurria behar bezala antolatzea**, talde murriztuak osatuz (5 eta 10 ikasle artean), ordutegiak egituratuz, espazioak egokituz eta irakasleek beren lana jarraitutasunez eta egonkortasunez garatu ahal izateko baldintzak erraztuz.
  - **Irakasle tutoreen inplikazio aktiboa bermatzea**, barne:
    - kodozentzia errefortzuko irakasleekin (astean bi saio),
    - **hileroko parte-hartzea errefortzu-saio batean**, behatzaile gisa,
    - eta **Sailak antolatutako hasierako prestakuntzara joatea** (gutxienez maila bakoitzeko tutore bat).
  - **Irakaskuntza-koordinazio sistematikoa ezartzea**, tutoreen eta indartze-irakasleen arteko asteroko bileren bidez, ikasleen jarraipena egiteko, metodologia doitzeko eta gela arrunteko irakaskuntza arteko koherentziarako.
  - **Familiei behar bezala informatzea**, bai maila orokorrean, bai berariaz:
    - Hezkuntza-komunitate osoari jakinaraziz zertan datzan *Indartuz neurria*, estigmak saihesteko eta **ikuspegi inklusiboa sustatzeko**.
    - Ikasle parte-hartzaileen familiekin aurrez aurreko bilerak eginez, neurria azaltzeko, zalantzak argitzeko eta ikaslea errefortzu-saioetara joango dela bermatzeko konpromisoa eskatzeko, bai eta, ahal duten neurrian, prozesuan zehar etxean laguntza eta akonpainamendua emateko konpromisoa eskatzeko ere..
  - **Jarraipen zorrotza egitea**, ikasle bakoitzaren asistentzia, aurrerapena eta inplikazioa erregistratuz, eta bitarteko txostenak (martxo) eta amaiera (ekaina) landuz, Sailak emandako ereduaren arabera.
  - **Neurriaren ebaluazio instituzionalean parte hartzea**, hezkuntza-politika publiko gisa sendotzen lagunduko duten esperientziak, zailtasunak eta hobekuntza-proposamenak partekatuz.





### Hezkuntza Sailaren konpromisoak

Bestalde, Hezkuntza Sailak konpromisoa hartu du:

- **Beharrezko ordutegi-baliabideak eta errefortzu-irakasleak** esleitzea, azkenean ikastetxe bakoitzean eratzen diren errefortzu-taldeak kopuruaren arabera.
- **Hasierako ebaluazio diagnostikorako tresnak** ematea, bai eta horiek aplikatzeko, datuak erregistratzeko eta aurre-hautapen automatizaturako behar den euskarri digitala ere.
- **Hasierako prestakuntza eta etengabeko laguntza antolatzea**, bai irakurketan, bai matematikan, orientazio metodologiko komuna bermatuz.
- **Baliabide pedagogikoak eta jardunbide egokien adibideak eskura jartzea**, lankidetzat-laneko ingurune birtual batean.
- **Ikastetxeetara bisitak egitea**, atzera-elikadura pertsonalizatua eskainiz eta neurria hobetzeko informazio garrantzitsua bilduz.
- **Indartuz neurriaren eragina modu sistematikoan ebaluatzea**, adierazle komunak eta tresna partekatutak erabiliz, programa ekitate-tresna gisa sendotzeko eta errendimendua hobetzeko.

### Indartuz neurriaren kronograma orientagarria (2025-2026 ikasturtea)

Kronograma hau **orientagarria** da, eta ikastetxe bakoitzaren egutegi zehatzen eta 2025-2026 ikasturterako jarraibide eguneratuen behin betiko argitalpenaren arabera egokitu ahal izango da. Indartuz neurriaren plangintza, ezarpen eta ebaluaziorako aurreikusitako fase nagusien ikuspegi orokorra eskaintzea da bere helburua..

| Hilbatea                                            | Jarduera nagusiak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|-----------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ekainak-25                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurre-hautatutako ikastetxeei jakinaraztea</li> <li>• Aurrez esleitutako konpetentzien jakinarazpena eta alde zuzenetik esleitutako gehieneko ordu-kreditua</li> </ul>                                                                                                                                                   |
| Iraileko lehen astea                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurriaren aurkezpena eta bideragarritasun pedagogikoaren balorazioa</li> <li>• Irakasleen klaustroan aztertzea</li> </ul>                                                                                                                                                                                               |
| Iraileko lehen hamabostaldia                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola Kontseilua egitea onarpena baliozkotzeko</li> <li>• Neurriaren koordinatzailea formalki izendatzea (hala badagokio)</li> </ul>                                                                                                                                                                                    |
| Iraileko hirugarren astea                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza Sailari onarpenaren jakinarazpen ofiziala</li> <li>• Hasierako antolaketa-plangintza ikastetxean</li> </ul>                                                                                                                                                                                                    |
| Iraileko azken astea eta 2025eko urriko lehen astea | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Indartuz 3 (<i>irakurketa 3. mailan</i>) eta/edo Indartuz 4 (<i>matematika 4. mailan</i>) proba aplikatzea dagokion ikasle guztiei.</li> <li>• Erregistro digitala eta behin-behineko zerrenden sorrera automatikoa</li> <li>• Ikasleak behin betiko hautatzea, azterketa tekniko eta pedagogikoan onarrituta</li> </ul> |
| 2025eko urriko hirugarren astea                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inplikaturako mailako familiei komunikazio orokorra, neurria zertan datzan azalduz</li> <li>• Hautatutako ikasleen familiekin aurrez aurreko informazio-bilerak, neurria azaltzeko, zalantzak argitzeko eta haien baimen informatua eta konpromiso aktiboa eskatzeko</li> </ul>                                          |





| Hilbatea                                                    | Jarduera nagusiak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|-------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Neurrian zuzenean parte hartuko duten ikasleekin komunikazioa eta lan espezifikoak, neurriaren zentzua, helburuak eta izaera positiboa azalduz.</li> <li>Gelarekin lanketa orokorra, tutoreekin lankidetzan, estigmak prebenitzeko eta hezkuntza-errefortzuaren ulermen normalizatua sustatzeko</li> </ul>                                                                                               |
| 2025eko urriko azken astea                                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hautatutako ikasleen behin betiko zerrenda Hezkuntza Sailera bidaltzea</li> <li>Hezkuntza Sailak errefortzu-talde bideragarrien kopurua berrikustea eta ordutegi-baliabidea behin betiko esleitzea</li> <li>Irakasleen esleipen-modalitatearen negoziazioa ikastetxearekin (lanaldia handitzea edo Ordeztagunetik esleitzea)</li> <li>Hezkuntza Sailak errefortzu-irakasleen kudeaketa egitea</li> </ul> |
| 2025eko azaroko lehen astea                                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>Errefortzuko irakasleentzako derrigorrezko hasierako prestakuntza eta gutxienez maila bakoitzeko tutore bat</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| A partir de la segunda semana de noviembre 2025 – Mayo 2026 | <ul style="list-style-type: none"> <li>Errefortzu-saioen garapena (asteen 2-3 aldiz)</li> <li>Irakasle tutoreekin asteroko kondozentzia</li> <li>Inplikaturako irakasleen arteko asteroko koordinazioa</li> <li>Ikasleen banakako jarraipen pedagogiko indibidualizatua</li> </ul>                                                                                                                                                              |
| mar-2026                                                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Programa ebaluatzen bitarteko txostena egitea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| 2026ko ekaina                                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>Azken txosten indibidualak egitea</li> <li>Bilerak ikasle parte-hartzaileen familiekin</li> <li>Neurriaren ebaluazio instituzionala eta hobetzeko proposamenak jasotzea</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                       |

[↑ Aurkibidea](#)

### 3.8 ERLIJIOA

Erlijio ofizialen eskaintza nahitaezkoa da ikastetxeentzat, eta borondatezkoa ikasleentzat. Ondorioz, familiek edo legezko tutoreek irakaskuntza hori onarpen-eskaeretan jaso nahi duten ala ez adieraziko dute. Erabaki hori hurrengo ikasturterako mantenduko da, berariaz kontrakoa adierazi ezean.

Ikastetxeek hurrengo ikasturteko plangintza egin aurretik, apirilean, erlijio-irakaskuntzen eskaerari buruzko informazio eguneratua eman beharko dute onarpen- eta matrikula-aplikazioaren bidez.

Erlijio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako irakaskuntzari eta kultura-gaiei buruzko [Akordioan](#) ezarritakora egokituko da.

Beste erlijio batzuen irakaskuntza bat etorriko da Espainiako Estatuaren eta Espainiako erlijio-erakunde federazioekin ([Ebanjelikoen Federazioaren](#), [Espainiako Komunitate Juduen Federazioaren](#), [Espainiako Batzorde Islamikoaren](#)) eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakoarekin.

[↑ Aurkibidea](#)



## 4. IKASLEAK IKASKUNTZAREN, INKLUSIOAREN, BIZIKIDETZAREN ETA ONGIZATEAREN SUBJEKTU AKTIBO GISA

### 4.1. IKASLEENTZAKO HEZKUNTZA-ERANTZUNAREN PRINTZPIO OROKORRAK ETA ARAU-ESPARRUA

Ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzuna **Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren** helburuetan kokatzen da. Plan horren **6. ardatzean (Ekitatea eta Hezkuntza Inklusioa)**, ikasle guztiek aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko konpromisoa ezartzen da, eta, horretarako, ikasle guztiek parte hartuko dutela eta konpetentziak garatuko dituztela ziurtatzen da. Ardatz honek ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitutako estrategia inklusiboak hobetzea, hezkuntza-orientazioa eta tutoretza-ekintza indartzea eta kalteberatasun-egoeran dauden familien inplikazio aktiboa bultzatzen ditu. Halaber, konpetentzia profesionalak hobetzea eta tresna pedagogikoak erabiltzea sustatzen du, aniztasunari erantzun inklusiboa eta eraginkorra emateko, sare soziosanitarioarekin koordinatuta.

Ikasleei eman beharreko **hezkuntza-erantzunak eskola inklusiboaren printzipioetan eta helburuetan oinarritu** behar du. Horrek esan nahi du haur guztiek —beren aniztasunetik— beren gaitasunak eta ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko aukera izan behar dutela beren ikaskuntza-prozesuan eta ikastetxeko bizitzan aktiboki parte hartuz aukera-berdintasunean eta ongizate-baldintzetan.

Horretarako, zuzendaritza-taldeak ikasle guztien sarbidea, jarraipena eta parte-hartzea bermatu behar du, batez ere hezkuntza- eta gizarte-bazterkeria jasateko arrisku handiena dutenena. Ikastetxearen ardura da kalitatezko ingurunea eskaintzea aukera-berdintasunean oinarritua, bizikidetzak positiboa eta pertinentzia-sentimendua sustatuko dituen.

Ikastetxearen hezkuntza- eta antolaketa-plangintzak —ikasleen banaketa, taldekatzeak, laguntzen erabilera eta espazioen eta denboren kudeaketa barne— ikuspegi inklusibo horri erantzun behar dio. Taldekatze malguak diseinatu behar dira, giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala banatu, eskola-espazioak eta -denborak egokitu, eta ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte-hartze aktiboa eta esanguratsua izango dutela bermatu. Parte-hartzea, talde-lana eta proiektuen garapena funtsezko elementuak izango dira ikasleak beren ikaskuntza-prozesuaren protagonista senti daitezen bai ikasgelan, bai hezkuntza-espazio guztietan.

Ikuspegi hori ekainaren 18ko 78/2024 Dekretuan zehazten da ([78/2024 DEKRETUA, ekainaren 18koa, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuteko, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat](#)). Aurreko 118/1998 Dekretua ordeztuz, esparru berri horrek eredu sistemiko, unibertsal eta prebentiboa ezartzen du, aniztasuna hezkuntza-sistemaren osagaitzat hartzen duena eta ikasle guztientzako hezkuntza ekitatibo, pertsonalizatu eta kalitatezkoa sustatzen duena.<sup>9</sup>

---

<sup>9</sup>78/2024 [Dekretuaren bertsio nabigagarria](#) («aniztasunari erantzutea»), deretza aberasten duten intres dokumentuetarako estekak gehitzen dituen.



Dekretuak **hiru printzipio egituratzaile** ditu abiapuntu:

1. Aniztasunaren hezkuntza-balioa aitortzea.
2. Ingurune irisgarriak, inklusiboak eta seguruak diseinatzea hasieratik.
3. Hezkuntza-komunitate osoaren erantzunkidetasuna.

Esparru horren funtsezko elementuetako bat da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan **hezkuntza-orientazioko talde bat** eratzea (5.4 artikulua). Honako hauek osatuko dute taldea:

- Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasle espezialistak
- Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak (EHI)
- irakasle aholkulariak (ikastetxean barne-orientazioko eginkizunak dituztenak)
- eta, hala badagokio, ikasleen behar espezifikoak ematen zaien erantzunean esku hartzen duten beste profesional batzuk

Orientazio-taldea ikastetxearen **egitura iraunkorra** da, eta eginkizun hauek ditu:

- Neurriak eta laguntzak planifikatzeko, antolatze eta ebaluatze aholkuak ematea.
- Irakasle-taldeei laguntzea beharrak identifikatzen eta erantzun egokituak diseinatzen.
- Ikastetxeko zuzendaritzari proposatzea baliabideak banatzeko eta laguntzak antolatze.
- Kanpoko laguntza-zerbitzuekin koordinatzea eta ikasleen etengabeko jarraipenean parte hartzea.

**Ikastetxearen hezkuntza- eta antolaketa-plangintzak** –ikasleen banaketa, taldekatzeak, giza baliabideak eta laguntzak barne– koherentea izan behar du ikuspegi horrekin. Horretarako, zuzendaritza-taldeak, **orientazio-taldearekin lankidetzan, honako hauek bermatu beharko ditu:**

- Irakasle guztiek sartzen dituztela beren programazioetan aniztasunari erantzuteko esku-hartze espezifikoak.
- Neurri eta laguntza osagarriak modu koordinatuan, kooperatiboan eta testuinguru arruntaren barruan antolatzen direla.
- Profesional guztiek aktiboki parte hartzen dutela ikasleen premiak hautematen eta haiei erantzuten, Hezkuntza Sailak ezarritako protokoloak aplikatuz (adibidez, gaitasun handiko edo arreata goiztiarreko kasuetan).
- Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalean (IDU) oinarritutako metodologia inklusiboak erabiltzen direla curriculumak garatzeko erreferentzia gisa.

78/2024 Dekretuak, gainera, **bi kontzeptu osagarritan** oinarritutako esku-hartze eredu bat ezartzen du:

- Hezkuntza-arretarako **neurriak** ikastetxeek antolatzen dituzten ekintzak eta jarduketak dira, ikasteko eta parte hartzeko aukera ematera zuzenduak, ikasle guztiek aurrera egin dezaten ahalbidetzeko, ikasteko zailtasunak prebenitzeko, eta ikasleen gaitasunen eta hezkuntza-testuinguruaren arteko egokitzapena ziurtatzeko. Neurri horiek hezkuntzaren esparru guztietan dute eragina.



- **Laguntzak** baliabide pertsonalak, metodologikoak eta materialak —teknologikoak barne— dira, bai eta testuinguru-laguntzak eta laguntza komunitarioak ere, zeinak ikastetxeek erabiltzen baitituzte planifikatutako neurriak eraginkorrak eta funtzionalak izan daitezen eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta lortzen lagundu dezaten. Laguntza horiek hezkuntzaren esparru guztietan dute eragina.

Testuinguru arruntetan, ikasle guzti-guztien onurarako izan behar dute neurri eta laguntza unibertsalek, pertsonalki eta sozialki garatu daitezen eta hezkuntza-etapa bakoitzaren funtsezko konpetentzietan aurrera egin dezaten

Neurriak eta laguntzak esku-hartze progresiboko **hiru mailatan egituratzen dira**, dekretuaren 6. artikuluan definituak:

- **Ikasle guztiei zuzendutako neurri eta laguntza unibertsalak**, prebentziozkoak eta hezkuntza-prozesuaren ohiko diseinutik abiatuta.

Izaera proaktiboa eta prebentiboa dute, eta zailtasunak goiz detektatzen eta oztopoak identifikatzen laguntzen dute, testuingurua ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen dela bermatzeko. Neurri eta laguntza unibertsalek Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala izango dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ikuspegi nagusi gisa. Ikastetxeko profesional guztiek aplikatzen dituzte, zuzendaritza-taldea buru dutela, orientazio-taldearen eta hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen aholkularitzarekin eta hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioarekin eta konpromisoarekin.

- **Neurri eta laguntza osagarriak**, eskolatzearen une jakin batzuetan berariazko plangintza, iraupen mugatua eta eraginkortasunaren ebaluazioa behar duten hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleentzat.

Oztopoak gainditzeko hezkuntza-jarduerak eta -praktikak dira, neurri unibertsalak nahikoak izan ez direnean erabili beharrekoak erantzun pedagogikoa egokitzeko. Ikastetxeko profesional guztiek aplikatu behar dituzte —barnean hartuta, hala badagokio, inklusioan laguntzeko profesional espezifikoak, pedagogia terapeutikoko espezialitatea duten irakasleak eta entzumen eta hizkuntzako espezialitatea duten irakasleak—, irakasle tutoreak buru dituztela, hezkuntza-orientazioko taldearekin koordinatuta eta familiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. Hala badagokio, neurri hauek aplikatzeko, hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen eta hezkuntza-ikuskaritzaren laguntza izango da.

- **Neurri eta laguntza intentsiboak**, erantzun doituagoa, jarraituagoa eta esku-hartze espezializatuagoa behar duten ikasleentzat.

Oztopoak gainditzeko hezkuntza-jarduerak eta -praktikak dira, neurri eta laguntza unibertsalak eta osagarriak nahikoak ez direnean erantzun pedagogikoa egokitzeko erabili beharrekoak, eta irakasle guztiek eta inklusioan laguntzeko profesional espezifikoek aplikatu behar dituzte, irakasle tutoreak buru direla, hezkuntza-orientazioko taldearen aholkularitzarekin eta familiaren parte-hartzearekin eta inplikazioarekin. Hala badagokio, neurri hauek aplikatzeko, hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen eta hezkuntza-ikuskaritzaren laguntza izango da.

Dekretuaren 7. artikulua ezartzen duenez, neurri eta laguntza guztiak irakasle-taldeak planifikatu beharko ditu, orientazio-taldearen laguntzarekin, eta ikastetxeko dokumentu instituzionaletan



integratu: Hezkuntza Proiektuan (IHP), Ikastetxearen Urteko Planean (IUP), Aniztasunari Erantzuteko Planean eta Tutoretza Planean, besteak beste.

Era berean, 8. artikulua **esku-hartze goiztiarraren garrantzia** indartzen du, eta Haur Hezkuntzatik ikasleen garapenaren behaketa sistematikoa egiteko beharra ezartzen du, ikasleen premiak garaiz identifikatzeko eta azkar jarduteko.

Azkenik, 9. artikulua **hezkuntza-jarraitutasunaren printzipioa** ezartzen du, etapen, mailen eta ikastetxeen arteko trantsizio egokiak planifikatzera behartzen duena, informazio garrantzitsuen trukea, profesionalen arteko koordinazioa eta familien parte-hartze aktiboa bermatuz.

Oro har, esparru berri horrek irakasle guztien erantzukizun partekatu gisa eta ikastetxearen proiektu pedagogikoaren funtsezko zati gisa kokatzen du aniztasunari eman beharreko erantzuna. Ez da gutxi batzuentzako arreta berezia, baizik eta eskola inklusiboaren egiturazko eredua, eguneroko hezkuntza-plangintzan, -antolaketan eta -praktikan eragin behar duena.

[↑Aurkibidea](#)

#### 4.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA ESPEZIFIKOAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEAK

Eskola inklusiboaren esparruan, ikastetxeek erantzun egokia, koordinatua eta bidezkoa bermatu behar diete **hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak (HLBP)** dituzten ikasleei. Katetoria horretan sartzen dira ikasleen ekitatea, ikaskuntza eta garapen integrala bermatzeko neurri eta laguntza espezifikoak behar dituzten egoera pertsonalak, sozialak eta eskolakoak.

Ekainaren 18ko 78/2024 Dekretuak ezartzen duen bezala, helburua da HLBPak dituzten ikasleen **presentzia, parte-hartzea, aurrerapena eta ongizatea bermatzea** hezkuntza-praktika inklusiboen bidez, haien premiak iraunkorrak edo iragankorrak izan daitezkeela eta testuinguru arruntetan landu behar direla aitortuz. Dekretuak ikuspegi hori konfiguratzten du hezkuntza-sistemako eragile guztien erantzunkidetasunetik, eta erantzun planifikatuak, lankidetzakoak eta ikasgelan zentratuak sustatzen ditu.

Besteak beste, egoera hauek hartzen dira HLBPtzat:

- desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala
- jokabidearen nahasmendu larriak
- Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larriak
- heldze-atzerapena
- arreta-defizitaren edo ikasteko zailtasun espezifikoaren nahasmendua
- adimen-gaitasun handiak
- ikaskuntza-hizkuntzaren ezjakintasun larria
- hezkuntza-sisteman berandu sartu izana
- gizarte- eta hezkuntza-arloko kalteberatasun-egoerak
- baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historia konplexua



Neurri eta laguntza unibertsalez baliatzeaz gain, baliteke ikasle horiek **neurri eta laguntza osagarriak eta/edo intentsiboak behar izatea**, haien ezaugarrien eta bilakaeraren arabera. Horiek ikastetxeko hezkuntza-orientazioko taldearen laguntzarekin planifikatu eta ebaluatu beharko dira, honako hauekin koordinatuta:

- irakasle tutoreak eta irakasle-taldeak
- familiak
- eta, hala badagokio, hezkuntzari laguntzeko kanpoko zerbitzuak edo gizarte- eta osasun-eremukoak

**Hezkuntza-erantzunak testuinguru inklusiboetako esku-hartzea lehenetsi** behar du, segregazioa saihestuz eta gaitasun pertsonal, sozial eta akademikoen garapena sustatuz. Horretarako, ikastetxeek hau egin beharko dute:

- Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalean (IDU) oinarritutako metodologia inklusiboak aplikatu.
- Arrazoizko doikuntzak egin egoera zehatz bakoitzaren arabera.
- Inplikaturako profesional guztien arteko koherentzia eta koordinazioa bermatu.
- Ezarritako tresnetan hartutako neurriak erregistratu eta dokumentatu: Aniztasunari Erantzuteko Planean, Ikastetxearen Urteko Planean, Tutoretza Ekintzako Planean, Jarduera Plan Pertsonalizatuetan eta, hala dagokionean, curriculum-egokitzapen esanguratsuetan.

Era berean, 78/2024 Dekretua [giza baliabide espezifikokoak esleitzeko prozedurari buruzko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren jarraibideekin \(2019\)](#) osatzen da. Jarraibide horiek irizpide operatiboak ematen dituzte baliabide arruntak eta apartekoak eraginkortasunez antolatzeko eta erabiltzeko. Jarraibide horiek honako hauek azpimarratzen dituzte:

- Laguntzak ikasgelatik antolatu beharra, ikuspegi bereizleak saihestuz.
- **Irakasle guztien erantzunkidetasuna** HLBPak dituzten ikasleen arretan.
- **Laguntzaren intentsitatea ez lotzea zuzenean ordu kopuru batekin**, baizik eta autonomiaren, ikaskuntzaren eta komunikazioaren arloetako balorazio funtzional batekin.
- Baliabide pertsonalen berrikuspenera salbuespenezko kasuetan soilik eskatzeko aukera (adibidez, laguntza-premia handia duten ikasle berriak).
- Ikastetxearen betebeharra **antolakuntzan eta ordutegietan beharrezkoak diren egokitzapenak aurreikustean**, baita aldez aurreko balorazio psikopedagogikorik gabe ere, neurriak bere eskumen-eremuaren barruan daudenean.

Esparru horretan, HLBPak dituzten ikasleak logika inklusibo eta eraldatzaile batetik artatu behar dira, eta logika hori ez da soilik baliabide gehigarrien horniduran oinarritzen, baizik eta irakaskuntza-praktiken etengabeko hobekuntza bultzatuko duen **lankidetzako plangintza pedagogikoan, malguan eta proaktiboan**.

Hurrengo azpiataletan, premien tipologia desberdinei hezkuntza-arreta emateko orientabide espezifikokoak garatzen dira.



#### 4.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak

Ikastetxeetako zuzendaritzek ikasleen absentismoari buruzko informazioa jakinarazi behar diote Hezkuntza Ikuskaritzari aplikazio informatikoaren bidez, zirkularrean ezartzen den bezala.

[↑ Aurkibidea](#)

#### 4.6. IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

Ebaluazioa kudeatzeko orduan, erreferenteak izango dira:

- [AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntza sailburuarena, Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igotzea eta, hala badagokio, titulazioa arautzen dituen](#).
- [EBAZPENA, 2024ko urriaren 11koa, Ikastetxe- eta Plangintza-zuzendariarena, EAEko Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko etapak ebaluatzeko dokumentu ofizialen ereduak ezartzen dituen](#).

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioarekin, promozioarekin eta titulazioarekin lotutako dokumentazio akademiko guztia (aktak, banakako txostenak, historia akademikoak, etab.) eguneratuta eta eskuragarri dago Hezkuntza Sailaren orrialde ofizialean, "Hezkuntzako Ikuskaritza" arloan, "Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen berariazko gaiak" atalean → "Dokumentazio akademikoa" atalean.

 <https://www.euskadi.eus/informazioa/haur-eta-lehen-hezkuntzako-ikastetxeen-berariazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>

Orri horrek indarrean dauden eredu ofizialak, araudi aplikagarria eta betetzeko inprimaki editagarriak jasotzen ditu.

[↑ Aurkibidea](#)



## 5. IRAKASLEAK HEZKUNTZA-ALDAKETAREN ERAGILE

Irakasleen gaitasun-profila [77/2023 Dekretuaren](#) 20. artikuluan eta [75/2023 Dekretuaren](#) 17. artikuluan dago jasota. Gainera, atal honetarako, honako hauetan aurreikusitakoa hartuko da kontuan: [Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea](#); [LOEren 91. artikulua](#); eta [Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua](#) (bereziki funtzionarioen eskubideei eta betebeharrei, hutsegiteei eta zehapenei, kode deontologikoari eta abarri dagokienez), bai eta indarrean dauden lan-akordioak eta -hitzarmenak ere.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.1. IRAKASLEEN ANTOLAMENDUA

#### 5.1.1. Irakaskuntza-jardueraren antolamendua

Zuzendaritza-taldeari dagokio irakasle-taldeak antolatzea eta, ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasleei ikastetxeko unitateak esleitzeko irizpideak erabakitzea.

Ikasturtea hasi aurretik, zuzendaritza-taldeak irakasleak esleitzeko dizkie, mailei, zikloei, arloei, tutoretzei eta ikasle-taldee, talde horien ezaugarriak eta irakasleen gaitasunak kontuan hartuta. Kontuan hartu beharreko irizpideen artean, behin betiko destinoko esleipena erraztuko da zailtasun handiena duten edo irakasle-taldearen egonkortasuna behar duten taldeetan.

#### Ikastetxearen ordutegia onartzea eta jendaurrean jartzea

Irakasleek nahitaez bete behar dute ikasketaburutzak egindako eta zuzendariak onartutako ordutegia. Horri buruzko edozein erreklamazio Lurralde Ordezkaritzak ebatziko du, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena egin ondoren.

Zuzendaritzako kideen, irakasleen eta hezkuntzako profesionalen ordutegiak ikusteko moduko leku batean egongo dira, eskola-komunitateko kide guztiek horren berri izan dezaten eta honako puntu hauei buruzko informazioa jaso dezaten: gurasoei zuzendutako tutoretzen ordutegia, zaintzak, tokiko batzordeetan eta eskualdeko prestakuntza-mintegietan parte hartzea, etab.

[↑Aurkibidea](#)

#### 5.1.2- Urteko lanaldia

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen **urteko lanaldia 1.462 ordukoa** izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren arabera. **Lanaldi hori 2025eko irailaren 1etik 2026ko uztailaren 31ra bitartean egiten da**, eta **bi modalitateen arabera antolatzen da: ikastetxean egon ohi diren orduak eta nahitaez egon behar ez duten orduak**.



### a) Ikastetxean egon ohi diren egunen eta orduen zenbaketa

Irakasleek aldi horretan garatuko dute beren lanbide-jarduera, eta **186 lanegunetan** egon beharko dute ikastetxean. Zenbaketa horrek osagai hauek ditu:

- Ikasleak dituzten eskola-egunak: **2025eko irailaren 5etik 2026ko ekainaren 19ra** bitartean egon beharko dute, eta zuzeneko irakaskuntzako **175 egun eta 875 ordu** bermatuko dira gutxienez, [2008ko martxoaren 10eko Aginduan](#) xedatutakoaren arabera.
- Irakasleek ikastetxera joan behar duten egun gehigarriak, nahiz eta ikaslerik ez egon, zehazki:
  - **Eskolak hasi aurretik, irailaren 1etik 4ra gutxienez**, ikasturtearen hasiera planifikatu eta antolatzeko.
  - Eskolak **amaitu ondoren, ekainaren 30era arte**, azken ebaluazioa egiteko, ikastaroa administratiboki ixteko eta urteko memoria egiteko. Epe horren iraupena ikastetxe bakoitzaren eskola-itxieraren dataren arabera izango da, eta gehienez 7 lanegunekoa izango da.

Zenbaketa horretatik aurrera, irakasleek astean **30 orduko benetako lanaldia bete beharko dute ikastetxean**, hau da, urtean 1.116 ordu, gutxi gorabehera.

### b) Ikastetxean egon ohi ez diren orduak: kalkulua eta kudeaketa

Urteko gainerako lanaldia (**346 ordu inguru**) derrigorrezko ordutegi presentzialetik kanpo egiten da, eta irakaskuntzaren berezko zeregin profesionaletara bideratu behar da, besteak beste:

- **Eskolak prestatzea**, programazio didaktikoak egitea, ikasegoerak...
- **Ariketak, lanak eta probak zuzentzea.**
- **Material didaktikoak berrikustea eta egokitzea.**
- **Banakako txostenak** eta ikasleen ebaluazioarekin lotutako beste dokumentu batzuk egitea.
- **Ikasleen hezkuntza-premia zehatzen jarraipena egitea**, hala nola zereginak egokitzea, banakako planak berrikustea edo laguntza espezifikoa prestatzea.
- borondatezko etengabeko prestakuntza, dela ikastaroen bidez, dela irakurketa profesionalen bidez, dela jardunbide egokiak behatuz, dela bestelako bitartekoen bidez.
- ...

Ikastetxean emandako ordutegitik kanpo egiten badira ere, zeregin horiek irakaste-lanaren zati dira, eta bete beharrekoak, kalitatezko irakaskuntza eta plangintza zorrotza bermatzen baitute. Haien antolaketa irakasle bakoitzari dagokio, bere erantzukizun profesionalaren esparruan.

Ildo horretan, **komeni da gogoraraztea uztaila ez dela oporralditzat hartzen**. Lan-hilabetea da, eta bertan karrerako funtzionarioek eta kontratua indarrean duten bitartekoek administrazioaren aginduetara egon behar dute. Denbora horretan, prestakuntza egiteko, matrikulazio-lanetan laguntzeko, hautaketa-epaimahaietan parte hartzeko, ikastetxeko bileretara joateko edo ikasturte berria prestatzeko jarduerak egiteko eska dakioke, baldin eta



jarduera horiek ikastetxearen urteko planean aurreikusita badaude. Jarduera horiek uztailearen 15a baino lehen zehaztu beharko dira, epaimahaietan parte hartzea izan ezik.

### c) Presentzia-orduak: eskola-orduen eta eskolaz kanpoko orduen arteko banaketa

Ikastetxean astean 30 ordu eman behar direnean, honako hauek bereizten dira:

- **22 eskola-ordura arte, honako hauetarako:**
  - Curriculumaz zuzenean emateko
  - Tutoretza egiteko ikasleekin.
  - Hezkuntza indartzeko jardueretarako.
  - Jolasaldietan ikasleen gainbegiratze aktiborako (ikus beherago).
- **Irakastorduetatik kanpoko 8 ordu, helburu hauetarako:**
  - Irakasleak, zikloak eta taldeak koordinatzeko bilerak egiteko.
  - Familientzako arreta egiteko.
  - Etengabeko ebaluaziora, plangintzara eta prestakuntzara bideratzeko.
  - Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuko kide anitzeko organoetan eta proiektuetan parte hartzeko.
  - ...

### d) Hezkuntza-arreta jolasaldian

**Jolasaldian**, ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du ikasleen oinarritzko zeharkako konpetentziak garatzera bideratutako jolasen eta beste jarduera batzuen plangintzarekin lotutako arreta, eta jolastokietan eta ikastetxeko beste egonaldi batzuetan dauden ikasle guztien zaintza aktiboa bermatzeko behar den irakasle-kopurua esleitu zaio zeregin horri.

Jolasaldian ikasleei ematen zaien arreta eskola-ordutegiaren barruan dago, betiere baldintza hauek zorrotz beteta:

- **Irakasle jakina asteko ordutegian arreta horren arduradun gisa** agertzea, eta arreta hori benetan ematea esleitutako denboran.
- **Hezkuntza-arreta gutxienez 30 minutuko atsedenaldirik efektiboan** ematea, bai aldi bakarrean, bai gutxienez 15 minutuko bi aldi metatuz aste berean.

Jolasdenbora hori **balio hezitzailea duen espazio gisa** ulertu behar da, ikasleen bizikidetzaren, autonomia eta parte-hartzea garatzera bideratua, eta **garapen sozioemotionalerako, bizikidetzaren positiborako eta jazarpenaren prebentziorako agertoki pribilegiatu gisa**. Beraz, ez da zaintza pasiboko lana soilik, **esku-hartze profesional aktiboa, antolatua eta helburu pedagogikoa** duena baizik. Ildo horretan, aisialdiak eskatzen du presentzia arretatsua, gatazketarako bitartekotzarako prestasuna eta ikasleen ongizatea eta segurtasuna zaintzea.

**Ikastetxe bakoitzak jolasaladia antolatzeko protokolo espezifiko bat izan behar du, Ikastetxearen Urteko Planaren (IUP) irakaskuntza-jardueren programan txertatua, eta hezkuntza-arretaren, bizikidetzaren eta ongizatearen sistema orokorraren parte da.** Protokolo horren helburua da aisialdia hezkuntza-espazio planifikatua, inklusiboa eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren balioekin koherentea dela bermatzea.



### e) Oporraldia

Irakasle funtzionarioek **hogeita bi egun** balioduneko **oporraldi ordaindua** hartzeko eskubidea izango dute. Denboraldi hori **zerbitzuak eman diren ikasturte bakoitzeko** aplikatuko da. Lan egindako egunek ikasturte osoa hartzen ez badute, ordaindutako oporrak **lan egindako denboraren proportzioan** zehaztuko dira. Ondorio horietarako, **larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko**.

Oporraldi hori **urte bakoitzeko abuztuan** hartuko da. Funtzionarioak **aldi baterako ezintasun-egoeran edo antzeko egoeran** egoteagatik hilabete horretan hartu ez diren oporrak **etenik gabe hartuko dira** egoera hori amaitu eta berehala, dagozkion egunetan.

Nolanahi ere, oporrak hartzeko eskubidea baliatzeko, abuztuko opor-egunak zenbatu behar ziren egunetik gehienez ere **hemezortzi (18) hilabeteko epea** izango da. Epe hori igaro ondoren, **eskubide hori iraungitzat** joko da.

[↑Aurkibidea](#)

#### 5.1.3. Hezkuntza-laguntza

**Ikastetxearen Aniztasunari Erantzuteko Planak** (IPAn jasota egongo da) **zeregin horretarako erabiliko den ordu-kreditua adieraziko du**, bai eta aniztasun horri ikuspegi inklusibotik erantzuteko ekintzarik eta estrategiarik egokienak zein diren ere, adibidez:

- Jarduera-talde batean irakasle bat baino gehiago egotea.
- Zikloan gora egin eta aurreko zikloko konpetentzietako batzuk eskuratu ez dituzten ikasleei erantzutea.
- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen ohiko eskola-ordutegitik kanpoko hezkuntza indartzea.
- Taldeen banaketa egitea zenbait gaitan.
- Etxeko irakaskuntza behar duten ikasleentzako arreta pedagogikoa ematea. Ezarritako koordinazioa.
- Ordu-kreditua aldatzeko aukera izatea, ikasturtean zehar eskolatze berrien ondorioz sortzen diren premiei erantzuteko.

[↑Aurkibidea](#)

#### 5.1.4. Lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa familia eta lana bateragarri egiteko eskatu denean, ikastetxeetako zuzendaritzek ahal den guztia egingo dute interesdunaren ordutegia eskatutako kontziliaziora egokitzeko, betiere horrek ikasleen arretan eragin negatiborik ez badu.

##### Lanaldi erdiko murrizketa

Benetako lanaldia erdira murrizten den kasuetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek astean 15 orduko dedikazio zuzeneko lanaldia izango dute ikastetxean. Horietatik, astean 11 ordu





irakastorduak izango dira, eta gutxienez 2 ordu emango dira ikastetxean egunero, eta gutxienez astean 4 egunetan.

Asteko gainerako orduak, ikastetxean eman beharrekoak ez direnak, irakaskuntza-jarduerak prestatzera, azterketak zuzentzera, irakasleen lanbide-hobekuntzara eta irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuetara bideratuko dira.

### Lanaldiaren herena murriztea

Benetako lanaldiaren herena murrizten den kasuetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek astean 20 orduko dedikazio zuzeneko lanaldia izango dute ikastetxean. Horietatik, astean 15 ordu irakastorduak izango dira, eta asteko egun guztien artean banatuko dira (astelehenetik ostiralera); egunero, gutxienez 2 ordu emango dira ikastetxean.

Asteko gainerako orduak, ikastetxeari zuzenean eskaintzen ez zaizkionak, irakaskuntza-jarduerak prestatzera, azterketak zuzentzera, irakasleen lanbide-hobekuntzara eta irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuetara bideratuko dira.

### Irakasleen ordutegia, lanaldiaren herenarekin

Irakasle horien ordutegia astean 10 ordukoa izango da, eta horietatik 7 irakastorduak izango dira. Ordutegi horrek irakasle titularren ordutegia osatu beharko du, ikasleen arreta bermatuta gera dadin.

### Irakasleen ordutegia, lanaldiaren 5/6arekin

Lanaldiaren 5/6arekin kontratatuta dauden irakasleen asteko dedikazio zuzena 25 ordukoa izango da, eta horietatik 18 irakastorduak izango dira. Ordutegi horrek ikastetxeko beharrian pedagogiko eta antolakuntzakoetara egokituta geratuko da, eta, behar izanez gero, beste irakasle batzuekin koordinatuko da, ikasleen arreta eta curriculumaren garapena bermatzeko.

### Osasun-arazo larriengatik edo adinagatik lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak dituzten irakasleek, lanaldiaren herena murriztuta badute, astean 7 ordu murriztu ahal izango dituzte zuzeneko irakaskuntza-orduak. Murrizketa horrek ez du esan nahi ikastetxean egoteko ordutegia murriztuko denik.

Murrizketa-ordu horiek zeregin hauetarako erabili beharko ditu: liburutegiari arreta emateko, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzen laguntzeko, hezkuntza-arretako zereginetarako, guardietarako eta ikastetxeko zuzendaritzak agintzen dizkion antzeko beste lan batzuetarako. Jarduera horietan emandako orduak ordutegi pertsonalean jasoko dira.

### Gaixotasun kronikoa duten senitartekoak zaintzeko baimena duten irakasleak

Indarrean dagoen Aurre-akordio arautzailean jasotakoaren arabera (44. artikulua), **mugitzeko arazoak edo gaixotasun larri jarraitua** dituzten senideak zaintzeko baimena eska dezakete karrerako funtzionarioek, praktikaldikoek edo ikasturte amaierara arteko izendapena duten bitartekoek. Baimen hau **2. mailako odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideei** aplikatuko zaie, eta, **elkarbizitza egiaztatzen bada, maila urrunagoko senideei** ere bai, salbuespenez.



Baimen horrek **50 orduko gehieneko iraupena** izango du ikasturte bakoitzean, eta **ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta** baliatu beharko da, eskatzaileak ematen duen zerbitzuaren beharrak beteta gera daitezen, eta antolakuntza eta koherentzia pedagogikoa bermatuta.

Irakasleen ordutegiak egitean, ikasleei zuzenean eskaini gabeko orduak banatzeko, kontuan hartuko dira baimen hori duten pertsonen adierazitako premiak. Baimen honek ez du esan nahi aurretik ezarritako ordutegia aldatzeko eskubidea dagoenik.

**Salbuespen gisa**, urteko 50 orduak **egun osotan metatuz** baliatu ahal izango dira, **betiere behar hori egiaztatzen bada eta ikastetxeko zuzendaritzaren onespena badu**. Kasu horietan, **kontingentzia-ordezkapena** eska daiteke. Eskabidea justifikazio-medikoarekin eta familiako lotura eta bizikidetzaren egiaztatzen duten dokumentuekin aurkeztu beharko da.

Eskatzailea eta ikastetxeko zuzendaritza ez badatoz bat **baimena** hartzeko erabakiarekin, eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren ebazpenarekin, **lurralde-ordezkaritzaren erreklamatu** ahal izango du, eta hark ebatziko du, Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

[↑ Aurkibidea](#)

#### 5.1.5. Dedikazio espezializatuko irakasleak

##### a) Irakasle ibiltariak

Irakasle ibiltariak eskolak ematen dituzten ikastetxeetako ikasketaburuek eta/edo zuzendaritzek ikastetxe bakoitzean egoteko ordutegia adostuko dute, ibiltaritzaren ezaugarriak, artatu beharreko talde- edo ikasle-kopurua eta ematen dituen arloak kontuan hartuta.

Irakasle horiek hainbat ikastetxetan banatzen dute beren jarduna, baina hezkuntza-administrazioak zehaztutako erreferentzia-ikastetxe bat dute esleitura. Lan-egutegiari dagokionez (jaiegunak, eskolaz kanpoko egunak...), irakasle ibiltariak erreferentziako ikastetxearen egutegiaren arabera arautuko dira. Aurrekoa gorabehera, eskolak ematen dituen ikastetxeetako eskola-egutegira egokitu beharko da eskola-egunak betetzeari eta irakaskuntza-plangintzari dagokienez.

##### b) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko berariazko prestakuntza duten irakasleak

###### Irakasle aholkulariak

Tutoreei eta irakasle-taldeari aholkuak eta laguntza emango dizkie ikasleen aniztasunari erantzuteko eta, zehazkiago, hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak erantzuteko. Halaber, zikloko koordinatzailearekin batera, tutoretzako plana egiteko eta garatzeko aholkuak eta laguntza emango ditu, bereziki Bizikasi ekimenari eta hezkidetzaren planari lotutako jardueretan. Gainera, ikastetxeko BAT taldeko kide aktibo gisa parte hartuko du.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dituen 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren (abuztuaren 31ko EHAA) 53. artikuluan daude jasota haren eginkizunak, eta zeregin zehatzetan kokatu beharko da haien garapena.



| Funtzioak                                                                                                                                                                        | Zereginak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| a) Tutoreari HLBP ikasleen arrakastarako estrategiak identifikatzen laguntzea.                                                                                                   | <p>Tutorearekin batera, taldearen eta ikasgelaren funtzionamenduan eragiten duten aldagaiak, zailtasunak eta hezkuntza-beharrak aztertzea eta identifikatzea.</p> <p>Irakasle-taldearekin gelako metodologia- eta antolamendu-egokitzapenak zehaztea, bai eta, hala badagokio, behar duten ikasleei banakako arreta ematea ere.</p> <p>Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea aniztasunari erantzuteko plangintzan eta antolaketan.</p> |
| b) Irakasle tutoreei aholkuak eta laguntza ematea banakako curriculum-egokitzapenak eta jarduera-plan pertsonalizatuak egiteko eta garatzeko.                                    | <p>Zuzendaritza-taldearekin batera, esku-hartzeak garatzeko baliabideen esleipena planifikatzea eta baloratzea.</p> <p>Irakasle-taldearekin eta HLBPak dituzten ikasleentzako banakako curriculum-egokitzapenak eta Jarduera Plan Pertsonalizatuak egiten, garatzen eta haien jarraipena egiten diharduten gainerako profesionalekin lankidetzan aritzea.</p>                                                                                 |
| c) Ikasgelan tutorearekin batera eta koordinatuta esku hartzea, bi profesionalek taldean edo beste irakasle batek bezala jardunez une jakin batean, taldekatze malguen egituran. | <p>Irakasleen konpetentziak hobetzea, ikasleen aniztasunari erantzuteko, ikastetxean ikasteko eta parte hartzeko oztopoak ezabatzeko ekintzak sustatuz.</p> <p>Irakasle tutoreei laguntzea ikasleen ebaluazio indibidual, interaktibo eta testuingurukoa egiten, ikasleen gaitasunetan eta beharretan oinarrituta, prozesua eta programa berriz bideratzeko.</p>                                                                              |
| d) Irakasleekin batera, aholkuak ematea eta lankidetzan aritzea hezkuntza-ebaluazioan, bai norbanakoarenean, bai hezkuntza-testuinguruarenean.                                   | <p>Irakasleekin batera, honako prozesu hauek errazten dituzten elementuak identifikatzea: irakaskuntza eta ikaskuntza, ikasgelako dinamika, curriculumaren malgutasuna, ikaskuntza autonomia, JPP, CEI...</p>                                                                                                                                                                                                                                 |
| e) Banakako esku-hartzea hezkuntza-premia berezietako ikasleekin, ohiko ingurune partekatuetan edo espezifikotetan.                                                              | <p>Zuzendaritza-taldearen eta irakasleen ekintzak, Berritzeguneko HLPB aholkulariarekin.</p> <p>Ikasleak zuzenean gela arruntean artatzea, eta oso noizean behin gela arruntetik kanpo.</p>                                                                                                                                                                                                                                                   |



|                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| f) Aniztasunari erantzuteko programak bultzatzea eta koordinatzea.                                                 | Ikastetxean, etapan edo zikloan aniztasunari erantzuteko esku-hartze orokorreko programak sustatzea eta dinamizatzea.<br><br>Zuzendaritza-taldearekin adostuta, aniztasunari ematen zaion erantzunean eta HPBko prestakuntza-programetan hastea, bultzatzea eta parte hartzea. |
| g) Koordinazioa sustatzea:<br>- familiekin<br>- Foru Aldundiarekin / Gizarte Zerbitzuekin<br>- osasun-zerbitzuekin | Ikasleen jarraipen egokirako beharrezkoa denean, ongizatea eta arrakasta akademikoa bermatzea.                                                                                                                                                                                 |

Irakasle aholkulariek hiru esku-hartze multzo handiren inguruan banatuko dute beren jarduna: ikastetxeko irakasleei aholkuak emateko esku-hartzeak, ikasleei hezkuntza-laguntza emateko ikasgelako ohiko ingurunean lankidetzan aritzeko esku-hartzeak eta hezkuntza-premiak dituzten ikasleei laguntzeko testuinguruetan banaka esku hartzeko esku-hartzeak. Azken esku-hartze horietan, gehienez ere 7 ordu emango dituzte.

Haur Hezkuntzan irakasle tutoreei aholkuak eta laguntza emango dizkie arazoak goiz detektatzeko eta esku hartzeko.

Gainera, ikasleekin eta haien familiekin esku hartzen ari diren gizarte- edo osasun-arloko eragileekin koordinatuko da. Koordinazio hori HPBen aholkularitzekin lankidetzan egingo da.

#### PT irakasleak

Haien eginkizunak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 55. artikuluan daude zehaztuta (abuztuaren 31ko EHAA). Gainerako irakasleek bezala egingo dute lanaldia, eta adierazitako funtzio guztiak betetzeko erabiliko dute ordutegia, eta lehentasuna emango diote ikasleekin esku hartzeari.

Profesional horien esku-hartzea gela arruntean egingo da, salbuespenak salbuespen. Salbuespen horiek Hezkuntza Ikuskaritzak baliozkotu beharko ditu, eta ikaslearentzako Jarduera Plan Pertsonalizatuan behar bezala justifikatuko dira. Hala ere, hezkuntza-arloko esku-hartzea gela arruntekoa ez den beste espazio batean egitea eskatzen duten inguruabarrak daudenean, esku-hartze hori ageriko espazio ireki batean egingo da.

#### Entzumen- eta hizkuntza-irakasleak

Langile horiek HPBak dituzten ikasleekin beteko dituzte beren funtzioak, ikasleek behar duten komunikazio- eta hizkuntza-esparruan hezkuntza-erantzunean esku hartzen duten gainerako profesionalekin lankidetzan, beren Jarduera Plan Pertsonalizatuaren esparruan.

Horrez gain, honako alderdi hauetan duten zeregina azpimarratu behar da:

- Hizkuntzaren eta komunikazioaren arloarekin lotutako zailtasunak prebenitzea.



- Detekzio eta esku-hartze goiztiarra.
- Irakasle-taldeari aholkuak eta laguntza ematea ikasleen komunikazio-trebetasunak hobetzeko estrategiak diseinatzen.
- Komunikazio Sistema Handigarriak eta Alternatiboak (KSHA) erabiltzeko aholkularitza, beste profesional batzuekin lankidetzan.

### Hezkuntza-premia bereziei laguntzeko profesional espezifikoak

Ikastetxeetako zuzendaritzek profesional horien guztien arteko lan koordinatua bermatu behar dute (PT irakasleak, entzumen- eta hizkuntza-irakasleak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBT-CRIetako profesionalak, gor-itsuei laguntzeko profesional bitartekariak, gorren koordinatzaileak...) plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta ikasleen jarraipenean.

Hezkuntza-laguntzako espezialistek (HLE), fisioterapiako espezialistek, okupazio-terapiako espezialistek, zeinu-hizkuntzako interpreteek (GHE) eta lan-kontratadun hezkuntza-langileen logopedek eta entzumen- eta hizkuntza-irakasleek (LHE) dagokienez, ikastetxeak kontuan hartuko ditu [Hezkuntza Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariaren jarraibideak](#) ikasturtea antolatzeko.

### c) Hizkuntza indartzeko irakasleak (HIPI) eta Eusle programako irakasleak

Irakasle horiek, behar bezala arrazoitutako salbuespenetan izan ezik, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Ikastetxean bi ikasturte baino gehiago eman izana.
- Hizkuntzen irakaskuntzan esperientzia izatea, edo harekiko jarrera positiboa izatea.

Eginkizun hauek dituzte, besteak beste:

- Hasierako ebaluazioa egitea ikasleen jatorrizko eskolatzeko-hizkuntzan (ongizate emozionala, hizkuntza eta matematika), gainerako irakasleekin koordinatuta.
- Alfabetatu gabeko edo prozesuan dauden ikasle berrien kasuan, esku-hartzea antolatzea Pedagogia Terapeutikoko irakasleekin edo ikastetxeko irakasle aholkulariekin batera.
- Hizkuntza-programazioa ikasleen beharretara egokitzea, eta A2 maila lortzera bideratzea.
- Gainerako irakasleekin koordinatzea, ikasleen jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Horretarako, zuzendaritzak koordinaziorako denbora bermatuko du, eta denbora hori DAEan islatuko da.
- Lanpostuko irakasle berriek Berritzegune Nagusiak antolatzen duen hasierako eta/edo etengabeko prestakuntzan parte hartu beharko dute.
- Harrera-planak eguneratzea eta ikastetxean haien garapena sustatzea.
- Ikastetxe berean HIPI eta EUSLE irakasleak batera badaude, koordinatu egin beharko dira hezkuntzako esku-hartzea adosteko eta metodologia bera



aplikatzeko komunikazio-ikuspegitik, eta Berritzegune Nagusiarekin lankidetzan aritu beharko dira ikasleen errendimendu akademiko eta emozionala hobetzera bideratutako esku-hartzean, materialen egokitzapenean eta beharrezko dokumentuen egokitzapenean, bai eta Dinamizatzailer Taldean parte hartu ere.

**Hizkuntza-errefortzuko irakasleek** hezkuntza-arreta zuzena eman beharko dute gela arruntan edo ikasle-taldeetan (ez banaka), ikasle bakoitzarentzat ahalik eta arreta handiena lortzen saiatuz eta astean gutxienez bost orduz.

Hizkuntza-errefortzua behar duten ikasleei eskainiko die lanaldia, eta ordu horiek ezin izango dira pertsona desberdinen artean banatu.

**EUSLE irakasleek**, aurreko eginkizunez gain, honako hauek ere beteko dituzte:

- EUSLE gelako ikasleen arreta eta beharretara dedikatzea jardunaldia, bai erreferentziazko gelan (tutorekidetza edo hezkuntza-errefortzua), bai EUSLE gelan.
- Ikastetxeko Dinamizatzailer Taldeko kide izatea.
- Programaren barruan proposatzen diren programazioa eta material didaktikoak martxan jartzea eta, hala badagokio, egokitzea, eta berriak sortzea, programaren printzipio metodologikoen arabera.
- Ikastetxean kulturarteko ikuspegia sustatzea.
- Berritzegune Nagusiarekin lankidetzan aritzea, programako ikastetxe hasiberriei lagunduz.

#### d) Erlijioiko irakasleak

Klaustroaren parte dira ondorio guztietarako, eta gainerakoen eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, indarreko legerian eta araudian ezarritako salbuespenekin eta beren kontratu-inguruabar espezifikoetatik eratorritakoekin.

Erlijioiko irakasleek irakasgaiari dagozkion orduak emango dituzte, eta, behar izanez gero, ikastetxeko zuzendaritzak esleitutako beste irakaskuntza-jarduera batzuekin osatuko dute ordutegia.

[↑ Aurkibidea](#)

## 5.2. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTE KARGU BATZUK

### 5.2.1. Zuzendaritza-taldea

Zuzendaritza-taldea honako hauek osatuko dute: zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak, eta, hala badagokio, administratzaileak.

Ebazpen honetan xedatutakoaren arabera zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketak kalkulatu ondoren nahikoa ordu dagoen ikastetxeetan, zuzendari laguntzaile bat (zuzendariordea) edo zuzendari albokoa (zuzendariordea), ikasketaburuaren albokoa edo ikasketaburuaren albokoa eta idazkariondokoa egon daitezke.

Hiru hilabetetik gorako absentzia duten zuzendaritza-taldeko kideek kargua betetzeagatiko osagarria jasotzeko utziko diote, baina administrazio-ondorioei eutsiko zaie izendapena ezeztatzen ez den bitartean.



Zuzendaritza-karguak ordeztzen dituzten pertsonak jardute horrengatiko osagarria jasoko dute, baldin eta ordezkapena hilabetetik gorakoa bada, eta lehen egunetik izango dituzte ondorio ekonomikoak. Hala ere, horrek ez du administrazio-ondorio izango dagokion izendapena egin arte.

[↑ Aurkibidea](#)

### 5.2.2. Zuzendaritzakoak ez diren beste kargu batzuk

Ikastetxeetan zuzendaritzakoak ez diren kargu hauek ere egongo dira:

- a) BeA figura eta BODI irakasleak
- b) BAT taldeko koordinatzailea
- c) Eraldatzen programaren koordinatzailea

Ikastetxeek beste koordinazio-kargu batzuk ezarri ahal izango dituzte, beren AJAn ezarritako irizpideen eta prozeduren arabera. Irakasle horien ordutegi-murrizketak zehazteko, ikastetxearen ordutegi-aukerak hartuko dira kontuan.

#### a) Berrikuntza-arduraduna (BeA) eta berrikuntzarako orduak dituzten irakasleak (BODI)

Figura horiei buruzko informazioa [Ikastetxe Publikoetako Hezkuntza Berritzeko Jarduera-Esparruan: BeA figurak \(2025-2028\)](#) dago jasota

Ikasturtean zehar, BeA figuren izendapenean egiten den edozein aldaketa aipatutako esparru horretan araututako baliozkotze-batzordeak onartu beharko du.

Zuzendari batek BeA figura aldatu behar badu ikasturtea hasi ondoren sortutako arrazoiren batengatik, dagokion eraginguneko aholkularitza-arduradunari eskatu beharko dio aldaketa hori egiteko. Aldaketa behar bezala justifikatu beharko da, eta BeA figura berri gisa proposatutako pertsonak BeA figuraren esparruan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

BeA figura batek baja bat hartzen badu ikasturtean zehar, oro har, ez da ordezkatu, bi zirkunstantzia hauetakoren bat (edo biak) gertatu ezean:

- BeA figurak irakaskuntza-dedikazio zuzeneko orduak baditu, ordu horiek ordezkotzeko pertsona batekin beteko dira, ordezkapenei buruzko araudi orokorrari jarraituz.
- BeAren batak bi hilabete edo gehiago iraungo duela aurreikusten bada, ikastetxeko zuzendariak klaustroko kide bat proposatu beharko du BeAren funtzioak betetzeko —BeA figura izateko baldintzak bete beharko ditu—. Eskaera dagokion eraginguneko aholkularitza arduradunari eta dagokion lurralde historikoko pedagogia-berrikuntzako arduradunari egingo zaie. Eskaera onartu ondoren, beharrezkoak diren izapideak egingo dira ordezkotzeko bat bidal dadin ikastetxera, eta klaustroko kideak bere gain hartuko ditu BeA figura berriaren zuzeneko irakaskuntza-dedikazioko orduak.





Prozedura hori antzera aplikatuko da BODI irakasleen kasuan.

### b) BAT taldeko koordinatzailea

BAT taldeko koordinatzailea ongizatearen eta babesaren koordinatzailea izatea lehenetsiko da. Honako eginkizun hauek beteko ditu:

- BAT taldearen koordinazio- eta lan-uneak kudeatzea, ezartzea eta dinamizatzea: deialdiak, aktak, saioen edukia...
- Jazarpen-kasuetako esku-hartzeen jarraipena egitea, eta irtenbidea aurkitzen laguntzea.
- Esku-hartzeak modu ordenatu, arin, konfidentzial eta egokian egiten direla zaintzea, bai ikasleei dagokienez, bai familiei eta irakasle-taldeari dagokienez.
- Berritzegune Nagusiak antolatutako prestakuntzan eta Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea, eta jasotako prestakuntza taldeko kideen artean partekatzen dela bermatzea. Derrigorrezkoa da ikastetxe guztien parte hartzea.

### c) Eraldatzen programaren koordinatzailea

[Eraldatzen programa](#) garatzen ari diren ikastetxeek hasitako bideari jarraituko diote. Horretarako, ikastetxeak Eraldatzen programaren koordinatzaile bat izendatuko du, ikastetxean irakasle egonkor dena.

Koordinatzaile horren eginkizunak honako hauek izango dira:

- Ikastetxean programa dinamizatzea.
- Ikastetxean definitutako talde eragilearen bilerak koordinatzea eta zuzentzea.
- Eraldatzen sarearen eta azpisareen aldizkako bileretan parte hartzea, bai eta antola litezkeen berriazko prestakuntza-saioetan ere.
- Harreman arina izatea Eraldatzen programako talde teknikoaren arduradunekin.
- Eraldatu sareak proposatzen dituen ekintzak ezartzea, ikastetxeko talde eragilearekin koordinatuta.
- Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza diseinatzen, kudeatzen eta ematen laguntzea.
- Ikastetxean ezartzen diren palankak tutorizatzea.
- Administrazioak eskatutako datuak biltzea eta ematea.
- Ikastetxeko idazkariarekin lankidetzan aritzea programa honetarako esleitutako partida ekonomikoaren kudeaketan (fakturen kontrola, ordainketen egiaztagirak...).

[↑Aurkibidea](#)



### 5.2.3. Zuzendaritza-kargudunen ordutegia

Zuzendaritzaren ordutegian aurreikusi behar da zuzendaritza-kargudunen batek egon behar duela ikastetxean Ikasleen eskola-orduetan eta irakasleak ikastetxean ematen dituzten orduetan.

Zuzendaritza-kargudunen egutegia eta ordutegia (ikastetxean nahitaez eman beharreko denbora) malgutu ahal izango dira, ikastetxearen ohiko ordutegitik eta egutegitik kanpo egindako jardueretan emandako denbora konpentsatzeko, betiere eginkizun horiek ikastetxearen Urteko Planean jasota badaude eta zuzendaritza-taldeko ordezkari bat irakaskuntza-jardueraren ordutegian egongo dela bermatzen bada, hori arautzen duen araudia beteta.

Zuzendaritzak eta ikasketaburutzak aste bakoitzeko ostegunak erreserbatuko dituzte, deitzen diren bileretara joaten direla bermatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.3. IRAKASLEAK BERTARATZEA. LANALDIA BETETZEN DELA KONTROLATZEA

"Eskola-jardueraren dokumentua (EJD) / Ordutegi-koadroak" aplikazioa erabiliko da. Horretarako, "Irakasleen absentismoa" fitxa erabiliko da. Fitxa horren barruan, honako hauek adieraziko dira: zein irakaslek egin duen huts, zein egunetan, zenbat denboraz eta zergatik.

EJDan, bat agertuko da, absentzien arrazoi GUZTIAK jasotzen dituen, eta dagokiona aukeratuko da.

Justifikaziorik gabeko absentzien kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDaren absentzien koadro zabalgarriko zerrendan, eta aplikazioak jakinarazpen bat bidaliko dio automatikoki erreferentziazko ikuskatzaileari; hark Euskal Enplegu Publikoaren Legean aurreikusitako prozedurei ekingo die. Kasu horietan, irakasleak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean, eta hark emango du azken ebazpena.

Lan-baldintzak arautzen dituen akordioan adierazitakoez bestelako arrazoiren batengatik justifikatutako absentziak gertatzen direnean, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDko absentzien koadro zabalgarriko zerrendan, eta inplikaturako irakasleak "III. Eranskina" dokumentua ("Irakasleen eta hezkuntzako lan-kontratuko langileen absentziak" atalean) bete beharko du esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-lizentziak-baimenak/web01-a3hklair/eu/>

Ikastetxeko zuzendaritzak "III. eranskina" izenpetzeak berekin ekarriko du bertan emandako azalpena bermatzen duela, eta sinesgarritasuna eta baliozkotasuna ematen dizkiola. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egon dadin.

Irakasleen absentzia guztiak behar bezala justifikatu beharko dira eta, ahal den guztietan, zuzendaritzaren aurrean agiri bidez egiaztatu beharko dira, zuzendaritzak eskatu beharrik izan gabe eta indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoaren arabera.

Absentzien egiaztagiria ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirietan, absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoa adieraziko dira. Egiaztagiria jatorrizkoak eta argiak izan beharko dute.

Aldez aurretik jakindako eta aurreikusitako absentzien kasuan, irakasleek behar besteko aurrerapenez eta idatziz jakinarazi beharko diote ikastetxeko ikasketaburutzari absentziaren eragina izango duten taldeetako ikasleek zer jarduera egin behar dituzten eta zer material eta jarraibide behar dituzten haiek ordezkaturiko dituzten hezkuntza-arretako irakasleek jarduera horiek behar bezala egin ahal izan ditzaten.



Aurreko ikasturteetan bezala, ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen absentziak erregistratu beharko ditu hurrengo hilaren 5a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egon daitezen.

Grebarik balego, ikastetxeko zuzendaritzak Ikuskaritzari jakinaraziko dio gorabehera hori eta haren datuak emango dizkio, "Eskola-jardueraren dokumentua (DAE)/Ordutegi-koadroak" aplikazioaren bidez, "Irakasleen absentismoa" fitxako "Greba-datuak" atalean. Halakoetan, ahalik eta ondoen antolatuko du irakasleen arreta eskura dituen giza baliabideekin.

Era berean, Zuzendaritzak ikusten badu irakasleren batek bere ordutegian dituen sartzeko eta irteteko orduak ez dituela betetzen nabarmen, ordutegia betetzeko eskatuko dio. Hala ere, ordutegia ez betetzen jarraitzen badu, Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko zaie, bidezko neurriak hartu ditzaten.

Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleen betebeharra da hutsegite-egiaztagiriak zuzendariari garaiz aurkeztea, hark noiz eskatuko zain egon gabe.
- Ikastetxetik kanpo IRALEko eta antzeko ikastaroak egiten ari diren irakasleek ikastaroak egiten ari diren lekuetan aurkeztuko dituzte joan ez izanaren egiaztagiriak.
- Ohiko eskolaldian irakasleen absentziak gertatzen direnean ikastetxean ikasleei arreta emateko ezarritako prozeduraren berri eman beharko zaio Eskola Kontseiluari.
- Ikastetxearen ohiko jardunean, eskolak ematean gertatzen den edozein asaldura berehala jakinarazi beharko zaio Ikuskaritzari, telefonoz.
- Absentzien egiaztagiriak ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirietan, absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoia adieraziko dira. Egiaztagiriak jatorrizkoak eta argiak izan beharko dute.

Ikastetxeek lurralde-ordezkaritzetako langile-unitateekin kudeatu ohi dituzten lizentzia eta baimen guztiak unitate horiek emandako jarraibideen arabera kudeatzen jarraituko dira.

Ikastetxe batzuek, irakasleez gain, Hezkuntza Saileko lan-kontratudun hezkuntza-langileak eta/edo lan-kontratudun bestelako langileak dituzte. Pertsona horien absentziak erregistratzeko, ikastetxeek beren datuak sartu ahal izango dituzte irakasleen absentziak erregistratzeko erabiltzen den EJDko erlaitz beraren bidez.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.3.1. Irakasleak ikasturteko lehen egun baliodunean bertaratu direla kontrolatzea

Ikastetxeko zuzendaritzak bitarteko funtzionarioen eta/edo zerbitzu-eginkizunetan dauden karrerako funtzionarioen lanpostu-jabetzea kontrolatuko du, eta lehenengo egun baliodunaren amaieran dagokion ordezkartzara bidaliko du bertaratzeen sinadura-orria.

[↑Aurkibidea](#)



## 5.4. ZIKLO/ETAPAKO TALDEAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, haien ezaugarriak zein diren, hezkuntza-ziklo berean jardungo duten irakasleak bilduko dituzten lantaldeak eratuko dira haien koordinazioa eta jardura pedagogikoa hobetzeko helburuarekin.

Talde horiek irakaskuntza koordinatzeko funtsezko egiturak izango dira, eta funtzio estrategikoa izango dute curriculumak garatzeko, batez ere matematika-, zientzia- eta irakurketa-kompetentzia hobetzeko, [77/2023 Dekretuan \(4. artikulua\)](#). Ildo horretan, zikloko taldeek modu aktiboan lagundu beharko dute ikasleek kompetentzia horiek pixkanaka eta modu iraunkorrean hobetzen, taldearen errealitatera egokitutako esku-hartzeak ziurtatuta.

Ziklo edota etapako talde horiek **ikasle guztiek egunero eta ikasgai edo eremu guztietan irakurriko dutela** bermatzeko beharrezko neurriak koordinatuko dituztela ezartzen da bereziki. Eguneroko irakurketa, diziplinaz, ikasgelako ohiko dinamiken parte izan beharko da, eta esplizituki islatuko da arlo eta ziklo bakoitzeko programazioetan.

Dagokion koordinatzailearen zuzendaritzapean, **talde horiek aldian-aldian bilduko dira** eta honako hauen **ardura** izango duten **organo pedagogiko gisa** jardungo dute:

- Hainbat arlo irakasten dituzten irakasleen arteko koordinazio didaktikoa.
- Programazioak berrikustea, hiru lehentasunekin:
  - Landu ez diren baina beharrezkoak diren aurreko mailako funtsezko elementuak sartzea.
  - Aurreko mailako funtsezko ikaskuntzak indartzea.
  - Elementu osagarriak edo erredundanteak ezabatzea.

Gainera, programazioek indarrean dagoen curriculumaren metodologia- eta ebaluazio-printzipioak jaso ditzaten zainduko dute, irakurketa ulerkorra, arrazoiaketa matematikoa eta maila guztietako ikerketa zientifikoa sustatzen duten ikasegoeren diseinua barne.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.4.1. Ziklo/etapako koordinatzaileak

Haur Hezkuntzako etapako eta Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko lau irakasle edo gehiagok osatutako irakasle-talde bakoitzean, etapa edo zikloko koordinatzailea egongo da. Bi etapak ematen dituen ikastetxe bateko gehieneko kopurua laukoa izango da: bat Haur Hezkuntzan eta bat Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako bakoitzean. Hala ere, Haur Hezkuntzan hiru lerro edo gehiago dituzten ikastetxeetan, beste koordinatzaile bat izan dezakete etapa horretan.

Ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko ditu koordinatzaileak beste zuzendaritza-eginkizunik betetzen ez duten zikloko edo etapako irakasleen artean, eta izendapena klaustroko aktan eta ikastetxearen Eskola Jardunaren Dokumentuan (EJD) jasoko da.

Ezarritako antolaketa- eta ordezkaritza-funtzioez gain, koordinatzaileek funtsezko zeregina betetzen dute **irakasle-taldearen dinamizatzaile pedagogiko gisa** eta hezkuntza-hobekuntza sustatzen duten eragile gisa. Bereziki **matematikarako, zientziarako eta irakurketarako kompetentzia hobetzera bideratutako neurriak aktibatze**ko eta **finkatzeko funtsezkoa** izango da haren funtzioa.



Eginkizun hauek izango ditu:

- **Etapako edo zikloko irakasle-taldearen bilerak antolatzea, deitzea eta dinamizatzea**, hartutako erabakiak aktan jasotzen direla eta haiek ikastetxearen hobekuntza-helburuekin bat datoze la ziurtatzea.
- **Programazio didaktikoen berrikuspen pedagogikoa** sustatzea konpetentzien ikuspegitik, ikasegoera esanguratsuen diseinua barne.<sup>13</sup>
- **Eguneroko irakurketa arlo guztietan egiten dela eta haren jarraipena egiten dela zaintzea**, ikasleek irakurtzeko konpetentzia garatzeko zeharkako praktika gisa. Haren ardura izango da, irakasle-taldearekin batera, neurri hori aplikatzen dela eta hezkuntza-eragina ebaluatzen dela ziurtatzea.
- **Koordinazio Pedagogikoko Batzordean aktiboki parte hartzea**, ziklo edo etapako akordioen, beharren eta aurrerapenen berri emanez.
- **Tutoretza-funtzioak koordinatzea**, premiak hautemateari eta ikasleei ikuspegi inklusibotik laguntzeko estrategiak sustatzeari arreta berezia eskainiz.
- **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren esparruan irakaskuntza koordinatzea**, irakasle-taldearen praktika pedagogikoen, IHPn jasotako curriculum-akordioen eta Urteko Planean jasotako helburuen arteko koherentzia ziurtatuz.
- **Jarduera osagarriak dinamizatzea**, zikloaren edo etaparen helburu pedagogikoekin bat etorritik.
- **Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea hezkuntza-errefortzuarekin, curriculum-egokitzapenekin eta hobekuntza-ekintzekin** lotutako eginkizun guztietan.
- **Irakaskuntza-ebaluazioaren kultura bultzatzea**, berdinen artean ezagutza partekatze ko ingurune egokia garatzeko.
- **Ikastetxeko BeA figurekin lotura pedagogikoa izatea** eta, beharrezkoa denean, Berritzeguneko edo Ikuskaritzako aholkularitza-taldeekin.

Horrela, ziklo/etapako koordinatzaileek, irakasle-lana antolatzeaz gain, funtsezko ikaskuntzen etengabeko hobekuntzara bideratzen dute, ikasleen kalitatearekiko, ekitatearekiko eta arrakastarekiko konpromiso kolektiboa indartuz.

[↑ Aurkibidea](#)

#### 5.4.2. Ziklo/etapako taldearen bilerak eta zereginak

Ikasketaburutzak bermatu beharko du, ordutegiak egitean, ziklo/etapako taldeak bildu ahal izateko behar den denbora gordeko dela —**astea behin edo hamabostean behin**—. Bilera horiek funtsezkoak dira curriculum partekatua garatzeko, ikasleen ikaskuntzen jarraipena egiteko eta irakaskuntza-jarduna etengabe hobetzeko.

<sup>13</sup> Hezkuntza Sailak Curriculumgunea webgunea gaitu du, curriculum eta pedagogia garatzeko laguntza-materialak eskuratzeko. Atari honetan, beste baliabide batzuen artean, hezkuntza-etapaka antolatutako hainbat gida daude, programazio didaktikoak eta ikasegoerak konpetentzien ikuspegitik diseinatzea errazteko: <https://curriculum.euskadi.eus/eu/gidak>



Oinarritzko curriculumak eta Hezkuntzari buruzko Legeak araututako koordinazio pedagogikoko organo gisa, ziklo/etapako taldeek **funtssezko zeregina dute ikaskuntza hobetzeko, batez ere matematikarako, zientziarako eta irakurketarako konpetentziei dagokionez**, euskal hezkuntza-sistemaren helburu estrategikoekin bat etorritik.

Eguneroko irakurketa arlo guztietan: zikloko ekipoen plangintza eta bermea

[Euskal Hezkuntza sistemarako irakurketa estrategia-Irakurle konpetenteak lortze bidean 2024-2027](#) eta [Irakurtzeko konpetentzia indartzeko programaren](#) esparruan, Hezkuntza Sailak ezarritako lehentasunetako bat da **ikasle guztiek ikastetxean egunero irakurriko dutela bermatzea, modu egituratuan, esanguratsuan eta etapei egokituta**. Irakurketa hori ez da mugatu behar hizkuntza-arloetara, **zeharka hedatu behar da arlo eta maila guztietara**.

Neurri hori koherentziaz eta eraginkortasunez ezartzeko, **ziklo/etapako taldeek erabaki bateratuak hartu beharko dituzte, honako hauek kontuan hartuta**:

#### a) Antolamendu-neurriak

- Eguneroko irakurketa-denbora esplizituak zehaztea maila bakoitzean.
- Ikasgelako ordutegi guztietan irakurketa-praktika irakatsi eta ikasteko prozesuaren ohiko zatitzat hartzen dela ziurtatzea.
- Ikasketa-burutzarekin koordinatzea, taldekatzeen, espazioen eta baliabideen baldintza egokiak bermatzeko.

**b) Neurri pedagogikoak.** Irakurketaren zentzua eta helburuak adostea ziklo eta etapa bakoitzean:

- **Haur Hezkuntzan** helburu nagusia da Lehen Hezkuntzan arrakastaz irakurtzen ikasteko beharrezko **oinarriak garatzea**. Horretarako, irakasle-taldeak honako hauek erraztuko dituzten espazioak eta dinamikak planifikatu beharko ditu:
  - Kontzientzia fonologikoa (lexikoa, silabikoa, fonemikoa) eta kode idatziaren ezagutza.
  - Testu-mota desberdinetara eta haien funtzioetara ohitzea.
  - Irakurketarekin lotura afektiboak eta sozialak sortzea, ipuinak aktiboki entzunez, irakurketa partekatua eginez edo liburu ilustratuak libreki aztertuz.
- **Lehen Hezkuntzan**, zikloaren arabera egokituko da ikuspegia:
  - Lehen zikloan, deskodetzeko eta ulertzeko oinarritzko trebetasunak garatuko dira, irakurketa autonomoko ohiturak sendotuz.
  - Bigarren eta hirugarren zikloetan, irakurmena indartuko da: irakurketa arlo guztien ikaskuntzan txertatuko da, eta estrategia inferentzialak, analisi kritikoa eta hiztegia eskuratzeko estrategiak landuko dira.
- **Askotariko materialak** (narratiboak, zientifikoak, digitalak, informatiboak...) eta irakurtzeko hainbat modu (ozen, isilean, partekatuta, gidatuta, etab.) erabiltzen direla ziurtatzea.



- Irakurri ondoren, ahozko edo idatzizko elkarrekintzak ahalbidetuko dituzten jarduerak ezartzea, ikasgelako ikaskuntzekin lotuta.

### c) Irakurketa-kultura partekatua

- **Klaustroa sentsibilizatzea** irakurketa ekitaterako eta eskola-arrakastarako tresna gisa hartuta.
- **Familien inplikazioa bultzatzea**, bereziki Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan.
- [Irakurgunea.eus](http://Irakurgunea.eus) webgunean eskuragarri dauden baliabideak eta proposamenak erabiltzea, baita estrategiaren proiektuak ere (ITT, e-librum, ...).

Eguneroko irakurketa ez da jarduera isolatu edo aisialdi gisa ulertu behar, baizik eta **ikastetxearen egitura-praktika** gisa, curriculumaren konpetentzia-helburuekin, irakurtzeko autonomiaren garapenarekin eta ikasleek arlo guztietan ikasteko duten konpetentzia hobetzearekin lotuta.

### Zikloko ekioparen funtsezko beste funtzio batzuk

Irakurketa-plangintzako erantzukizun nagusi horretaz gain, ziklo/etapako taldeek **honako funtzio hauek** ere izango dituzte:

- Programazio didaktikoak konpetentzien ikuspegitik prestatzea eta berrikustea.
- Ikasleen emaitzak aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.
- Ebaluazioko, curriculum-egokitzapeneko eta hezkuntzako esku-hartzeko jarduketak koordinatzea, ikuspegi konpetentzial hezigarri eta etenik gabekoa bermatuz.
- Zikloaren barruan pedagogia- eta ebaluazio-irizpideak bateratzea.
- Zeregin integratuak eta diziplinarteko ikasegoerak diseinatzea.
- IUParen eta ikastetxeko beste plan estrategiko batzuen garapena dinamizatzea.
- Irakaskuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proposamenak bultzatzea.
- BeA figurarekin metodologia aktiboen eta hobekuntza-helburuei lotutako baliabideen integrazioa artikulatzea.
- Behar denean, familiekin eta kanpoko zerbitzuekin lankidetzan aritzea.

[↑ Aurkibidea](#)

## 5.5. MAILAKO TALDEAK ETA TUTORETZAK

Mailako irakasle-taldea ikasleekin esku hartzeko ardatza da. Talde horren koordinazioa funtsezkoa da esku-hartzea koherentea izan dadin lortzeko eta ikasleek dituzten lorpenen eta zailtasunen jarraipena partekatzeko, bai eta irakasteko eta ikasteko prozesua egokitzeke egin daitezkeen esku-hartzeak partekatzeko ere.





### 5.5.1. Tutoreak izendatzea

Haur Hezkuntzako eta/edo Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakoitzean tutore bat egon beharko da talde ofizial bakoitzeko. Tutoreak ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko ditu.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.5.2 Tutorearen eginkizunak

Tutoreak bere taldearen ikasleen ardura du. Taldean beste arloak ematen dituzten irakasleak koordinatu behar ditu eta bere taldeko ikasleen familiekin eta/edo legezko tutoreekin komunikazio eraginkorra izan behar du hezkuntza-zereginen laguntzeko. Tutoreari dagokio:

- **Tutoretza**-plana prestatzea eta garatzea, zikloko koordinatzailearen eta aholkulariaren laguntzarekin.
- **Ikasleen** konpetentzien, interesen eta bilakaeraren jarraipena egitea, ikaskuntza-prozesuan laguntzeko eta garapen pertsonala eta akademikoa bideratzeko.
- **Taldeko** eta banakako tutoretza egitea, tutoretza-planean ezarritakoaren arabera.
- Tutoretza-planaren esparruan, **Bizikasi** ekimenaren proposamen didaktikoak garatzea, bai eta berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeria prebenitzeko proposamenak egitea ere.
- Ikastetxeko BAT taldearekin batera **eskolako jazarpen-egoerak konpontzeko prozesuetan parte hartzea, bere tutoretzapeko taldea inplikaturik** badago.
- **Ikasleei euren** taldean eta ikastetxeko eskola-bizitzan integratzea erraztea, eta, horretarako, kide izatearen zentzua, parte-hartze aktiboa eta taldearen kohesioa sustatzea, arreta berezia jarritz berandu hasten diren ikasleengan.
- **Jarduera-plan pertsonalizatua egitea**, zikloan gora egiten duten ikasleentzat eta ziklo berean beste urtebetez egon behar dutenentzat, baldin eta dagozkien konpetentzien garapen-maila lortu ez badute.
- **Taldeko** irakasle-taldearen hezkuntza-ekintza koordinatzea, ebaluazio-saioetatik harago, ikasleei buruzko informazio garrantzitsua partekatzeko, laguntzeko edo esku hartzeko neurri bateratuak planifikatzeko, metodologia- eta ebaluazio-koherentzia bermatzeko, bizikidetzagaiei heltzeko eta familiekin komunikazio argia eta koordinatua antolatzeko. Koordinazio hori ikasleen hezkuntza-laguntza hobetzera eta irakasle-talde osotik erantzun pedagogiko partekatuak, errealistak eta iraunkorrak ziurtatzera bideratu behar da.
- **Ikasleen** etengabeko ebaluazio-prozesua koordinatzea eta, irakasle-taldearekin batera, ebaluazioari eta mailaz igotzeari buruzko erabakiak hartzea, indarrean dagoen araudian eta IHParen curriculumaren zehaztapenean ezarritako irizpideen arabera.
- **Hezkuntza-premia** bereziak dituzten ikasleei zuzendutako curriculum-egokitzapenak eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak koordinatzea, irakasle laguntzaileekin batera eta, hala badagokio, irakasle aholkulariekin batera.
- **Familiekin konfiantzazko eta erantzukidetasunezko harremana ezartzea**, aldizka ikasleen hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa emanez, ikasleen ekarpenak hartuz eta erabakiak



hartzean eta beharrezkotzat jotzen diren esku-hartzeetan haien inplikazio aktiboa bultzatuz. Halaber, sustatuko du familiek ikaskuntzari familia-ingurunetik laguntzeko erantzukizuna beren gain hartu dezaten ikastetxearen orientazioekiko koherenteak diren ohiturak eta jarrerak hartuz.

- **Banakako** eskola-orientazioaren txostena egitea etapa amaitzean edo ezohiko egoeretan (zikloan edo etapan ez promozionatzea, adibidez).
- **Ardurapean** dituen ikasleen dokumentazio akademikoa behar bezala betetzen eta zaintzen dela bermatzea.
- **Ikasleen** bertaratzeen hezkuntza-jarraipen zorrotza egitea, ez bakarrik absentziak erregistratzeko, baizik eta absentismo-, deskonexio- edo arrisku-ereduak detektatzeko, baita hutsegiteak banaka justifikatuta daudenean ere. **Justifikatu gabeko hutsegiteak edo maiz ez agertzeak gertatzen badira —justifikatuta egon arren—, familiarekin berehala harremanetan jarriko da** eta protokoloan aurreikusitako jarduerari ekingo die, zuzendaritza-taldearekin eta inplikaturako eragileekin koordinatuta.
- **Irakasle** aholkulariekin eta arreta goiztiarrean esku hartzen duten edo balorazio-prozesuan dauden gizarte- eta osasun-eragileekin koordinatzea.
- Ikastetxeko Tutoretza Planean zehazten diren beste eginkizun guztiak bere gain hartzea.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.5.3. Asistentziaren hezkuntza-jarraipena egitea eta eskola-absentismoaren aurrean jardutea

Ikasleen bertaratzea kontrolatzea irakasleen hezkuntza-funtzioaren parte da, eta funtsezko tresna da hezkuntzarako eskubidea bermatzeko eta arrisku-egoerak detektatzeko. **Helburua** ez da soilik administratiboa, **hezkuntzakoa, prebentziokoa eta partekatua** baizik.

**Irakasle guztiek erregistratu behar dute ikasleak beren eskoletara joaten diren ala ez, eta irakasle tutoreei jakinarazi** behar dizkiete detektatutako absentziak, bereziki behin eta berriz edo justifikatu gabe gertatzen direnean.

**Irakasle tutoreak** bere **taldeko ikasleen asistentziaren hezkuntza-jarraipenaren ardura du**. Jarraipen horrek aukera eman behar du absentismoaren edo eskolatik aldentzearen adierazle goiztiarrak identifikatzeko, eta esku-hartze doitua aktibatzen. Lehen absentismo-seinaleen aurrean —justifikatu gabeko hutsegiteengatik edo justifikatutako baina ohiko absentziengatik—, tutoreak zuzenean jarri beharko du harremanetan familiarekin, eta egoeraren balorazio bateratua egin beharko da, jarduera-protokoloetan jasotzen den bezala.<sup>14</sup>

**Ikasketaburutzak erregistro sistematikoa eta bertaratze-hutsegiteen aldizkako jarraipena antolatu eta bermatu** beharko ditu, bai eta ikastetxe osoan jarduteko irizpideen koherentzia ere. Era berean, **familiekiko komunikazioa artikulatzea dagokio**, komunikazioa argia, arina eta errespetuzkoa dela eta hezkuntza-prozesuan zehar mantentzen dela ziurtatuz.

<sup>14</sup> [Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa. Deseskolatzea eta eskola-absentismoa desagerraraztea Arabako lurraldean](#)  
[Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa. Eskolagabetzea eta eskola-absentismoa desagerraraztea Bizkaiko lurraldean](#)



Ikastetxeko zuzendariak Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko dizkio absentismo-datuak, "Notak eta hutsegiteak" aplikazio ofizialaren bidez, hartarako ezarritako epeetan eta prozedura erabiliz. Halaber, absentismoak esku hartzeko protokoloetan ezarritako atalaseak gainditzen dituenean, zuzendaritzak erakundeen arteko bideratze- eta koordinazio-mekanismo aurreikusiak aktibatu beharko ditu, udaleko gizarte-zerbitzuekin, orientazio-taldeekin eta inplikaturako beste eragile batzuekin lankidetzan.

Ikastetxearen jardunak ikuspegi hezitzaile eta pertsonalizatua izan behar du beti, prebentzio, detekzio goiztiar eta esku-hartze erantzukidera bideratua, familiekin eta ikasleen inguruko eragile sozial eta profesionalekin lankidetzan, eskola-absentismoari modu eraginkor eta iraunkorrean aurre egiteko helburuarekin.

[↑Aurkibidea](#)

#### 5.5.4. Bilerak gurasoekin edo legezko tutoreekin

Ikastetxeak informazio-saioak antolatu beharko ditu familiekin, gurasoak joatea errazteko.

Familiekin egiten diren bilera horien izaera (irekiak, orokorrak, taldekakoak, indibidualizatuak, etab.) eta antolaketa ikastetxeko AJAn xedatutakoari egokituko zaizkio. Aipatutako araudiak gai horiek jasotzen ez baditu, zuzendaritza-taldeak definitu beharko ditu. Nolanahi ere, hezkuntza-etapa bakoitzaren hasieran bermatuko da, gutxienez, banakako elkarriketa bat, beste elkarriketa indibidual bat ikasturtean zehar eta bilera kolektibo bat ikasturtearen hasieran. Jarduera-plan pertsonalizatua duten ikasleen kasuan, berdin jokatu da, eta aipatutako plana izango da bilera horien ildo nagusia.

Halaber, beste bilera batzuk egin ahal izango dira talde osoko gurasoekin edo legezko tutoreekin, tutorearen ekimenez, guraso-talde esanguratsu batek eskatuta edo ikastetxeko zuzendaritzaren. Halaber, beste bilera batzuk egin ahal izango dira talde osoko gurasoekin edo legezko tutoreekin, tutorearen ekimenez, guraso-talde esanguratsu batek eskatuta edo ikastetxeko zuzendaritzaren irizpidearen arabera.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.6. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN TUTORETZA

[33/2018 Dekretuak](#), martxoaren 6koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan irakaskuntzan aritzeko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterra egin ezin dutenentzako prestakuntza baliokideari buruzkoak ezartzen ditu unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten EAEko funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle-lanbideetan jarduteko gaitzen duten master-tituluen practicuma egiteko betekizunak, besteak beste.

Era berean, dekretu horren xedea da praktiketako prestakuntza-zentroak aitortzeko eta praktiketako ikasleen irakasle tutoreak egiaztatzeko baldintzak ezartzea. Practicuma hezkuntza-arloan eskumena duen sailak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartu dituen ikastetxeetan bakarrik egin ahal izango da.

[↑Aurkibidea](#)

### 5.7. HAUTAKETA-PROZEDURETAN HAUTATUTAKO IRAKASLEEN PRAKTIKALDIA

Ikasturte-hasieran praktiketako funtzionarioak dituen ikastetxeko zuzendaritza-taldeak aholkuak eta informazioa emango dizkie praktiketako funtzionarioei. Era berean, praktiketako funtzionarioek



esperientzia duten irakasleen babespean egingo dute praktikaldia. Hori guztia dagokion urteko ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Irakasle tutorearen bisita sustatuko da praktiketako funtzionarioaren ikasgelara, praktiketako funtzionarioaren irakaskuntza-gaitasuna hobetzen lagunduko duten proposamenak egin ditzan, eta praktiketako funtzionarioak irakasle tutorearen ikasgelara joan daitezen.

Ikasgelan behaketa horiek egin ahal izateko, tutoreen ordutegian eta praktiketako funtzionarioen ordutegian bat datozen uneak aurreikusiko dira.

[↑ Aurkibidea](#)

## 5.8. LANGILE ESPEZIFIKOAK

Atal honetan aipatzen diren hezkuntza-komunitateko kideek eskola-ingurunean, ikasgelan edo ikasgelatik kanpo, zereginak egiten dituzte, eta zuzenean daude inplikaturik ikaskuntza formalaren prozesuan, kasu batzuetan, eta ikaskuntza ez-formalaren prozesuan.

Ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo ataletan aipatzen diren profesionalekin koordinazioa eta talde-lana bermatu beharko ditu, ikasleek beren eginkizunak betetzen dituzten testuinguruak aprobetxa ditzaten.

[↑ Aurkibidea](#)

### 5.8.1. Jantokiko arduraduna

Kudeaketa zuzeneko eskola-jantokiko zerbitzua emateak, hau da, ikastetxearen beraren bitartez, funtzionalki eragiten die kide anitzeko edo pertsona bakarreko hainbat kudeaketa-organori, hala nola Eskola Kontseiluari, zuzendaritza-taldeari, jantokiko batzordeari, jantokiko arduradunari eta abarri.

Zuzendaritza-taldeak eskuordetuta, honako eginkizun hauek dagozkio, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak arautzen dituen [2000ko martxoaren 22ko Aginduan jasotzen den bezala \(2000ko martxoaren 28ko EHAA\)](#):

- Otordu-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea, jasangarritasun-irizpideei jarraituz eta elikagaiak xahutu gabe. Honelako praktika onak sustatu behar dira, ahal den neurrian: elikadura praktika osasungarriak eta jasangarriak, tokiko, sasoiko eta ingurumen-kalitatearen ziurtagiriak dituzten elikagaien aukeraketa bultzatuz eta jantoki zerbitzuan plastikozko ontzien eta bildukien erabilera murriztuz.
- Jantoki-zerbitzura atxikitako Hezkuntza Sailaren mendeko langileen buru izatea eta kanpoko langileen funtzioen gainean aginpidea izatea, enpresa hornitzaileen eta haien langileen arteko lan-harremanei kalterik egin gabe, hala badagokio.
- Jankideek egin beharreko ordainketen jarraipena egitea, bai ikastetxeko jankideena, bai zerbitzua erabiltzen duten gainerako ikastetxeetako ena. Jantoki partekatuak badira, kudeaketa ekonomikoa bakarra izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxeko kudeaketa ekonomiko orokorraren barruan egingo da.
- Jantokiko funtsen kontrol zuzena eta jarraitua eramatea.
- Gainbegiratze-lanak egitea. Gainbegiratze-lantzat hartuko da, besteak beste, zerbitzua ematen den bitartean ikastetxeko instalazioetan egotea eta elkarbizitzaz eta jantokiaren funtzionamendu egokiaz arduratzea.



- Eskola Kontseiluari proposatzea ikasleek parte hartzeko programak hartu ditzala.
- Tresneriaren inbentarioa egitea eta aldian-aldian eguneratzea eta birjartzea.
- Kontratututako enpresaren zerbitzuaren ezaugarriei eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea Eskola Kontseiluari, eta instalazioen obrak eta hobekuntzak proposatzea.
- Elikagaien eta lokalen higieena kontrolatzea eta jantokiko hondakin guztien gaikako bilketa bermatzea.
- Funtzionamendu-orduetan jangela zaintzea, birkokatutako langilerik egonez gero (197/1998 Dekretua, uztailaren 28koa).
- Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa den beste edozein eginkizun, bai eta indarrean dagoen araudiak agintzen dizkionak ere.
- Gainera, egokia litzateke Bizikasiren talde dinamizatzaileari ekimenak proposatzea, jantoki-zerbitzuaren ordutegian bizikidetza-giroa hobetzen laguntzeko.
- Jantokiaren kudeaketa- eta administrazio-funtzioak bi langile-motaren bidez egin ahal izango dira:
  - Birkokatutako langileen poltsatik datorren jantokiko arduraduna, uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuan aurreikusitako neurriak aplikatuz (1998-09-08ko EHAA).
  - Ikastetxeko jantokiko arduraduna.

Arduradunak lanaldi-ehuneko hau eman beharko du:

| Jankideak    | Jantoki-zerbitzuan emateko lanaldia   | Ordu presentzialak |
|--------------|---------------------------------------|--------------------|
| 30 arte      | Curriculum emateko lanaldiaren herena | 1 ordu egunean     |
| 31tik 250era | Curriculum emateko lanaldiaren erdia  | 1,5 ordu egunean   |
| 250etik gora | Curriculum osoa emateko jardunaldia   | 2 ordu egunean     |

Arestian aipatutako funtzioez gain, jantokiko instalazioetan egon beharko du, bai eta bazkalaurreko eta ondorengo atsedendietan ere, aurreko koadroan adierazitako ordu-kopuruan. Ikasleak zuzenean behatzeko eta artatzeko aldi horietan, jantokiko arduradunak zeregin garrantzitsuak bete ditzake, bai inklusioko eta bizikidetzako helburuekin lotuta, bai eskuratzen ari diren konpetentziak garatzearekin eta finkatzearekin lotuta.

Jantoki partekatuen kasuan (jantokiko instalazioak hartzen dituen ikastetxe bateko jankideek jantokia partekatzen dute beste maila bateko beste ikastetxe bateko jankideekin), jantokirik ez duen ikastetxeak lanaldi erdiko murrizketa izango du, aipatutako 2000ko martxoaren 22ko Aginduaren 15. artikulua (e), f) eta j) puntuetan ezarritako eginkizunak betetzeko. Eginkizun horiez gain, honako hauek ere beteko ditu:

- Jantokiko instalazioetan egotea zerbitzua ematen den bitartean, eta jantokiaren diziplinaz eta funtzionamendu egokiaz arduratzea.



- Bazkaltzeko aldia eta aurreko eta ondorengo aldiak gainbegiratzea.
- Bere ikastetxeko ikasleei laguntzea jantokia duen ikastetxeraino, eta alderantziz.

Jantokiko zerbitzua erabiltzearekin batera, bazkaldu aurretik eta ondoren jolas-denborak izaten dira. Hezkuntza-administrazioetik kanpoko langileak arduratu ohi dira jolas-denbora horiek zaintzeaz. Gertatzen den edozein gorabehera jantokiko arduradunari jakinarazi beharko zaio. Era berean, komeni da langile horiek aintzat hartzea, aintzat hartzea eta balioestea, egiten duten lanagatik eta eskola-eguneko tarte horiek dakarten potentzialtasunagatik hezkuntza-komunitatean sustatzen diren eta IHPan, Bizikidetza Planean eta IUPean islatzen diren ikaskuntzak eta jakintzak finkatzeko.

Eskola-jantokiez arduratzen diren profesionalen lana babesteko, HPBko zenbait ikaslek hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza behar dute bazkaltzeko orduan eta/edo bazkალაurreko eta ondorengo jolas-denboretan. Premia hori HPBetako aholkularien jarraibideak betez egindako ebaluazio psikopedagogikotik eratortzen da premia hori, eta profesional horiek zehaztuko dute.

[↑ Aurkibidea](#)

### 5.8.2. Administrazio-kudeaketaren arduraduna

Administrazio-lanez (AKA) arduratzen den irakaslearen figurak zentzua hartzen du zuzendaritzaren berezko erantzukizunen ondoriozko zereginetan, eta, bereziki, honako hauekin zerikusia dutenetan:

- Gastuak baimentzea, ikastetxearen urteko kudeaketa-programaren arabera, eta ordainketak egiteko aginduak ematea.
- Obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioak egitea.
- Hezkuntza Sailarekin elkarlanean aritzea ikasleentzako laguntzen kudeaketan, hala nola hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak dituzten ikasleentzako laguntzak (HBLP), eskola-garraiorako banakako esleipenak, eta hezkuntzatik eratorritako gastuak estaltzeko bekak edo laguntzak

Eginkizun horiek administrazio eta kudeaketa ekonomikoko zereginak dakartzate, eta, betiere, zuzendaritzaren ikuskaritzapean eta erantzukizunpean egingo dira. Zuzendaritzak beste zeregin didaktiko batzuk esleitu ahal izango dizkio.

Horregatik, AKAk zuzendaritza-funtzioei laguntzeko behar diren prozesuak hiru eremutan banatzen dira:

#### - Administratiboa:

- Harrera eta informazioa ematea hezkuntza-komunitateko sektoreei eta hornitzaileei.
- Telefono-deiez, faxaz eta posta elektronikoaz arduratzea, eta informazioa bideratzea.
- Posta jasotzea, sailkatzea, erregistratzea eta banatzea.
- Ikastetxeko inbentarioa kontrolatzea.
- Erreprografiako materiala erabiltzea eta zaintzea.
- Idazkiak, gutunak, ziurtagiriak, abisuak, zerrendak... idaztea.



- Espediente akademikoak eta bestelako administrazio-dokumentuak irekitzea eta eguneratzea.
- Datuak dagokion administrazioa bideratzea.
- Ordezkoak eskatzea, irakasleak eta irakasle ez direnak.
- Ikastetxeko kudeaketa-esparruetan informatika-aplikazioak erabiltzea.
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara altak eta bajak bidaltzea, bai eta langileen hutsegiteen baieztapena ere aplikazioaren bidez.
- Ikasleei zuzendutako laguntzak emateko eskatzen den dokumentazioa egiaztatzen laguntzea.
- Familiei laguntza ematea eskabideak betetzen eta aurkezteko, dagokion aplikazio informatikoaren bidez.
- Ikasleentzako laguntzak kudeatzeko eta ezarritako kudeaketa-sistemetan sartzeko behar den dokumentazioa digitalizatzea.
- Ikasleentzako laguntzen administrazio-izapideak kudeatzea, Hezkuntza Sailak ezarritako prozeduren arabera.
- Gastuak justifikatzen dituzten agiriak zaintzea eta laguntzen onuradun diren ikasleen laguntza egiaztatzea.
- Ikasleei esleitutako funtsak jasoz gero, haien kudeaketa, tramitazioa, entrega eta justifikazioa bermatzea.

#### - Ekonomikoa:

Urteko Kudeaketa Programa da erreferentzia nagusia; izan ere, programaren zehaztapenen artean egongo da ikastetxeko aurrekontua, funtzionamendu-gastuak zehaztuta, bai eta ekipamendu- eta inbertsio-gastuak eta gastu horiei aurre egiteko baliabideak ere. Hori lantzeko orduan, kontuan izango dira erosketa berdearen eta jasangarritasunaren irizpideak.

Aurrekontu operatiboak jasoko ditu, aurreikuspen moduan, ikastetxeari esleitutako dirusarrerak, baita gastuak ere, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrari jarraituz. Plan horrek urte 95 naturaleko ekintzen tenporalizazioa zehazten du, eta honako eginkizun hauek betetzea eskatzen du:

- Aurrekontu operatiboa prestatzea:
  - Ikastetxearen beharrak lehenestea.
  - Diru-sarrerak sailkatzea.
  - Gastuak sailkatzea.
- Aurrekontuak aldatzea, honako hauen arabera:
  - gastuan eta/edo diru-sarreretan izandako igoera edo jaitsiera





- kredituen birbanaketa
- Aurrekontua gauzatzea:
  - Materiala erosteko kontratazioak eta proposamenak prestatzea.
  - Ordainketak egitea.
  - Erregistro-liburuetan jasotzea.
  - Betearazpenaren egoeraren laburpena egitea.
- Aurrekontuari buruzko informazioa ematea:
  - Dokumentazioa aldizka betetzea.
  - Ekitaldiko aurrekontu operatiboa.
  - Gastuaren betearazpenaren egoeraren laburpena.
  - Diruzaintzaren azterketa.
- **Didaktikoa:**

Ikastetxean sortu daitezkeen irakaskuntza-premiei erantzutea (irakaskuntza arrunterako laguntza ematea, irakasleen ordezkapenak, hezkuntza-errefortzuko beharrak, errehabilitazioak,...) gainerako irakasleen baldintza beretan, eta aipatutako jarduera ekonomiko-administratiboetan kalterik eragin gabe.

AKA ikastetxeko zuzendariaren ardurapean dago ondorio guztietarako, eta zuzendariak hartzen ditu bere gain kudeaketaren erantzukizunak.
- **Dedikazioa eta izendatzea:**

AKAren dedikazioak LPZa egiteko zehaztutako irizpideen arabera da:

  - dedikazio partziala (lanaldiaren erdia) 13, 14 eta 15 unitateko ikastetxeetan
  - dedikazio osoa (lanaldi osoa) 16 unitate edo gehiagoko ikastetxeetan

Zuzendaritzak izendatuko du, borondatez postua eskatu duten ikastetxeko behin betiko, behin-behineko edo bitarteko irakasleen artetik.

[↑ Aurkibidea](#)

### 5.8.3. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programako irakasleak

Irakasle hauen ordutegi pertsonala ikastetxeko zuzendaritzak onartuko du. Ikastetxeak onartutako ordutegia eta egutegia banatzeko sistema orokorraren barruan garatuko dituzte dagozkien jarduerak.

Programaren ardura duten irakasleek praktikara eraman beharko dituzte diseinatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, eta irakasle arduradunak zuzenean esku hartu beharko du borondatez parte hartzen duten ikasleekin.



Ordu-banaketa aldatu egin daiteke proiektuen ezaugarri zehatzen eta ikastetxeen egoeraren arabera, eta honako gutxieneko hauen barruan mantenduko da:

- 10 ordu asteko, ikastetxeko eskola-orduetan.
- 20 ordu asteko, eskolaz kanpoko ordutegian. Horietatik, gutxienez 2 ordu egingo dira egunero ikasleen arratsaldeko eskola-eguna amaitzean.

[↑ Aurkibidea](#)

#### 5.8.4. Lan-kontratuko irakasleak eta hezitzaileak

Lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileek beren hitzarmen kolektiboan ezarritakoa bete beharko dute. Hitzarmen kolektibo hori Lan eta Gizarte Segurantzaren 2004ko maiatzaren 21eko [Ebazpenaren](#) bidez erregistratu eta argitaratu zen (2004ko ekainaren 17ko EHAA). Gainera, batzorde paritario bat eratu da hitzarmen hori interpretatzeko, aztertzeko eta zaintzeko, bai eta tresna juridiko hori eta haren eranskinak biltzen dituzten gaien garapena eta jarraipena egiteko ere. Langile horien funtzionamenduari buruzko orientabide espezifikoak honako hauek dira: [Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak/Irakasle eta hezitzaileentzako jarraibideak](#).

Zuzendariak irakasleen eta hezitzaileen arteko lan koordinatua bermatuko du plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta ikasleen jarraipenean. Hezitzaileen artean, honako hauek daude: fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBTko profesionalak, gor-itsutasuneko bitartekariak, zeinu-hizkuntzaren interpreteak, gorren koordinatzaileak.

Ikastetxeetara urtero bidaltzen diren jarraibideen arabera egiten eta tramitatzen dira langile horien egutegiak.

##### a) IBT laguntza-zerbitzua

IBTbaliabidetegiek ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa lortzeko lan egiten dute, eta hezkuntza-komunitateko eragile guztiei aholku ematen diete eta haiekin esku hartzen dute ikasle horiei eman beharreko hezkuntza-erantzunaren diseinuan. IBTko teknikariak organikoki eta funtzionalki ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioko baliabide-zentroetako zuzendaritzen mende daude. Zentro horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko kanpoko laguntza-zentroak dira, martxoaren 1eko 40/2005 Dekretuaren bidez sortuak.

Zerbitzu honen esku-hartzea detektatzen den unetik bertatik hasten da. Detekzioa ikastetxetik bertatik etor daiteke, HLPBko aholkulariaren bidez, edo zerbitzu medikoak bideratutako familien aholkularitzaren bidez. Azken kasu horretan, IBTko zuzendaritzak dagokion Berritzeguneari jakinaraziko dio.

##### b) Lan-legepeko hezitzaileen lanaldia betetzen dela kontrolatzea

Lan-legepeko hezitzaileen eginkizunek garrantzi etiko eta moral handia dute zaintzen eta artatzen dituzten ikasleen ikaskuntza- eta sozializazio-prozesuan, eta, beraz, horien faltak eragin nabarmena du ikasleen eskola-dinamikan. Horregatik, gomendatzen da hezkuntza-komunitateko kideek aintzat hartzea eta positiboki baloratzea profesional horiek egiten duten funtsezko lana, bai zaintzen eta artatzen dituzten ikasleekin, bai familiekin eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin.



Lan-legepeko hezitzaileek ikastetxean betetzen dituzten eginkizunen arabera dagokien ordutegia bete beharko dute. Horretarako, Hezkuntza Sailak dagozkion kontrol-mekanismoak ezarri ahal izango ditu.

Ordutegia justifikaziorik gabe betetzen ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak dagokion ikuskaritzazonako buruari jakinarazi beharko dio, eta hartzekoak deskontatu ahal izango dira, [Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legean](#) ezarritakoaren arabera, gerta daitekeen diziplina-erantzukizuna bazter utzi gabe.

Era berean, greba egiten bada, ikastetxeko zuzendaritzak horren berri emango dio ikuskaritzazonako buruari, eta ikasleen arreta ahalik eta onena antolatuko du eskuragarri dauden giza baliabideekin.

Era berean, profesional batek esleitu zaion irakaskuntza-dedikazioko ordutegian sartzeko eta irteteko betebeharrak nabarmen betetzen ez dituela ikusiz gero, zuzendariak ordutegira egokitzeko eskatuko dio. Ordutegia ez betetzen jarraituz gero, hori hileko bertaratze-agirian islatzeaz gain, Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaie, dagozkion neurriak hartu ditzaten.

### c) Lan-kontratuko hezkuntza-langileen bertaratze-partea

Ikastetxeko zuzendaritzak hilabete bakoitzeko 5a baino lehen bidali beharko dizkio dagokion eskualdeko ikuskaritzaburuari aurreko hilabeteari dagozkion bertaratze-agiriak. Hezkuntzako lan-kontratuko langileek greba egiten badute, aipatutako bertaratze-agiria bidaltzeaz gain, grebarekin bat egin duten langileen izenen zerrenda ere igorriko da greba amaitu eta hurrengo egunean.

Ikastetxeek Hezkuntza Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-agiriak, Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien jarraibideen arabera. Aplikazio hori bera erabiliko da grebaren kasuan intzidentziaren berri emateko eta greba egin duten langileen izenen zerrenda egiteko.

Hileko parte horiek ikastetxean lan egiten duten hezkuntzako langile guztien bertaratze-partetzat hartu behar dira. Langile horiek bi ikastetxetan edo gehiagotan lan egiten badute, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak bidaliko du dagokien bertaratze-agiria.

[↑ Aurkibidea](#)



## 6. ESKOLA-FUNTZIONAMENDU SEGURU ETA ERAGINKORRERAKO BALDINTZAK ETA ARAUAK

### 6.1. IKASTETXEETAKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO ERABILTZEA

[Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuaren \(2008ko maiatzaren 19ko EHAA\)](#) xedea da administrazioek eta erakunde publikoek nahiz beste edozein pertsona fisikok edo juridikok unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eraikinen eta instalazioen erabilera arautzea, ikastetxearen urteko programazioan aurreikusten ez diren hezkuntza-, kirol- eta kultura-jarduerak edo bestelako jarduera sozialak egiteko.

Dekretuak bere artikuluetan zehazten ditu, besteak beste, egin beharreko jardueren ezaugarriak, erabiliko diren instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea eta eskabide- eta baimen-prozedura arrunta eta laburtua.

Illo horretan, gogorarazi nahi dugu ezinbestekoa dela ikastetxeak dekretu horrek ezartzen duen araudia betetzea.

[↑Aurkibidea](#)

### 6.2. DATU PERTSONALEN BABESA

Ikastetxeek ikasleen datu pertsonalak kudeatuko dituzte arau hauetan ezarritakoaren arabera: [2016/679 \(EB\) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena](#), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa; eta [3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa](#).

Ikastetxe publikoek eskolatzeko-prozesuan sortzen den informazioa kudeatuko dute, eta berori Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez bilduko da. Era berean, ikastetxeak behartuta daude hezkuntza-komunitate osoa prestatzera datu pertsonalak tratatzearen oinarritzko printzipioen eta arriskuen inguruan. Datuen titularrei hizkuntza ulerterrazean eman beharko diete datuak babesteko daukaten politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.

Ikastetxeak datu horiek etengabe eguneratu behar ditu barne-prozesuen funtzionamendu egokirako. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu datuak aldatuz gero betiere horren berri eman dezaten, horiek eguneratu ahal izateko.

Ikastetxeek beren eginkizunak betetzeko erabiltzen dituzten datu pertsonalak ez dira ikastetxearenak, baizik eta ikasleenak, haien senideenak, bertako langileenak edo ikastetxearekin harremana duten beste pertsona fisiko batzuenak. Haiek dira beren informazio pertsonalaren benetako titularrak. Ikastetxeko langileek arreta handiz eta pribatutasuna eta intimitatea errespetatuz tratatu behar dituzte datu pertsonalak, ikasleen interesa eta babesa lehenetsita.

Erabiltzaileek eskubidea izango dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta beste norabaitera eramateko, baita haien trataera mugatzeko edo trataeraren aurka egiteko ere.

Hezkuntzaren arloan, bereziki garrantzitsua da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Hala, esate baterako, hezkuntza-premia bereziei (minusbaliotasunen bat) edo alergieiei eta intolerantziei buruzko datuak, eta ikasleen txosten psikopedagogikoetan jasotako datuak, besteak beste, ikasleen osasunari buruzko datutzat hartzen dira.



Baliteke ikastetxeek –zehazki, bertako langile– jakin behar izatea ikasleek gaixotasun edo alergia jakin batzuk dituzten. Horretarako, informazio hori ahalik eta berme handienarekin tratatzeko neurriak hartuko dituzte.

Horregatik, eta eragindako ikasleen gurasoen edo, hala badagokio, haien legezko tutoreen adostasunarekin, beharrezko protokoloak ezarri behar dira informazio hori behar bezala tratatzeko, bai ikastetxearen ohiko funtzionamenduan zehar (ikasgeletako egonaldia, aisialdiko ordutegia, gorputz-hezkuntza, jantokia, erizaintza, ebaluazio psikopedagogikoa, etab.), bai ezohiko egoeretan (irakasleen, tutoreen ordezkapenak, urteurrenen ospakizunak, irteerak, udalekuak, etab.).

[↑Aurkibidea](#)

### 6.3. JABETZA INTELEKTUALA IKASTETXEETAN

Plastikoak edo argazki-lan figuratiboak diren obren eta obra isolatuen zati laburrak erreproduzitzeko, banatzeko eta jendaurrean ezagutarazteko, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen [apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan](#) ezarritakoa hartuko da kontuan, eta gai horri buruz indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatuko dira (ikus bereziki [32. artikulua](#)).

[↑Aurkibidea](#)

### 6.4.- IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Hezkuntza-komunitateko hainbat eragilek eskola-bizitzan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko, ezinbestekoa da batez ere ikasleen osasunari eta segurtasunari lotutako alderdi batzuk arautzea, baita ikastetxean bat egiten duten kolektibo guztiarenak ere.

[↑Aurkibidea](#)

#### 6.4.1. Osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetan

Edozein osasun-egoera larriren aurrean, irakasleak edo irakasle ez diren langileak 112 larrialdi-zerbitzuarekin harremanetan jarriko dira berehala, eta bertan emango dizkiete nola jokatu jakiteko jarraibideak.

[↑Aurkibidea](#)

#### 6.4.2. Osasun-arreta eskola-orduetan

Osasun-premia espezifikokoak dituzten ikasleei arreta emateko, Gobernu Kontseiluak 2006ko azaroaren 29an adostutako jarduera-protokoloari jarraituko zaio.<sup>1516</sup>

[↑Aurkibidea](#)

<sup>16</sup> Osasun-arretaren zirkularra eskola-orduetan (Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2005/11/29): [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_edu\\_inc\\_neapoyoeducativo/eu\\_def/adjuntos/2012\\_2006\\_08\\_30\\_Atencion\\_sanitaria\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_edu_inc_neapoyoeducativo/eu_def/adjuntos/2012_2006_08_30_Atencion_sanitaria_e.pdf) Dokumentu honek osasun-premia espezifikokoak dituzten ikasleei eskola-orduetan erantzuteko jarduera-protokoloa arautzen du



### 6.4.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzea

Indarrean dagoen segurtasun-araudiaren arabera, debekatuta dago ikasleek eta ibilgailuek aldi berean espazio edo sarrera edo irteera berberak partekatzea.

Ikastetxeko zuzendaritzak ibilgailuak sartzeko baimena emanda ere, ezingo dira sartu ikasleen sarrera eta irteera orduetan edo ikasleen jolasgaraian. Gainera, eskola-esparruaren barruan ordutegiak, ibilbideak eta zirkulazio-arauak zehazteko prozedura ezarriko da, bai eta seinaleztapena ere. Prozedura hori idatziz erregistratuko da, eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak horren berri izango dute.

Aparteko egoera batean Ibilgailu bat ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendariak edo hark eskuordetutako pertsonak lagundu beharko diote.

[↑Aurkibidea](#)

### 6.4.4. Obrak

Litekeena da eskola-orduetan obrak egin behar izatea ikastetxe batean.

Obrak egiteko, Segurtasun eta Osasun Azterlan bat sartuko da proiektuan, eta bertan jasoko dira jarraibideak. Obra txikien kasuan, lantokia irekitzean jarraitu beharreko Segurtasun Plan bat erantsiko da.

- Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da obra-eremua irakaskuntza-eremutik erabat bereiztea. Horrek eskatzen du:
  - o Obra-eremua erabat hesitzea.
  - o Sarbide independenteak jartzea obrako ibilgailuentzat eta obrako langileentzat.
  - o Obrakoa ez den pertsona orori sarrera galarazteko kartela jartzea.
  - o Ibilgailuak sartzeko atetik oinezkoak sartzeko galarazteko kartela jartzea.
- Ikastetxeko sarreran eta obra-eremuan ikusteko moduan jartzea bi eremuak koloreen arabera argi eta garbi bereizita dituen plano bat, dagozkien sarbideak eta jarraibideak adierazita. Plano hori ikastetxeko zuzendaritzari ere emango zaio.
- Obrako ibilgailuek irakaskuntza-gune irekitik sartu behar izango balute, obraren arduradunak langileak jarri beharko ditu une oro sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko langileen segurtasuna bermatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

### 6.4.5. Tabakoa eta edari alkoholdunak

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da indarrean dagoen araudia betearazteaz. Araudi horren arabera, debekatuta dago ikastetxeetan tabakoa eta alkoholdun edariak saltzea eta kontsumitzea, ikasleen adina eta irakaskuntza-mota edozein izanik ere.

[↑Aurkibidea](#)

#### 6.4.6. Eskola-laborategiak erabiltzea

Laborategietako jarduera ikasleen adinera eta kompetentzi-mailara egokitu beharko da, bai eta instalazio zehatzen baldintza teknikoetara ere, betiere pertsonen segurtasuna eta indarrean dauden protokoloak betetzen direla bermatuta.

[↑ Aurkibidea](#)

#### 6.5. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA

Gogorarazten da laneko arriskuaren prebentzioari buruzko informazio guztia eskuragarri dagoela Laneko Arriskuaren Prebentzioarako Zerbitzuaren webgunean eta Prebentzio Zerbitzuko teknikariei ere kontsultatu ahal zaiela.

|                    |                       |             |
|--------------------|-----------------------|-------------|
| ZERBITZU OROKORRAK | LAPZ arduraduna       | 945 018 411 |
|                    | Higiene-arloa         | 945 018 451 |
|                    | Psikosoziologia Arloa | 945 016 546 |
|                    | Segurtasun-arloa      | 945 016 545 |

| LURRALDE HISTORIKOA | ZONA   | ARLO TEKNIKOA | LAN OSASUNAREN ARLOA |
|---------------------|--------|---------------|----------------------|
| ARABA               | 1 ZONA | 945 01 84 51  | 688670550            |
| BIZKAIA             | 1 ZONA | 94 403 11 92  | 94 4031194           |
|                     | 2 ZONA | 94 403 11 93  |                      |
|                     | 3 ZONA | 94 403 11 93  |                      |
|                     | 4 ZONA | 94 403 11 92  |                      |
| GIPUZKOA            | 1 ZONA | 943 02 31 74  | 943 023170           |
|                     | 2 ZONA | 943 20 84 44  | 943 700491           |

[↑ Aurkibidea](#)





### 6.5.1.- Segurtasuneko laguntzailea

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio Zerbitzuak deitzen dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle horren ordutegian, ahal dela, astearteetan goizeko 8etatik 11etara ez da irakaskuntza-dedikaziorik izango.

Zuzendaritza-taldeari gogorarazten zaio komeni dela laguntzailearen figura ikastetxean maila bateko egonkortasuna duen langile bati esleitzea, lanari jarraitutasuna emateko.

[↑Aurkibidea](#)

### 6.5.2.- Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan

Hezkuntza Sailaren prebentzio-arloko formazioa emateko betebeharra betetzeko (31/1995 Legearen 19. artikulua) eta langileek lege horren 29. artikulua betetzeko, urtean gutxienez 2 ordu gordeko dira formakuntza horretarako irakasleen formakuntzara zuzendutako orduetatik eta/edo ikastetxeari eskainitako orduetatik. Prestakuntza Prebentzio Zerbitzuak emango du ikastetxe bakoitzean, itundutako egun eta ordutegietan, behar den aurrerapenarekin.

[↑Aurkibidea](#)

### 6.5.3.- Larrialdi-simulakroak

Urteko nahitaezko jarduera da, ahal dela ikasturtearen hasieran egingo dena eta IUPan jaso behar dena. Ikastetxean desgaitasuna duten ikasleak eskolatuta badaude, haiek behar bezala ebakutzeko beharrezko neurri espezifikoak adierazi behar dira. Behin hori eginda, simulazioaren ebaluazioa bidaliko da Segurtasuna–Larrialdiak atalean gaitutako webguneko formularioaren bidez.

[↑Aurkibidea](#)

### 6.5.4.- Botikin eramangarria

486/1997 Errege Dekretuak, segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak, xedatutakoaren arabera, lantoki guztiek gutxienez botikin eramangarri bat izan beharko dute, baimendutako desinfektatzaile eta antiseptikoak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, bendak, esparatrapua, apositu itsaskorrak, guraizeak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak izango dituenak.

Lehen laguntzako materiala aldiari-aldiari berrikusiko da, eta berritu egingo da iraungi edo erabili ahala.

[↑Aurkibidea](#)

### 6.5.5.- Lan-istripuak

Osasunaren zaintza eta jakinarazpena Hezkuntza Sailaren webguneko Segurtasuna-Lan istripuak atalean agertzen den eskemaren arabera egingo dira.

Ikastetxeko zuzendaritzak istripu guztien erregistroa egingo du, bai baja eragiten dutenena bai baja eragiten ez dutenena.

Ikastetxeko langileei egindako erasoak lan-istriputzat hartuko dira, nahita egindakoak izan edo nahi gabe egindakoak, eta Erregistroan jasoko dira.

Amatasuna Babesteko Prozeduran, ikastetxean gertatutako istripuen eta gertakarien erregistroa eska daiteke.



#### 6.5.6.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

Informazioa emateko eta erregistratzeko prozeduran ezarritakoari jarraituz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko lanpostuen laneko arriskuei buruzko ebaluazioa eta ikastetxeko larrialdi-plana emango dizkie ikastetxeko langile guztiei.

Lucia Torrealday Berrueco

Hezkuntza Politiketako sailburuordea